

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-03-25
ASTELEHENA
403. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Giro ederra Bergarako azokan

Jende ugari ibili zen Erramu-zapatuan | 12



Animalia laztantzen. | IMANOL SORIANO

Igoera jokatzeko txartela lortu du Ford Mugarrik Bergarari irabazita | 25



Erguingo gunea berritu du Arrasate Herri Eskolak | 14



Oñatiko ikastetxeetako 150 neskatila-mutiko, kantuan | 32



Natra Oñati, aurkarien gainetik

Valladolidi irabazita, bi astez atseden hartu eta igoserako sailkatzeko bide zuzenean dago | 26

Gorka Kintana baloiarekin, zapatuko partiduan. | IMANOL SORIANO

Dolmenen Ibilbidea, bisitariak herrira erakartzeko eskaintza berria Bergaran

Bergarako, Soraluzeko eta Elgoi-barko Udalek sustatu dute ibilbide tematikoa. Elosua-Soraluze estazio megalitikoan hamasei monumentu ikus daitezke, 20 kilometroko bidean. Ondare kultural eta naturala balioan jartzea eta turismoa bultzatzea dira egitasmoaren helburuak. | 30

Maider Unda Europako txapeldunorde, lehenengoz
Ezin izan zuen Natalia Vorobeva errusiarrarekin | 23

Cristian Cañada gaztelarra nagusi Gorlan, azken igoseran aurkariak atzean utzi ondoren | 22

Debagoiendar asko Korrikaren amaiera festan, Baionan
Amets Arzallusek idatzitakoa zen lekukoaren mezua | 4



Baionako festa. | AITZIBER BILBAO

Oñatiko Udalak errenergua ezarriko die etxe hutsei
Alokairua sustatzeko neurria dela azaldu du alkateak | 11



Xabier Lizaur, Ekitermik-en lokalean, mankomunitatean. | LEIRE KORTABARRIA



Amaia Albes diseinatzaile arrasatearra. | LEIRE KORTABARRIA



Gorka Retegi et.

"Ideian sinetsiz gero, laguntza pixka batekin, egiten da aurrera"

- ▶ Ekintzaile batzuek euren esperientzia kontatu digute
- ▶ Krisia bizi dugun arren, laguntzak oraindik badaude
- ▶ Garapen Agentziak jardunaldiak egingo ditu laster

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Euskadin, 3.022 enpresa sortu ziren iaz, 10.000 biztanleko 13. Espainiako batez bestekoa baino zertxobait txikiagoa da hori: 18 enpresa berri 10.000 biztanleko. Axesor erakundearen datuak dira.

Saria bidearen bukaeran

Debagoienean ere sortu dira enpresak. Horietako gehienak pertsona bakarrik edo bik osatzen dituzte. Batzuek merkatuan zegoen eskaera bati erantzun nahi izan diote, zerbitzu berri bat eskainita; beste batzuek betiko jarduera bati beste buelta bat eman diote, merkatuan lekua topatzeko. Erreportaje honetarako elkarrizketatu ditugun debagoiendarrek ez dute bide samurra izan -norberaren enpresa sortzeak poltsikotik inbertitu beharra, lan-ordu mugagabeak, buruko minak... ekarri dizkie- baina negozioa aurrera eroatea lortu dute.

XABIER ETA JAGOBA
EKITERMIK (INGENIARIAK)

"Oztopo handienak norberak ipintzen dituenak dira"

Xabier Lizaur eta Jagoba Bergara ingeniari arrasatearrek bazuten lana, soldatapekoa. Lan horretan ezagutu zuten elkar, eta konturatu ziren biek zutela "kezka berbera: gure kabuz zerbait sortzea, gure buruari erronka berriak ipintzea", Xabierrek laburtzen duen moduan. Lana utzi eta autonomo gisa alta hartu zuten.

Ordurako, enpresa-idea onduta zuten: energiaren eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien arloan zer egingo zuten. Ekitermik sortu zuten. Energia berriztagarri instalazioak eta eraikinen eraginkortasun zertifikazioak

egiten hasi ziren. Baina orduan, krisia etorri zen. 2007. urtea zen. Horrek zer ikasia eman zien, Xabierrek dioskun moduan: "Ideia batekin sortzen duzu enpresa, baina azkenean gauza bizia izan behar da; beti jarraitu behar dio merkatuaren zentzuari, eta aurrea hartu badiezaiokezu, hobe". Hala, lana dibertsifikatzen hasi ziren. Gaur egun, auditoria energetikoak, instalazioak, formazioa eta ziurtagiri energetikoak dira euren negozio-unitate garrantzitsuenak.

Jaso zituzten laguntza nagusiak Mankomunitateko Garapen Agentziatik eta Saiolanetik, Txekintek programaren eskutik etorri ziren. Topatu zituzten oztopoen gainean, hauxe dio Xabier Lizaurrek: "Oztopo handienak norberak bere buruari ipintzen dizkio. Hala, ohituta gaude zortzi orduko lana egitera, agintzen digutena egitera... eta norberaren

enpresan, ordu asko sartu behar dituzu, buruari asko eragin, merkatua ezagutu, jendea konbentzitu... lan handia da".

Enpresa-idea duen jendeari, Xabierrek gomendatzen dio zerbait berria eskaintzen saiatzea, oso merkatu lehiakor baten dagoeneko badagoen zerbait eskaintzea baino. Gero, "ideian sinisten baduzu eta laguntza pixka batekin, gauzak irteten dira aurrera".

AMAIA ALBES
DISEINATZAILEA

"Laguntza gehiago egon beharko liriteke"

Amaia Albesek argi zeukan diseinatzaile izan gura zuela. Joskintza arloan, tarteka, lan egiten zuen bitartean, etxean bere diseinuak egiten hasi zen. "Behar batzuk zituen publiko bat bazeagoen, eta, lehenengo ezagunak, gero jende berria, etortzen hasi zitzaizkidan". Bi urte eman zituen horrela.

Albesendako, aurrerapauso handi bat izan zen etxetik lokal batera joatea, "bezeroei erreparaio ematen zielako etxe partikular batera etortzea, eta etxea eta lana desberdintzea, lanetik deskonektatzea zaila zelako", dio. Baina lokalak "oso-oso garesti" zeuden. Mankomunitateko Garapen Agentziara jo zuen, eta ekintzaileendako dituzten lokalak bat ikusi zuenean, "hau, niretako!", bururatu zitzaion: "Txikia da, baina bakarrik lan egiten dut eta nahikoa da; oso argitsua da... Hementxe egin dut nire txokoa", esaten digu, pozik.

Kezkatuta dio "laguntza gutxi, ezer ez esatearren" jaso duela, "krisiak laguntzak kendu" dituelako. Krisian ere, edo akaso horregatik, "ekintzaileendako laguntza gehiago" egon beharko liritekeela uste du. Diru-sarrerak eta gastuak, derrigor, zaindu egin behar ditu: "Etxean esaten didate enpresaburu baten moduan egiten dudala berba orain". Krisiaren inguruan, hauxe gaineratzen du: "Oso momentu zailean hasi naiz, nire hornitzaile askok

itxi egin dute... Baina, era berean, nire hornitzaileek prezioak jaitsi dituzte; eta nik ez dut garesti saltzen, hortaz, kalitateari eusten diot, eta gehiago saltzen hasi naiz", esaten du.

Pertsona bakarreko enpresaren burua da, eta buruari asko eragitea ere tokatu zaio: bere burua ezagutarazteko, herriko ile-apaindegietan esku-orriak utziz, Facebook-en ekintzak jakinaraziz... eta etxekoan laguntzarekin. "Etxekoak barik, ez nukeen ezer egin izango", esaten du.

Honela laburtzen du Amaia Albesek bere esperientzia: "Gogorra da. Ideia bat duen jendea animatu dadila, baina ordu piloa sartu behar dira, lan mordoa egin... Baina ni pozik nago, honaino ailegatu naizelako eta, pixkana-pixkana, aurrera noala ikusten dudalako".

IBAN ETA GORKA
ORTUZABALA (NEKAZARIAK)

"Kontsumo taldea inguruan izateak ematen digu indarra"

Iban Telleria gazte oñatiarra betidanik erakartzen zuen baserriak, nahiz eta bera kaletarra izan. 2010eko udan, jendeak animatuta, "lurretik bizi izateko ideia planteatu" zion serio bere buruari. "Hori bai izan zela zerotik hasia: ez nuen lanabesik ez makinarik, eta hau bakarrik zelai bat zen", diosku Murgia auzoan gaur egun ortua daukan lursailean. Zerotik batera pasatzeko gastu guztiak poltsikotik eta gurasoek lagunduta ordaindu zituen Ibanek.

Laguntza handiena Oñatiko Udalak eman zion: azokan postua ipintzearen dirulaguntza ematen diote, adibidez, eta "ahal duten denean" laguntzen jarraitzen du Udalak. Bestalde, Arrasateko baserri batzuek traktorea utzi zioten; Oñatiko batzuek, negutegia; eta Murgiako lursaila "oso baldintza onetan, 15 urterako eta ia ezeren truke" alokatu diote jabeek.

Bultzada handiena, ordea, bere ekoizpenaren inguruan kontsumo-taldea sortu izanak eman dio. Joan den maiatzetik Gorka Retegi



Iban Telleria, Oñatin, Murgian duten lursailean. | LEIRE KORTABARRIA



Lierni Olmedo eta Itsaso Mendez oñatiarrak. | LEIRE KORTABARRIA

bergararra du lankide eta proiektuan lagun. Hau diote: "Eredua aldatzen doa; jendeak, gero eta gehiago, bertako produktua eta kalitatezkoa eskatzen du, eta kontsumo taldeko jendea beti hor egotea guretako bermea da, eta horrek eman zigun indarra proiektu hau hasteko". Nekazariaren lanaren gaineko eredua ere aldatzen doala diote: "Ekoizpen txikiak eginda ere aurrera egin daiteke. Nekazaritzatik bizi izatea ez da ezinezkoa".

Kontsumo taldea handitu gura dute, eta honako kontaktu bideak dituzte: ortuzabala@gmail.com eta 677 68 33 03 telefonoa.

LIERNI ETA ITSASO ZENBAT (ADMINISTRATZAILEAK)

"Ideia bideragarria den edo ez jakiteko laguntza ere badago"

Lierni Olmedo eta Itsaso Mendez oñatiarren kasuan, behar pertsonal batetik etorri zen enpresaren ideia. Liernik kontatzen digu: "Nire behebarruan igogailua ipintzen hasi ginen, eta bururatu zitzaidan kudeaketa-lan horiek egitera dedikatzen zen norbait beharko zela. Gero, lanik gabe geratu nintzen; Itsaso egun erdiz

zebilen lanean, eta animatzea pentsatu genuen". Euren enpresa, Zenbat, ezagutarazteko, herriko postontzietan iragarkiak banatu zituzten. Pixkana-pixkana, bezeroak ailegatzen joan ziren.

Oñatiko Udaleko Enplegu Zerbitzura jo zuten; Mankomunitatera eta Eusko Jaurlaritzara ere bai. Euren negozioak ez zuen inbertsio handien beharrik, baina hasteko behar zuten lokala Udalak utzi zien, diru kopuru batez gain. Orain, errentan hartuta dute beste lokal bat. Eusko Jaurlaritzatik, administratiboki martxan jartzeko dirulaguntzak ere jaso zituzten, baina horretara

rako ikastaro bat egin behar izan zuten.

Behebarruetako, bizilagunen komunitateetako administrazioa egiten dute; gauza berria zen eurenentzako. "Gipuzkoako administratzaileen kolegioan alta hartu genuen eta gauza batzuk argitu zituzten. Dena dela, eginez ikasi dugu", esaten dute.

Enpresa-idea bat dutenei, duda barik, "animatzeko" esaten diote, baina ideia ere bistaz galdu gabe. "Ideia bideragarria den edo ez jakiteko ere laguntzak badaude", esaten dute. Azken baten, aurrera egiteko; "izan ere, azkenean norberaren amets bat da".

Bailarako bi erakunderen laguntzak

Mankomunitateko Garapen Agentziak euren enpresa sortu nahi dutenenentzako eta autonomoentzako ekintza batzuk egingo ditu laster. Publiko guztiarentzako, autonomo izatearen gaineko jardunaldiak emango ditu; eta dagoeneko enpresa muntatu duten edo muntatzeko gertu daudenentzako, tailer espezifikokoak. Gainera, 30 proiektuentzako laguntza zehatzak emango ditu.

Saiolanek lau laguntza programa ditu martxan: Ekintzaile-Txekintek SPRIK eta Foru Aldundiak ematen dute eta enpresa martxan jarri arteko dirulaguntzak eta aholkularitza ematen dute, 60.000 euro arte. SPRIKren eskutik ere, Ekintzailearen 2. faseko programak enpresa plana egiteko laguntza ematen du, 180.000 euro arteko maileguarekin. Bestetik, Connect eta Miniconnect programek enpresa berritzaileei laguntzen diete. Argibide gehiago dago www.saiolan.com webgunean.



leku eta egun ahaztezinak



Etxe-Aundi

Hotela - Jatetxea *

Torre Auzo, 9 • 20560 OÑATI

Tel.: 943 78 19 56 • Fax.: 943 78 32 90

etxeaundi@etxeaundi.com • www.etxeaundi.com



Ezkontzetan espezializatuta dagoen jatetxea



Egun ahaztezina izateko osagai guztiak eskaintzen dituen XIII-XIV. mendeko jauregi ikusgarria.

- Lorategiak
- Parking handia
- Ezkonberrien zerbitzura egongo den lantalde zabala
- 220 gonbidaturentzako tokia
- Zure ezkontza eguneko koktela eta dantzaldia egiteko terraza zabala eta egokia. Bertan ezkontza zibilak ospatzeko leku aproposa.
- Gastronomía zaindua eta aukera zabalekoa...

Etxe-Aundiren zilarrezko ezteiak ospatzen ditugula-eta, 2013an ezkontza-bazkaria gurean egiten duten bikote guztiek Tenerifera astebeterako eta mantenu osoan joateko egingo dugun zozketan parte hartuko dute.



Euskaltzale uholdeak hartu zuen Baiona atzo Korrikaren amaiera festan. | AITZIBER ARANBURUZABALA

Agurrik ez, hurrengora arte esan zioten Korrikari Baionan

Atzo amaitu zen Korrika 18, hamar egunez Euskal Herria zeharkatu ondoren

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Andoainetik Baionako karriketara; 10 egun eta 2.587 kilometro. Atzo iritsi zen euskararen aldeko lasterketa erraldoia bere helmugara, eta euskaltzale asko batu ziren edizio honetan azkeneko euskara elkarri emateko.

Eguraldia euskaltzaleen alde ipini zen. Jendetzaren artean, debagoiendar asko, Oskar Elizburuk aipatu bezala: "Bi autobus joan gara ibarretik". Kontseiluko presidentek ere egin zuen korrika Baionan: "Zirraragarria izan da, ez genuen espero horrenbeste jendek bat egingo zuenik Baionako jaiarekin".

Lekuko barruko mezua

AEK-ko ordezkariak eraman zuten azken kilometroan lekukoak; Amets Arzallus izan zuten alboan. Arra-



Debagoiendarrak Baionan. | AITZIBER ARANBURUZABALA

zoia, Euskal Herri osotik eskuz esku igaro den lekukoaren barruan zegoen mezua berak idatzi zuela. Aurten Korrikak euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren pertsona guztiak omendu gura izan ditu eta bestela ezin zitekeen bezala, Arzallusen mezuak ere horixe

jasotzen zuen: "Ikasten ari denak ematen dio irakasten ari denari zentzua. Irakasten ari denak ematen dio hiztun zaharrari norabide berri bat. Hiztun zaharrak eman behar dio ikasten ari denari eskua. Denok eman behar dio elkarri euskara".

Ehunka erromesek hartu zuten zapatuan Arantzazurako bidea

Z.V.D.M. | OÑATI

Soraluze hoteletik ehunka fededun irten ziren Arantzazuko santutegirantz *Zorionekoa zu, sinetsi duzulako* lelopean; eta ibilaldia gidatzen, Munilla gotzaina joan zen.

Arantzazu eta Urbiara

Arantzazun gaua eginda, bertatik jaitsi zen Jose Ignacio Munilla ibilaldian parte hartu behar zutenengana, eta denak batera hasi ziren Arantzazurainoko bidea egiten.

Emakume eta gizonezkoak, heldu zein gazteak. Ehunka pertsona animatu ziren zapatuko ibilaldira. Debagoiendarrez gainera, besteen artean, Donostiatik, Azpeititik, Iurretatik

edota Zarauztik bertaratu zirenek, antolatzaileek autoetan egokitutako bozgorailuetatik entzuten ziren kantu eta otoitzak jarraitu zituzten.

"Otoitzaldia eginda zerbait berezia sentitzen dut". Hala adierazi zuen Begoña azpeitiarrak, eta Etxaniz urrestillarrak berriz: "Bakearen aldeko ekimena izanda, eta gauzak lehen baino hobeto egon arren, oraindik zer egin badagoela esango nuke".

Santutegian meza entzun ostean, gehienek etxerako bidea hartu zuten arren, beste talde batek Urbiarako bidea hartu zuen, tartean Munillak berak. Helmugara iritsita, eukaristia ospatu zuten.



Munilla gotzaina, lehen lerroan, parte-hartzaileekin. | Z.V.D.M.

Gogoetatik ekintzetara igarotzeko prest da Euskaltzaleon Topagunea

Z.V.D.M. | ARRASATE

Topaguneak Batzar Nagusia egin zuen zapatuan Durangon. Bertan, izena aldatu zioten euskara elkarten federazioari; aurrerantzean, Euskaltzaleon Topagunea deituko da Euskal Herriko euskaltzaleak batzen dituen mugimendua.

Gogoetatik ekintzetara

Mugimenduak bere jardueraren muinean jarri du "euskaltzaleak aktibitatea eta gizarte mugimenduan antolatzeke eginkizuna". Aurkeztutako Kudeaketa Planaren arabera, "kohesioan, transmisioan, gizarte eraginean

eta motibazioaren lanketan" du jomuga.

Iaz Topaguneak kongresua egin zuen Bilbon, *Federazioetik Mugimendura* izenburupean. Mikel Irizar presidentek gogorarazi zuen "gogoeta garaia itxi eta ekintzetan sakontzeko garaia iri ekitea" ekarri zuela.

Jasone Mendizabal Topaguneko zuzendariak 2013ko erronka nagusietariko bat sare indartsua sortzea dela adierazi zuen: "Gure xede nagusia indarrak batzea da, eta urte amaierarako mugimendu bateratu bat gara eta sare bezala funtzionatzen dugula erakutsi gura dugu".

Presoen alde bigarren eskuko arropa

Presoen aldeko bigarren eskuko azoka egin dute asteburuan Arrasaten. Herritarrek emandakoak erosteko aukera egon da bi egunetan zehar. Bufandak, frakak, gonak, txamarrak eta oinetakoak... Denetarik egon da aukeran eta kuxkuxean aritu ondoren, askok aprobetxatu dute euren armairuan zerbait berria sartzeko.



Z.V.D.M.

GOIENA RENT

AUTO ETA FURGONETEN ALOKAIURUA

- ✓ Lantokira nahiz etxeko atarira eramango dizugu ibilgailua DOAN
- ✓ Ibilgailuen flota zabala preziorik onenetan
- ✓ Enpresa nahiz partikularrentzako zerbitzua
- ✓ Aireportuko zerbitzua

20€-tik eguneko



INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK

943 71 66 52 / 619 44 71 75

goienarent@goienarent.com

WWW.GOIENARENT.COM

Esker on ekitaldia Maiatz sortzen lagundu zutenentzat

Egitasmoa sortzeko mailegua ordaintzen amaituta, eskerrak eman dizkiete posible egin dutenei

AMAI TXINTXURRETA | BERGARA

Hotzeko estanzazioaren inguruan sortutako formazioa da Maiatz, eta hori aurrera ateratzeko eskatutako mailegua ordaintzen amaitu zuten urtarrilean hainbat enpresak.

Hori eskertzeko ekitaldia egin zuten egubakoitzean Miguel Altuna Institutuan. Jende ugari hartu zuen parte ekitaldian, tartean Iñaki Larrañaga institutuko zuzendariak, Xabier Retegi MUko errektore ohiak, alkateak, proiektuan parte hartu duten enpresa, administrazio eta erakundeetako ordezkariak.



Egubakoitzeko esker on ekitaldia. | A.T.

Beharrak asetzeko sortua

Bergarako Miguel Altuna institutuan sortu zen 2005ean Maiatz, inguruko hotzeko estanzazioko enpresek dauzkaten beharrak asetzeko, eta hainbat ekintza eta jardura eramaten dituzte aurrera: graduondokoa lanbide heziketako tituludunentzat, langileendako ikastaroak eta enpresetarako beste zerbitzu batzuk.

Tailer eta laborategietako makineria jartzeko diru beharra zutela eta, milioi bat euro inguruko aurrekontua aurreikusituz: 300.000 euro lortu zituzten Lanbide Heziketako sailburuordetzatik eta beste 100.000 euro, Kutxatik. Mailegu bat ere eskatu behar izan zuten, enpresek ordaintzeko konpromisoarekin aurrera eramandakoa, eta urtarrilean

diru hori ordaintzen bukatu zuten.

Hasierako helburuak lortu dituztela azaldu zuen egubakoitzeko esker on ekitaldian Iñaki Larrañagak, Miguel Altuna institutuko zuzendariak. Dagoeneko lau promozio izan dituzte, 12 ikasle promozio bakoitzean, eta %80 sektoreko enpresetan lanean ari dira.

Tenporen arabera, udaberria 'baketsu' samarra izango da

Bederatzi aste politak espero ditugu, Pello Zabalen esanetan, eta hiru eta erdi gogorak

ENEKO AZKARATE | DEBAGOIENA

Negu fresko eta euritsuari amaiera eman eta udaberria heldu zen martxoaren 20an. 92 egun eta 18 ordu iraungo du udaberriak aurten eta ekainaren 21ean bukatuko da, udaren etorrerarekin. Pello Zabalak eguraldi egonkor eta on samarra iragarri du, baina koskak ere izango direla dio.

"Bederatzi aste politak, *baketsuak*, eta beste hiru eta erdi gogoragoak izango ditugu udaberrian".

Aste Santuko ilargi berriak elurra ekar lezakeela ere badiu Zabalak. Martxoaren 27an ez bada ere, hurrengo bost egunen barruan hotzaldia espero du Zabalak.

Ordu aldaketa

Martxoaren 31n aldatuko da ordua aurten, Aste Santuko domekan, hain justu ere. Orduetik aurrera, eguzki orduak gehiago izango dira eta epelagoak izango dira, horrenbestez, egunak.

Negu umela

Negu bustia izan da aurtengoa. Izan ere, euri asko egin du eta egun busti asko izan ditugu. Ez da negurik hotzena izan, baina bai freskoa: txingorra eta elurra ere izan ditugu, otsail eta martxoan, batik bat.

Zabalen esanetan, otsailaren 16a izan zen euritsuena, "60 litro gora bota zuen". Eta metro koadroko 30 litroko egunak ere asko izan direla dio.

Tenporak ondo

Orain dela ia hilabete izan dira aurten tenporak. Eta elurretan igaro genituen otsaileko egun haiek. "Baina haizeari begiratu behar zaio, eta apenas ibili zen haizerik. Haize hotza bai, Siberiatik zetorrena, baina, iparretik pasa bazen ere, ekialdeko haize suabe samarra heldu zen hona. Egonkorra. Ez beroa, ez eta hotzetakoa ere".

Hortaz, "baketsu samarra" izango dugu aurten udaberria, Pello Zabalen esanetan, haizeari begiratu gero. Hala ere, koskak izango dituela ere onartzen du, ez dela hiru hilabeteetan egonkorra izango: "Tarteka, ostikoak etorriko dira". Laburbiltzeko, zera dio Zabalak:

Carrefour
GORBEIA



60 € baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz



Apirilaren 15era arte

Oparia

10eko

Deskontua erregaietan

Trukagarria AVIA zerbitzugune hauetan:

- Arrasate
- Gasteiz: Foronda, Urartea kalea - 23 (Albarra izkina) eta Zurbano.

Doan
Autobideko bidesaria

Joan-etorria

Autobideak:

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabarri Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube)

- Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.



ETEEK 650.000 euro arteko maileguak eska ditzakete

Bestetik, Gipuzkoako ETEek atzerrira zabaltzeko laguntzak jaso ditzakete

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Eusko Jaurlaritzak 300.000.000 euro ipini ditu Enpresa Txiki eta Ertainak eta Autonomoak Finantzatzeko Fondoan, eta horrekin, sortuta geratzen da Iñigo Urkullu lehendakariak hilaren 15eko kontroleko osoko bilkuran iragarri zuen diru-poltsa. Hasierako kapital horrekin, enpresa txiki eta ertainek 50.000 eta 650.000 euro arteko maileguak eskatu ahal izango dituzte Jaurlaritzarekin maileguok emateko hitzarmena egiten duten finantza-entitate eta berme-sozietateetan. Autonomoen artean banatzeko izango dira 20 milioi, 10.000 eta 100.000 euro arteko maileguetan. Josu Erkorrika bozeramaileak eta Ricardo Gatzagaetxeberria Ogasun sailburuak eman zuten horren guztiaren berri martitzenean.

Hiru, bost edo zazpi urteko epea eta %4,80ko interesa izango dute maileguk. %4,80 horri euriborra gehi %3,5, eta finantza-erakundearen komisioari dagokion %0,75a gehitu behar zaizkio.

Europako Batasunak agintzen duenari kasu eginez, krisian dauden enpresek ezin izango dituzte laguntza horiek jaso.

Finantzazio fondo horrek beste 300.000.000 jaso beharko ditu, Urkulluk iragarri zuen diru-kopurua beteko bada. Lehendakariak esan zuenez, diru guztia bankuetatik eta elkarrekiko berme-sozietateetatik etorriko da.

Elkargik, 251 milioi abaletan Fondo berri hori finantzazioa jasotzeko zailtasunak dituzten enpresa eta autonomoendako propio sortutakoa da. Izan ere,

krisia luzatzen doan neurrian, Gipuzkoako enpresek gero eta zailagoa dute hazteko dirua maileguan lortzea. Hala, elkarrekiko Elkargi berme-sozietateak 251 milioi eurotan abalak eman zituen 1.263 enpresentzako 2012ko lehenengo bederatzik hilabeteetan, aurreko urteko epe berean baino %28 gehiago. Ohartarazi zuen, gainera, "ahultasun ekonomikoak" jarraitzeak "enpresen sendotasunari sakonki eragin" zuela eta, "krisialdi sakoneko lau urte baino gehiagoren ostean, enpresen ondasun orekak eta erresistentziarako ahalmenak modu oso nabarian okerrera" egin zutela. Batetik, enpresek kreditua lortzeko zailtasunak eta arriskutik ihes egin nahi izatea eta, bestetik, finantza-kostuak etengabe handitzen ibiltzea,

DATUAK

%4,8

INTERESETAN

Horri euriborra gehi %3,5 eta %0,75eko komisioa gehitu behar zaizkio.

%37

ENPRESA GIPUZKOAN

laz, enpresetatik %37k arazoak izan zituzten zirkulatzailea finantzatzeko.

keen kapitala eta baliabideak finantzatzeko gero eta diru gutxiago izan zuten 2012an, eta enpresen %30ek, inbertsioak finantzatzeko.

Adegik ohartarazi zuenez, egoera horretan egonda, I+B+g kapitularako gero eta diru gutxiago ipintzen joan dira Gipuzkoako enpresak. "Joera hori areagotu egin daiteke aurten", esan zuen patronalak. Iaz, Gipuzkoako enpresen kezka handienetariko bat zen, hain zuzen, bankuetatik maileguak lortzeko zailtasunak.

Foru Aldundiak, 775.000 euro Bestalde, Diputatuen Kontseiluak enpresa txiki eta ertainendako 775.000 euroko dirulaguntzak arautzen dituzten bi dekretu onartu zituen joan den martitzenean. Dekretuetako bat atzerrian produktuak merkaturatzeko programa da. Gipuzkoako enpresek ekoizten dituzten produktuak merkatu berrietara ailegatu daitezke lortzeko 400.000 euroko laguntzak izango dira banatzeko. Beste dekretuaren bidez, 375.000 euro banatuko ditu enpresa txiki eta ertainen artean, Europako Batasunetik kanpoko herrietan lantegiak irekitzen laguntzeko.

bi faktore horiek eragiten dute gaur egungo egoera.

Gipuzkoako enpresaburuen elkarteak, Adegik, ere antzeko ondorioak batu zituen urtarrilean aurkeztu zuen Gipuzkoako enpresen aurtengo diagnostikoan. Adegiren datuen arabera, Gipuzkoako enpresetatik %37k kapital zirkulatzailea, hau da, lanerako erabiltzen duen edo erabil dez-

Leire Ibabe | MCC Telecom-eko finantza zuzendaria

"Oraingo astean 1.000 tona hondakin elektronikoa bildu ditugu, eta datu ona da"

Hondakin elektriko eta elektronikoa kontrolatzeko proiektuan dago MCC-Telecom

L.K. | ARETXABAETA

Hondakin elektriko eta elektronikoa kontrolatzeko proiektua da Weee-Trace, eta MCC Telecom hura lideratzen dabil.

Zertan datza Weee-Trace?

Hondakin elektriko eta elektronikoen fluxua kontrolatzeko ahalbidea ematen digu, sortzen den momentutik birziklatze fase-raino, eta behar bezala tratatzen dela ziurtatuz. MCC Telecomen parte hartzen du bere soluzio teknologikoekin. Beste alde batetik, irabazi asmo bako Ecolec fundazioa dago, aparailuaren fabrikatzaileek sortutakoa. Fagor Etxetresna Elektrikoak kooperatiba elkarteak eta Emaus eta Eointegra erakunde sozialek ere parte hartzen dute.

Halako zenbat hondakin produzitzen ditugu?

Ez ditugu zifra zehatzak. Espainiar batek, urtean, 14 eta 18 kilo artean sor ditzake. 40.000 tona Euskadin sortzen dira.

Ze arazo sortzen dute hondakin horiek?

Lehengai eta material batzuk berreskuratu daitezke eta berreskuratu egin behar dira, baina substantzia arriskutsuak ere botatzen dituzte, ingurumenerako kaltegarriak: gasak, karbono dioxidoak, merkurioa... Bestalde, Espainian, hondakin



Leire Ibabe. | L.K.

%70 kontroletik kanpo geratzen dira. Lehengai horiek lortzen dituztenek beste substantzia toxiko horiek bere horretan uzten dituzte. Hondakinek 3. munduko herrialdetan bukatzen dute, tratamendu egokirik gabe.

Weee-Trace martxan dago. Non eta ze emaitzarekin?

Joan den uda ostean, Euskadin eta Nafarroan hasi zen fase pilotua, eta gero gauzatze fasera pasatu ginen, beste herri batzuetara pasatuz. Aste honetan 1.000 bat tona hondakin bildu dira eta kontrolatutako instalazioetara heldu dira. Hori oso datu interesgarria da. 2013 urtea bukatzen denerako espero da sistema hori Espainia osora eroatea.

JMA eta Assa Abloy-TESA, sarituak Ferroforman

L.K. | ARRASATE

Assa Abloy-TESA eta JMA enpresek sariak irabazi dituzte hilaren 12aren eta 15aren artean egin den aurtengo Ferroforma azokan.

Arrasateko JMA enpresak bi sari ekarri ditu: batetik, Ferroformako erakusketa-postu onena gisa aukeratu zuten arduradunek. Beste 10 bat enpresa ere aurkeztu ziren lehiaketa horretara. Sari horri esker, Ferroforman berriz parte hartuz gero, %10eko beherapena izango du JMAk bere postua ipintzeko.

Eskoriatzako Assa Abloy-TESA Berrikuntza Saria irabazi zuen, beste lau enpresarekin konpartituta.

Azkenik, 20 Urteurren sariak eman zituen Ferroformak, azokaren 20 edizioetan, denetan izan diren enpresei eskerrak emateko. JMA (Alejandro Altuna) eta Assa Abloy-TESA izan ziren sarituen artean. Beste 18 enpresa ere sari horrekin eskertu zituzten antolatzaileek.

Bi pabilioitan

Burdinagintza eta sarrailagintza sektoreetako Ferroforma azokaren 20. edizioan, 362 enpresak ipini dute postua. BECeko bi pabilioitan egin dute azoka, eta krisia igarri da, izan ere, beste urte batzuetan, lau pabilioi ere behar izan dituzte.



Debagoieneko hiru saridun. | MANKOMUNITATEKO TURISMO SAILA

Turismo arloko bailarako 18 enpresa saritu dituzte

Etxe Aundi Hotelak Kalitatearen 'Q' ziurtagiria ere jaso zuen; jatetxeak lehendik bazeukan

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Turismo arloko enpresei ziurtagiriak banatu zizkieten joan den astelehenean, Barakaldoko BECen. Hain zuzen ere, 375 diploma eman zituen Eusko Jaurlaritzak, horietariko 18 Debagoieneko enpresei.

Hiru ziurtagiri mota banatu zituzten Barakaldon. Debagoieneko enpresek Turismo-kalitateko Jardunbide Egokien Programaren eta Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien erabilera Jardunbide Programaren barruan eskuratu zituzten diplomak. Arantza Tapia sailburuak banatu zituen ziurtagiriak.

Oñatiko Etxe Aundi Hotelak Kalitatearen Q ziurtagiria ere jaso zuen eta ugazabak hitzalditoxoa egin zuen hantxe bertan.

Seik, konpromiso ziurtagiria

Debagoieneko sei enpresa hauek jaso zuten kalitate turistikoarekin konpromisoa adierazten duen ziurtagiria: Basque Adventure, Santa Ana Hotela, Gaztainuzketa Mendi-Etxeak, Gorosarri apartamentuak, Hamalau Jatetxea eta Maialde Hotela; eta IKT ziurtagiria, beste hamabi enpresa hauek: Arantzazu Parketxea, Arrikruz Kobak, Etxe Aundi Jatetxea, Soraluze Hotela, Goiko Benta Jatetxea, Debagoieneko Turismo Informazio eta Interpretazio Zentroa, Oñatiko Garapen eta Turismo Agentzia, Oñatiko Turismo Bulegoa, Bergarako Turismo Bulegoa, Gorosarri Apartamentuak, Santa Ana hotela eta Hilarion Jatetxea.

Javier Marcos | Mondragon korporazioko komunikazio arduraduna

"Meritua dauka Mondragon korporazioaren balioak kapitalismoaren hiriburuan saritzeak"

- ▶ Mondragon korporazioa munduko enpresa onenen artean saritu dute Londresen
- ▶ "Gure balioak eta enpresa egiteko modu berezitua nabarmendu dituzte"

ENKO AZKARATE | ARRASATE

Boldness in Business saria eskuratu du Mondragon Korporazioak, *Drivers of change* kategorian (aldaketaren bultzatzaileak). Garrantzi handiko saria da hori. Izan ere, munduko 260 enpresa aurkeztu dira sariketara, guztiak ere *Financial Times*-ek (FT) eta Arcelor Mittalek (AM), sariketa-aren antolatzaileek, elkarrekin antolatutako sariko epaimahaiak izendatuta. Eta saria eskuratu duten sei enpresen artean dago Mondragon. Javier Marcos korporazioko komunikazio arduradunak eman dizkigu azalpen gehiago.

Mundu mailako saria irabazi du Mondragon Taldeak. Garrantzi handikoa, inondik ere.

Oso garrantzitsua da. Ikusi besterik ez dago alde aurretik saria irabazi dutenak zeintzuk diren: Google, Apple, Amazon, Fiat... Bestetik, saria eman duenak, *Financial Times*-ek esaterako, prestigio handia du. Non eta Londresen, gainera! Finantzen munduaren erdigunean, hiriburuan, *city*-an. Mondragon korporazioaren balioak kapitalismoaren hiriburuan saritzeak badauka meritu handia...

Izan ere, kooperatiben balioak kapitalismoaren ezberdinak dira...

Bai, eta uste dut, hain justu ere, horregatik eman digutela saria. Negozio ereduaren beste proposamen bat egiten dugulako, non pertsona den erdigunea.

Josu Ugarte Nazioarteko Eragiketako zuzendariak jaso zuen saria eguaztenez eta aipatu du mundu "hobe, justu, solidario eta bidezkoagoa" egiten jarraitzeko laguntza ematen dizuela sari honek. Hala da?

Uste dut baietz. Mondragon konparatzen badugu munduko beste multinazional batzuekin, konturatu gara balio oso bestelakoak ditugula eta gure kudeaketa eredu ezberdina dela. Gure enpresetako buruen soldatak ez dira horren handiak; irabazten duguna modu bidezkoagoan banatzen dugu denon artean... Hori ez da gertatzen beste multinazional batzuetan. Bestalde, gure ingurunearekin daukagun konpromisoa ere handiagoa da.

Bada, zer nabarmendu dute antolatzaileek Mondragoni sari hori emateko?

Fiat, Amazon, Google eta Apple berritzaileak edo ausartak izatearren izan dira sarituak. Gure kasuan, nabarmendu dute gure enpresa egiteko modu berezitua, ezberdina.



Javier Marcos, Mondragon korporazioko Arrasateko egoitzan. | ENKO AZKARATE

Azkenaldian, mundu mailako hainbat hedabidetan-eta, eredu moduan jarri dute Mondragon taldea, bereziki, krisi koiuntural honetan. Zergatik eredugarri?

Mendebaldeko herrialdeak krisian daude: Europa, Ameriketako Estatu Batuak... Eta eredu berriak ari

"Berrikuntzarako ditugun dohainak azpimarratu dituzte"

"Langileek enpresarekiko duten konpromisoa ere azpimarratu dute"

dira topatu nahian. Testuinguru horretan, jakin-minez jarraitzen da Mondragoeko eredu. Bestalde, esan behar da kooperatibek, oro har, munduan ez daukatela fama oso onik. Nekazaritzako edo lehen sektoreko enpresekin lotzen dituzte; gobernu kanpoko erakundekin ere bai... Aldiz, hona etorri eta hemengo enpresak ezagutzen dituztenean, harrituta geratzen dira. Gure indarrak batu eta munduan lehiatzeko eta berrikuntzarako izan ditugun dohainak azpimarratzen dituzte.

Eta langileen konpromisoa? Distira berezi bat ikusten dute hemen. Jendeak enpresarekiko daukan lotura, konpromisoa... Eta, hori, enpresan ez ezik, herrian ere ikusten dute.

Kanpotik datozen aitorten berba edo sariak zenbateraino dira garrantzitsuak? Oso inportanteak dira guretako. Begira, gu, oro har, oso kritikoa gara gure jardunarekiko, gure

lanarekiko... Zail egiten zaigu ondo egindakoak aitortzea, nabarmentzea... Horregatik, aitorten kanpotik datozenen, indar handia ematen digu.

Hori inportantea da mundu mailan geroago eta gehiago saltzen duen Mondragon bezalako enpresa taldearendako?

"Geroago eta gehiago gara munduko enpresa bat"

"Nazioartekotze politika multi-lokalizazioan oinarritu dugu"

Bai. Gu ez gara, ja, horrenbeste Debagoieneko enpresa bat, edo euskal enpresa bat. Munduko enpresa bat gara. Kanpoan ia 14.000 langile ditugu, 100 produkzio lantoki, industria parkeak Txinan eta Indian... Munduan kokatuta gaudela. Eta munduan badaude beste kultura eta mundua ikusteko modu batzuk. Gurea ezohikoa da.

Azken urteotako dilema: geroago eta presentzia handiagoa munduan eta geroago eta txikiagoa hemen, baina kanpoan kooperatibarik ez.

Gure nazioartekotze politika multi-lokalizazioan oinarrituta dago, eta ez deslokalizazioan. Produkzio zentroak ez ditugu hemendik beste herrialde batzuetara eroan; munduan beste zentro batzuk sortu ditugu. Horrek sortzen du negozioa hemengo fabriketan ere: Copreci, Fagor Industrial, Fagor Etxetresnak... Jarduerak, enpleguak, irabaziek eta salmentek gora egin dute nazioartekotze estrategia horrekin. Orain, egia da: gure kanpoko filialak elkarte anonimoak eta hemengoak kooperatibak izateak arduratu egiten gaitu. Baina arrazoi ezberdinak tarteko, izan kulturalak, legedia aldekoak edota langileek eurek nahi ez dutelako, ezin ditugu kanpoko filial horiek egun batetik bestera kooperatiba bihurtu.

Ze egoeratan dago Fagor taldea une zail hauetan?

Etxegintzaren merkatua, kontsumoa, oro har, asko jaitsi da Espainian azkeneko bost urteotan. Gaur egun saltzen dira duela bost urte saltzen ziren etxetresna elektrikoaren erdia. Egoera objektibo horren aurrean oso zaila da erabakiak hartzea eta Fagorreko langileek hartu dituzte. Azkena, plan estrategikoa: berregitea, aliantzak bultzatzea, finantzazio modu berriak topatzea... Egoera horretan gaudela. Datozen hilabeteotan argituko dira kontuak. Edozelan ere, beste behin, agerian geratu dira ezberdin egiten gaituzten balioak: elkartasuna...

Mondragon korporazioa %5 eta %7 artean haziko da hazkunde handiko munduko herrialdeetan, Txinan, Indian, Brasilen...

2013a urte gogorra izango da eta austeritatean segitzea tokatuko zaigu. Espainian, %1,4eko atzeraldia espero da. Hortaz, kanpoko merkatuari esker haziko da taldea. Erreminta makinak, berrikuntzan aurreratuta daudenak, kanpoan saltzen dutenak..., sektore horiek ibiliko dira ondo; barruko kontsumoari lotutakoak, oster, sufritu egingo dute.

ZABALIK

IBANE ABASOLO
http://goiena.net/iritzia/



Udaberria

Ezagunak dira neguan, energia mantentzeko, lo sakon egoeran sartzen diren animaliak. Zoologoek hibernazioa, estibazioa, eguneko lozorroa eta "neguko loadia" bereizten dituzte, baina ez naiz horretan geldituko oraingoan. Esan, hamsterrak, saguzarrak edo hartzak, beste batzuen artean, beraien metabolismoa jaisten dutela lozorro egoeran sartu arte. Bihotz taupaden erritmoa eta gorputz temperatura jaitsiaz animalia hauek negu hotzak jasateko gai dira, ia janaririk gabe.

Gizakien artean ere, hibernazio antzeko prozesuak eragiteko moduak badira. Bihotz ebakuntza batzuetan, adibidez, pazientearen temperatura 15 gradura arte jaisten da. Temperatura horretan, metabolismoa apaldu egiten da eta zirujauak 30-40 minutu eman ditzakete ebakuntza egiten garunean arazorik sortzeko arriskurik gabe.

Zientzialariek badihardute lanean, gorputzak hibernatzen igarotzen duen denbora luzatu nahian. Baina, nire ustez, kontrako prozesua, hau da, lozorro edo hibernaziotik irteteko zer behar den ezagutzea askoz interesgarriagoa da.

Lehenago aipatutako ugaztunetan, adibidez, inguruko tenperaturak igotzen hasten direnean, animaliek, lozorrotik esnatu, eta beraien gorputz temperatura ere gorantz bultzatzen dute, batez ere mugimenduarekin. Dar-dar egiten dute.

Eta nik ere horrelako zerbitu sentitzen dut udaberria datoren bakoitzean. Mugitzeko beharra daukat. Gainera atera behar ditut neguan zehar bildutako amaraun eta istorio beltz guztiak. Agur neguko iluntasunari eta betor aire fresko, garbi eta berria. Udaberri arabiarren lez, nik ere nire udaberria nahi dut. Baina ez iraultza politikoa bultzatzeko, iraultza pertsonala bultzatzeko baino.

Lozorrotik esnatu eta energiak, positibotasunez hasteko datorren udaberri berria.

"Gainera atera behar ditut neguan zehar bildutako istorio beltzak"

USTEAK USTE

MONIKA BELASTEGI | mbelastegi@goiena.com

Eman euskara elkarri

Euskara bizi da eta korrika dabil. Pausoz pauso Euskal Herri osoko milaka lagun euskararen alde batzen gaituen hitzordua. Kilometroaz kilometro euskara oso bizirik dagoela erakusten ari da 18. edizioan ere, eta, egoera normalizatzeko kilometroak falta zaizkigun arren, esparru guztietara korrika sartzeko desiratzen dagoela ere ozen esaten ari da. Lekukoa esku batetik bestera bezala, euskaldunok elkarri eman beharko diogu euskara, sasoiu mantendu nahi dadin. Guztion parte-hartzea ezinbestekoa da eta Korrika moduko ekintza dinamikoaren bidetik euskarak aurrera egingo du. Beraz, garbi dago: *Eman eskua elkarri*, eta aurrera!

KALE INKESTA

Oporrak gertu daude; krisia dela eta, oporretara joateko ohiturak aldatu dituzu?



AINHOA LARRAÑAGA
BERGARA

Zorionez, ez. Bigarren eskuko autokarabana erosi genuen gurasoekin batera. Egindako inbertsioak gogor jarraitzen du.



AINHOA ETXABE
ARRASATE

Krisiari buruz asko ari da esaten. Ni hemen geratuko naiz, lan egin behar dudalako. Edozelan ere, Arrasaten ez da inor geratzen.



MAITE BADILLO
ARRASATE

Ba, ez; familia eta lana edukita, eta nahiz eta denera ez heldu, ez ditugu aldatu. Errutina bera jarraitzen dugu, pixka bat irten eta listo.



RAIMUNDO RIO
ARRASATE

Guk ez ditugu aldatu. Ohitura berak ditugu. Opor garaian alde egiten dugu, betiere, konpentsazioaren arabera, hori bai.

HANDIK ETA HEMENDIK

Armagintza, mugatik urruti hobe

Luis Aranberri 'Amatiño'
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Geografiak eta mugaldeen eragin nabarmena dute industria estrategikoen garapenean. Debarroko zein Eibarko bertako historia aztertu besterik ez dago. Hirugarren Karlistaldiaren (1872-1876) ondoren, lau mendetan (1482) barrena Eibarren loratutako gerra-armagintzak espainiar gudarostearantz lan egiteari utzi behar izan zion.

Indonesiako Lion Air aire-konpainiak A320 motako 234 hegazkinen eskaria egin berri dio Airbus enpresari. Guztira 18.400 milioi euroko eskabidea. Hegazkintza zibileen sekula egin denik handiena.

Albiste ona Okzitaniarentzat zein Euskal Herriarentzat. Bai uste baino gehiago direlako Frantziako Tolosan lan egiten duten Iparraldeko euskaldunak (baxenabartarrek zein zuberotarrek zein euskaraz egina nago ni lantegian bertan), bai

Hegan euskal klusterreko hogeitaka enpresak jardun ohi dutelako Airbus-entzat.

Bitxia da gero Europako (eta munduko) hegazkin-lantegirik handienaren kokapena. Paristik 700 kilometrorra, Pirinioen magalean, industria-tradizio handirik gabeko Midi eskualdean.

Tolosako kokapena erabat estrategikoa bide da. Erabaki politiko hutsa.

Bi mundu-gerra jasan ostean, gobernu frantsesak erabaki omen zuen hegazkin-faktoria Belgikako eta Alemaniako mugetatik ahalik eta urrutien kokatzea.

Eta ez gero pentsa honelako erabakia erabat berria zenik. Geografiak eta mugaldeen betidanik izan dute eragin nabarmena industria estrategikoen eta armagintzaren garapenean.

Hain zuzen ere, gure Debarroan bertan, urrutiago joan beharrik gabe. Esaterako...

Konbentzio Gerran (1793-1795) armada frantsesa Gipuzkoan barrena arras erraz sartu, Sorluzeko Errege Arma Fabrika geldiarazi (756 armagin) eta Eibar birrindu ostean, espainiar gobernuak jabetu zen Debarroa uste

baino hurbilago zegoela Bidasoako mugatik eta Oviedon sortarazi zuen errege-lantegi berria, Sorluzekoaren kaltetan.

Ildo beretik, hirugarren Karlistaldiarekin (1872-1876) batera Estatuak sumatu zuen ez zitzaizela inondik ere komeni gerrako arma-industria indartzerik beti matxinatzeko gertu bide zegoen herrialdean eta, berriro ere Oviedoko lantegia sustatzeaz gainera, nahiago izan zuen armak atzerrian erostea, Debarrenako tailerrei lana ematea baino.

Erabaki pare honek ez zuen, hasieran behintzat, Debarroko arma-sektorea hondoratu baina bai, ordea, bezeroz aldarazi.

Hau da, XV. mendetik hasita lau gizalditan zehar Eibarraldean garatua zen gerratarako armagintzak espainiar gudarostearantz lan egiteari utzi behar izan zion eta merkatu zibilari begira jarri, XIX. mendetik aurrera guk geuk bertatik bertara ezagutu izan dugun eskopeta eta pistolagintza kasu.

Mugaldean, matxinatzeko erraztasunaz... industria estrategikorik bai ote? Ulertu nahi duenak uler dezala.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA

Lehendakaria Estepan Plazaola
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate

Erredaktore burua Ibane Madera

Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna
Julen Iriando
Maketazioa Kepa Martelo, Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetzea eta banaketa Marta Leturia
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPER
ARRASATE 20500:
Udalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetzea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetzea@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Bazkideentzat abantaila eksklusiboak



Eraman ezazu beti txartela aldean!

Hauek dira irabazleak!

Hauek dira MARTXOKO SARIDUNAK izan diren GOIENA KLUBeko bazkideen izenak:
ZORIONAK, GUZTIOI!

AISIA DEBA HOTELEAN**

2 pertsonarentzako gaua ostatuan, buffet-gosaria eta zirkuitu termala

- Esteban Garmendia Garitano (Bergara)
- Joxe Mari Lizarralde Zurutuza (Oñati)
- Larraitz Trojaola Berezibar (Arrasate)

2 pertsonarentzako relax gastronomikoa (bazkaria enkantuarekin eta spa zirkuitua)

- Juanita Agirrezabal Gauba (Osintxu)
- Itziar Axpe Altuna (Aramaio)
- Jesus Mari Artze Hernando (Arrasate)

ARRIKRUTZ KOBETARAKO SARRERAK*

(bina sarrera pertsonako)

- Ione Moñux Arantzeta (Bergara)
- Luis Azkarate Retolaza (Bergara)
- Mikel Sarasola Astigarraga (Arrasate)

BASERRISAREAKO OTARREAK**

- Amaia Murgiondo Aramendi (Aretxabaleta)
- Aitziber Askasibar Agirre (Elgeta)
- Igor Martinez Perez (Arrasate)
- Jose Luis Aizpurua (Bergara)

ROMEO ANTZEZLANERAKO SARRERAK

(bi sarrera)

- Ainhoa Urrutia Abarrategi (Arrasate)

KORRIKA PACK-AK**

- Gotzon Agirre Arregi (Arrasate)
- Bilaitz Marzan Usandizaga (Bergara)
- Ainhoa Osa Etxebarria (Arrasate)
- Jabier Loidi Larrañaga (Bergara)
- Anuska Elorza Altuna (Arrasate)
- Imanol Aginagalde Aranzabal (Aretxabaleta)

SARIAK JASOTZEKO

* **Arrikruzteko sarrerak.** Zuetako bakoitzak, GOIENA KLUBeko txartela erakutsita, BINA sarrera izango dituzue ARRIKRUTZ-eko txarteldegian. Sarrerak 3 hilabeteko epe muga izango dute.

ARRIKRUTZ KOBAK. Araotz Auzoa, OÑATI. 943 08 20 00
Orduetgia: Asteartetik Igandera 10:00 – 17:00

** **Beste sariak.** Saria jasotzeko pasa zaitzete mesedez, GOIENA Komunikazio Taldeak, Aretxabaletan duen bulegotik. Saria jasotzeko, BAZKIDEAREN TXARTELA erakutsi edota BAZKIDE ZENBAKIA jakitera eman beharko da.

GOIENA. Basabe poligonoa E-0-5 (Araba Ibilbidea) Aretxabaleta. 943 25 05 05
Orduetgia: Astelehenetik ostegunera: 09:00 – 18:00.

Ostiraletan: 08:00 – 14:00.

Martxoaren 28tik apirilaren 8ra bulegoa itxita egongo da.

DESKONTUAK: www.goienakluba.com



Beste abantaila batzuk:

- Astelehenetan eta ostiraletan *Goiena* papera buzoian.
- Deskontuak iragarki sailkatuetan eta eskeletan.



goienakluba
Abantailaz betetako klubak!

Urteko kuota: 50 €.
943 25 05 05
kluba@goiena.com
www.goienakluba.com

UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

Araceli Herran | Aralarko zinegotzia Aretxabaletan (2007-2011)

- ▶ Zinegotzi izan zen garaian zaharren egoitza eta kiroldegi berrien proiektuak egikaritu ziren
- ▶ Krisiak Kurtzebarri Eskola handitzea eta anbulatorio berria egitea eragotzi zuen
- ▶ Udalean egoteak gauzak diruditen baina zailagoak direla erakutsi diola aitortzen du

"Aralar sortu berria zen Udalean sartu ginenean eta hor egoteko gai ginela erakutsi behar genuen"

ZURIÑE V.D.M. | ARETXABALETA

Gasteiztarra den arren, badira 23 urte Araceli Herran Aretxabaletan bizi dela. Kirol eta Ongizate zinegotzia izan zen eta Udalean egin zuen denborak ekarri ditu gogora.

Zer del-eta sartu zinen Aretxabaletako Udal Gobernuan?

Egia esan, nahiz eta Aralarren egon, ez nuen pentsatzen Udal Gobernuan sartuko nintzenik. Azkenean, konbentzitu egin ninduten eta hirugarren joan nintzen zerrendan. Ez nuen espero irten-go nintzenik; izan ere, Aralar sortu berria zen eta hor egoteko gai ginela erakutsi behar genuen.

Hutsetik hasi ginen lanean, ez genuen barne funtzionamendua ezagutzen. Baina esperientzia baloratu behar izanez gero, oso positiboa izan zela esango nuke.

Gustura geratu zinen bizipenarekin, beraz.

Zalantza barik. Sekula egin ez nituen gauzetan esperientzia hartzeaz gainera, asko ikasi nuen. Bestalde, egin gura ez dituzun gauzak egitera behartzen zaitu hor egoteak; azken finean, herri osoaren zinegotzia zara. Eta horrek eguneroko bizitzarako ere balio izan dit. Beste hainbat gauza ere eman zizkidan esperientziak; jendea ezagutzeko aukera, tartean.

Udalaren funtzionamendua kanpotik kritikatzeko erraza da, baina barruan egoterakoan gauzak ez direla horren errazak ohartzen zara. Eskerrak eman behar zaizkie Udaleko sail ezberdinetako langileei; azken finean, haiek gorpuzten dute proiektua.



Herran, zaharren egoitza izandako eraikinaren aurrean. | ZVDM.

Ongizate zinegotzia izan zinen. Proiektu berezirik oroitzen duzu?

Bai; zaharren egoitzarena, hain zuzen ere. Proiektuaren hasierako urratsak eginak zeuden (egoi-

tzaren kokaleku berriko lurren azua, esaterako).

Baina Udalaren eta enpresaren arteko akordioak egin behar ziren. Eta aurreko egoitzako langile eta egoiliarak toki berrira igarotzea egokitu zen. Oso gogorra izan zen, bilera ugari, sarritan etxera eramaten nuen gaia eta ez nuen deskonektatzen... Negoziazioa zaila izan zen. Dena dela, ongi funtzionatzen du eta pozik nago eginiko lanaz.

Baina, gainera, Kirol zinegotzia ere izan zinen garai hartan.

Bai, eta beste proiektu potolo bat izan genuen esku artean: kiroldegia. Kasu hartan ere proiektua lehiaketara aterata zegoen gu iritsi orduko, baina, haren ostean, nahiko buruhauste eduki genituen kiroldegi zaharra bota zutenean.

Izan ere, orubearen azpian ur dezente zegoen, geologoek egin dako aurreikuspenek esandakoa baino gehiago. Lanen epeak luza-tu egin ziren eta, gainera, bilera

"Zaharren egoitza berriko proiektuaren negoziazioa zaila izan zen"

"Kiroldegiari buruz kalean kexak entzun arren, erabiltzaileak pozik daude"

gehiago egitea ekarri zuen, proiektua gauzatzen ari zen enpresaren gainean egon behar genuen etengabe, martxa onean joan zitezela lanok. Proiektu konplikatua izan zen. Nahiz eta gaur egun gaiarekiko kexa batzuk entzuten diren, oro har esango nuke erabiltzaileak pozik daudela.

Baduzu gogoan agintaldi hartako beste proiekturik?

Urkuluko bidegorria egin zen, oso ongi geratu zena, eta pozik nago emaitzaz. Bestalde, unibertsitatea herrian egotea orduko alkate Inaxio Garroren eskutik iritsi da. Lan handia egin zuen eta oso aberasgarria da herriarentzako, positiboa.

Bestalde, gogoan daukat Kurtzebarri Eskola handitzeko proiektua. Ezin izan genuen aurrera eraman, Eusko Jaurlaritzaren esku zegoen erabakia, eta, krisia zela eta, ez zegoen dirurik.

Krisiaren eragina, beraz, igarri zenuen agintaldian.

Noski. Eta Kurtzebarri Eskolarena ez zen kasu bakarra izan, anbulatorio berria ere behar zela uste genuen, baina erantzuna berdina izan zen. Esango nuke azken urteetan igarri genuela batez ere murrizketa aurrekontuetan.

Egitasmo asko bidean geratu ziren, tamalez. Iruditzen zait, bestalde, orain Udalean daudenek guk baino okerrago dutela.

Aukera edukiz gero, errepikatuko al zenuke?

Ez, behin eginda nahikoa da. Denbora luzea eskatzen du zinegotzi izateak, eta, esate baterako, familia izaten baduzu edo lanean bazabiltza, guztira iristea zaila da.

Passat Alltrack

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Das Auto.

HERRIAK

ONATI

Udalak errenergua ezarriko die etxebizitza hutsei

- ▶ Batez beste, jabeek 215 euro gehiago ordaindu beharko dituzte
- ▶ Mikel Biain alkateak dio "alokairua sustatzeko egindako neurria" dela

IMANOL GALLEGO | ONATI

Alokairua sustatzeko asmoarekin, Udalak Oñatiko etxebizitza hutsei beste tasa bat ezartzea onartu du. Udalbatzak urriko osoko bilkuran onartu zuen tasa eta lehen aldiz aurten jarri dute martxan. Etxebizitza hutsak zeintzuk diren jakiteko, Udalak errolda erabili du. Guztira, erroldaren arabera, Udalak 526 etxe huts aurkitu ditu eta guztiak ordaindu beharko dute tasa berria. Hala ere, 2012/04 foru-arauak baimentzen duen moduan, herriko kasuistika askotarikoa dela eta, hamar salbuespen jaso ditu Udalak. Horietako bat betetzen dutenek ez dute tasa berria ordaindu beharrik izango.

Udalak etxe huts bezala onartu dituen 526 etxeetara jakinarazpena bidali zuen. Batez beste, %100eko errenergua bitartez etxe hutsen jabeek 215 euro gehiago ordaindu beharko dituzte. Guztira, Udalak 142 erreklamazio jaso zituen eta horietako 92 onartu ditu. Dena den, Udalak adierazi duen moduan, hurrengo urteari begira, aplikatu beharreko salbuespenen zerrendan aldaketa bat edo beste egingo ditu, herriko errealiterara hobeto egokitzeko helburuarekin.

Herritarren kezak

Zenbait herritarrek ez dute neurria begi onez ikusten. "Udala diru sarrera berrien bila hasi da", salatu dute. Mikel Biainek kontrako iritzia du: "Helburua dirua batzea izango balitz, beste neurri batzuk hartuko genituzke". Gauzak hone-la, herritarrek arauak berak forma-akatsa duela ere salatu dute: "Erroldak ez du bertan bizi zarela ziurtatzen eta iruzur egitea oso erraza da". Biain alkateak ere gai honen inguruan argi utzi du Udalaren jarrera: "Ez gara ofizioz honelako kasuak ikertzen hasiko". Dena den, alkateak zera azpimarratu du: "Herriko alokairu merkata zabalteko neurria da".

Alokairua indartu

Oñatiko udalbatzaren aurtengo helburuetako bat alokairu merkata zabaltea eta indartzea izan da. Horretarako, urrian onartutako ordenantzan fiskalaren aldaketa premiazkoa izan da. Etxebizitza hutsak dituzten jabeek zergak igo-



Hainbat etxebizitza pertsianak jaitzita. | JULEN IRIONDO

SALBUESPEN ZERRENDAA

Gipuzkoako Foru Aldundiak argitaratutako 2012/04 foru arauak zenbait salbuespen zituen eta Oñatiko Udalak horietako batzuk bere egin ditu herriko kasuistika barne jaso ahal izateko. Gauzak honela, 2013ko urtarrilaren bata baino lehen ondorengo hamar baldintzetako bat betetzen dutenek ez dute errenergua ordaindu beharrik izango.

- ▶ Lurzoru urbanizaezinean dauden etxebizitzak.
- ▶ Errolda zerrendan etxea hutsik dagoela agertu arren, alokairu kontratua dutenak, pribatua zein Bizigune edo Alokabidekoa izan.
- ▶ Etxebizitzaren titularra hil denetik urtebeteko epea igaro ez denean.
- ▶ Zaharren egoitzetan erroldatuta dauden edadetuen etxebizitzak (gehienez, etxebizitza bat).
- ▶ Babes ofizialeko etxebizitza baten esleiduna izan eta bertara bizi izatera joateko epea barruan egotea.
- ▶ Jarduera ekonomikoetara bideratutako etxebizitzak, ezinbestekoa izanik JEZEN altan egotea.
- ▶ Ofizialki onartutako dependentzia egoera dela-eta, etxebizitzan inor erroldaturik ez izatea (gehienez, etxebizitza bat).
- ▶ Higiezin-sustapenen edo eraikuntza enpresen jabetzakoak, %50eko hobera aplikatzen zaien kasuetan.
- ▶ Antolamenduz kanpo daudenak, erortzeko zorian aitortuak, hirigintza kudeaketarako lotuak.
- ▶ Babes berezi moduan izendatutako etxebizitzak.

tzean haiek alokatzera bultzatu nahi ditu Udalak, baina ez edonola. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duen Bizigune programa irtenbide aproposa izan daitekeela zehaztu du Biainek. Bizigune programa Jaurlaritzaren programa bat da eta Udalak ez du informazio zuzenik. Dena den, alkateak zera gaineratu du: "Epe laburrean Jaurlaritzaren programa honen arduradunekin harremanetan jarriko gara programa honen eraginkortasuna hobetzeko elkarlan esparruak bilatzeko".

Elkarlan hori gauzatzen den bitartean, alkateak Bizigune programak dituen abantailak ezagutzeko gonbita egiten die herritarrei. Programaren bitartez jendeak zuzenean Jaurlaritzari alokatzen dio etxea, eta hark ziurtatzen du alokairua, ordainketa eta etxearen egoera. Hain zuzen, programak etxea tasatzen du eta, gehienez, 600 euroko alokairua ezartzen du. Intereza dutenek 900 25 12 51 telefonora dei dezakete.

MIKEL BIAIN
ALKATEA

"Dirua bildu nahiko bagenu, beste neurri batzuk hartuko genituzke"

Etxebizitza hutsaren kontzeptua ez dago ongi definitua. Zein da Oñatin erabili duzuen modua?

Etxebizitza hutsaren kontzeptua erabat garbi ez dagoenez, arautzerakoan ahalik eta objektibotasun handien izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2012/04 foru-araua onartu zuen, udalek euren zerga ordenantzetan inor erroldatu bako eta, beraz, "ezohiko etxebizitza"-ren gain errenergua ahalbidetzeko. Kasuistika oso zabalakenez, Oñatiko Udalaren kasuan hamar salbuespen-kasu aurreikusi dira, ordenantza malguagoa eta eraginkorragoa izan dadin.

Familiako kide bat bertan erroldatzea oso erraza da. Tranpa ekiditeko zer egingo du Udalak?

Udala ez du ofizioz kasu hauek ikertzen hasiko. Ordenantzaren aplikazioa izango da Udalaren ardura, eta dagokion kasuan salbuespenen aplikazioa aztertzea.

Etxebizitzen zenbait jabeek diote krisi garaian dirua bildzeko neurri bat dela. Ados zaude?

Inolaz ere ez. Diru bilketa balitz asmoa, badaude hainbat neurri askoz ere errazago aplikagarriak eta polemika txikiagoa sortuko luketenak.

DATUA

95

ERREKLAMAZIO ONARTUTA

Epea amaitu zen egunera arte (martxoak 15), ordenantzak 142 erreklamazio jaso zituen; guztiak aztertu ostean, Udalak 95 onartu ditu.



Artisaua, otzara bat egiten, San Martin plazan. | IMANOL SORIANO



Auzotarrak taldekoak, saria ospatzen. | IMANOL SORIANO



Ibargarai kalean, jakien postuak eta jendetza. | IMANOL SORIANO

BERGARA

Azoka giro ederrak jendez bete zuen Bergara zapatu eguerdian

Erramu-zapatuko azokari kale egitea zaila izan zen, egin zuen eguzki giro bikainarekin

JON BEREZIBAR | BERGARA

Eguraldi ederra eta giro bikaina eta jendetza; *baina* bakarria izan zuen zapatuko feriak: artisaua, nekazari eta gozogileak ez zeuden guztiz pozik salmentekin, jendeak,

"gerturatu bai, baina gutxi erosten zuelako". Zer aukeratua bazez, batez ere artisautza postuetan lan finak aurki zitezkeen; zurez, larruz ala artilez egindakoak. Ibargarain, jatekoak, eta

han ere ortuko produktu freskoekin hasi eta *confit* eta gaztazko gutizietara, eskaintza oparoa izan zen. Abere eta animaliak ikusteko osteratxoarekin batera, alboan zegoen Jardunek ipinitako talo

postua eta nahitaezkoa izan zen mokadutxorako geldialdia, nahiz eta ilara luzea itxaron behar izan. Mokofinenek euskal hanburgesa jateko aukera ere izan zuten Munibe plazan.

Txorimalo lehiaketa

Postu eta taloak bezain ohikoak, txorimaloak dira Erramu Zapatukoan. Jardunek antolatutako lehiaketan surflariak, zerbitzariak eta marrazkietako pertsonaiak, askoren artean, txorimalo bilakatu zituzten. 30 txorimalo egin zituzten eta sari banaketan bertso, kantu eta dantzarako gogorik ez zen falta izan. Txikienak beste ilusioarekin igo ziren sariaren bila nagusien mailako irabazleak, Auzotarrak etorkin taldekoak. Danbor eta kantuekin, dantzan jaso zuten saria, festa are gehiago zabalduz.

MARI JOSE DEBAL
EHOZIRI TALDEA



"Ehoziri taldearen lana ezagutzera emateko jarri gara plazan. Zaharrek ezagutzen dute baina gazteak harrituta geratzen dira esku-lanarekin".

KARMELE AGIRREGABIRIA
JARDUN



"Taloak egin eta egiten erakusten dihardugu. Ikastaro bat egin genuen eta negu partean batez ere etxean ere egiten ditugu jada".

JUAN CARLOS POZA
BERGARA



"Ilara luzea itxaron behar izan dugu baina azkenean lortu dugu taloa. Merezi izan du itxarroteak. Oso giro ona dago eta egun osorako plana daukagu".

FERNANDO LIZARRALDE
BASERRITARRA



"Bergarako Erramu-zapatuko ez da izaten azoketan onenetakoa salmenta aldetik. Oñatitik gatzoguz, urte askoan, azoka honetara".

XABIER ITURRIOTZ
ZAPATAGILEA



"Iruñean daukagu guk tailerra eta hemen ere gure zapatak ezagutzera eman nahi ditugu: ekologikoak, eskuz landutakoak eta bizi guztirako dira".

ONATI

Solasaldiekin, euskal literatura konpartitzen dute Antixenan hilero

J.B. | OÑATI

Antixena gaztetxean irakurketa talde bat daukate, hilero euskal literaturako lanak irakurri eta solasaldia antolatzen dute. Barikuan solasaldion hirugarren saioa egin zuten Anjel Lertxundiren *Etxeko hautsa* liburuarekin. Zazpi bat lagun elkartzen dira gaztetxean hilean behin, Malen Ugarte sustatzaileetako batek azaltzen duenez eta "idazlearen lanak, liburua bera eta pasarteak" aztertzen dituzte. Ugartek berak eta Itziar Murgiondok "iaz Bilbon

talde baten hasi eta Oñatin egitea" pentsatu zutela kontatzen du. Talde irekia da eta urtean zehar egingo dituzte solasaldiak. Hurrengo liburuak –apirila, maiatza eta ekaina– Jon Martinen *Ero*, Arkaitz Canoren *Twist* eta Mikel Antzaren *Atzerri* izango dira.

Bertsoak asteburuan

Gaztetxean bertan asteburu honetan bertso-afari jendetsua izan dute. 50 lagunetik gora egon ziren barikuan afaritan bertsolariarekin batera.



Egubakoitzeko saioko irudia. | IMANOL SORIANO

ARETXABAETA

Espresatzeko, barneak husteko eta, une batez bada ere, haurra izateko inprobisazio saioa

Z.V.D.M. | ARETXABAETA

Aretxabaletako Kuartel Zaharra; hamar lagun eta esperientzia berri bat. Jaiki elkarteak antolatutako bat-bateko sorkuntza saioan parte hartu zuten atzo arratsaldean.

Jolasetik inprobisaziora

Beroketa ariketen ondoren, barneko haurraren bila hasi ziren hamar lagunak, beti ere, inprobisatuz. Aurreneko begiradan kaotiko xamarra iruditu arren, jolas batetik abiarazitako esperientzia bizi izan zuten Aretxabaletan elkartutako gizon eta emakumeek.

Lurrean etzanda egotetik, mugimendu lasaien bidez, harremanak sendotzen joan ziren, euren arteko konplizitatea lortuz. Lotsak alboratuta, bakoitzak barnetik irteten zitzaiona egiteko aukera zeukan, inongo gidoirik jarraitu gabe, ohiko bidetik aterez.

Perkusioa jo zuen batek, dantza lasaian euren kasa aritu ziren besteak, erratza hartuta toki batetik bestera ibili ziren pare bat lagun, edota txakuraren antzera zaunka egin zuenik ere egon zen. Azken finean, nola izan une batez haurra, irudimene edota jolasik gabe?



Kuartel Zaharrean elkartutako lagunak. | JOSETXO ARANTZABAL



Baserritar jantzita, herri bazkaria egin zuten gaztetxean Independentzia Eguna ospatzeko. | IMANOL SORIANO

ANTZUOLA

Independentzia Eguna, elkartzeko aitzakia ederra

1621ean banatu zen Bergaratik herria eta zapatuan festa egin zuten gaztetxeak antolatuta

ZURIÑE V.D.M. | ANTZUOLA

Antzuolako gaztetxeak antolatuta, Independentzia Eguna ospatu zuten zapatuan. Ez zuten asperetzeko denborarik izan, besteen artean, sukaldaritza lehiaketa, batukadak girotutako poteoa, herri

bazkaria zein Joxe Ripplayren kontzertuarekin ederto asko igaro baitzuten.

Herri osoarentzako jai

Zenbait urtetan ospakizunik egin ez bazen ere, 2009an berreskura-

tu zuten jai Antzuolako gaztetxe lagunek: "Erantzun ona izan du urtero, eta aurten ere hala izan da, jende ugari gerturatu da aurtengoan ere gaztetxera".


1621ean banandu zen Antzuola Bergaratik. "Egia esan independentzia ospatzeko baino, gazteok elkartzeko aprobetxatzen dugu, ez baitugu egunero aukerarik izaten". Baina ez zen soilik gazteen festa izan, goizeko gastronomia saioan epaile modua herriko bi sukaldari beterano ere aritu baitziren. "Herri guztiak izan du bere tokia".

SIMS
SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak



BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxe: 943 515757
www.servimasa.com

**Birziklatzeko erraztasunak ematen dizkizugu.
Zatoz eta informa zaitez!**



Bidea zaila izan den arren, hobekuntzak merezi izan du

- ▶ Arrasate Herri Eskolakoak pozik daude Erguingo handitze lanekin
- ▶ Sei ikasgela, gimnasio eta aterpe berria dituzte, eta jangela eraberritua

JOKIN BEREZIARTUA / G.A. | ARRASATE
Arrasate Herri Eskolak Erguin auzoan duen Lehen Hezkuntza-ko eraikinean eraberritze eta handitze lanak egin dituzte eta joan den egunean egin zen inaugurazio ekitaldia. Sei ikasgela berri, gimnasio berria eta jolastokirako aterpea egin dituzte, eta jangela eta sukaldea eraberritu. Jaurlearitzak egin dituzten gehienak baina Arrasateko Udalak ere egin du bere ekarpena. Hala, esaterako, eskolaren mantenuaz arduratuko dela ere azaldu zuten inaugurazio ekitaldian Inazio Azkarragaaurizar alkateak.

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza zikloak gehituta, 740 ikasle ditu Arrasate Herri Eskolak gaur egun hiru eraikinetan banatuta: Musakolan, San Andresen eta Erguinen.

Lehen Hezkuntzako 440 ikasleentzat 21 gela ditu orain zentroak; 21 horietatik 19 ari dira erabiltzen ikasturte honetan, eta datorren ikasturterako guztiak martxan izatea aurreikusten dute.

"Ibilbidea ez da erraza izan"

Josune Etxabe Arrasate Herri eskolako zuzendariak azaldu zuten ikasleak zaintzea, harre-



Jolastokira irteteko tartea Erguingo eskolan. Atzealdean ikusten da aterpe berria; atzerago, Udalatx. | JOKIN BEREZIARTUA

manak bermatzea edota akademikoki laguntzea dituztela helburu, eta gaineratu zuten, horiek lortzeko, azpiegiturak garrantzitsuak direla. "Uneoro" dihardute horiek hobetzeko lanetan eta azken lanak jarri zituen aha-

legin horren adibide moduan: "Ibilbidea ez da erraza izan, aurrerapauso eta atzerapauso asko egon dira bidean. Orain gozatzen ari gara eta eskerrak eman gura dizkiet hau posible egin duten guztiei".

Horrez gain, azpimarratu zuten duela hamar urte herriko ikastetxe ezberdinak Arrasate Herri Eskola sortzeko batu zirenean orain baino askoz ikasle gutxiago zeudela: "Azken urteetan ikasle kopurua asko handitu da".

"Esfortzu guztiarekin" lanean

Kristina Uriarte Hezkuntza sailburuak pozgarri jo zuen ikasle, irakasle eta gurasoekin inaugurazio ekitaldiaz gozatzeko aukera izatea. Hobekuntzak denon onerako direla adierazi zuen eta, garai zailak izan arren, halako gehiago izan daitezkeen laguntzen jarraitzeko ahalegina egingo dutela hitzeman zuten: "Badakigu egoera gogor honetan ez dela batera erraza halako beharrei erantzuna ematea. Guri gustatuko litzaigukeena da behar guztiak erantzun ahal izatea; esfortzu guztiarekin jarraituko dugu ahalik eta behar gehienei erantzuna emateko".

"Kalitatezko heziketa"

Arrasateko alkate Inazio Azkarragaaurizarrek herri eskola publiko eta euskaldunaren aldeko apustua berretsi zuen Udalaren izenean: "Arrasatear guztiak kalitatezko heziketa izan dezaten bermatu behar dugu. Eta, zentzu horretan, herriko eskola publikoaren mantenua bere gain hartzen du Udalak", adierazi zuen.

Ikasleek, era berean, soinuaz eta panderoaz lagunduta, dantzan eta bertotan ospatu zituzten handitze eta eraberritze lanak. Arratsaldean, gainera, Txan magoaren ikuskizunaz gozatzeko aukera izan zuten, giro ederrean.

ESANAK

"Aurrerapauso eta atzerapauso asko egon dira; orain gozatzen ari gara"

JOSUNE ETXABE | ESKOLAKO ZUZENDARIA

"Mantenua bere gain hartzen du Udalak, heziketa kalitatezkoa izan dadin"

INAZIO AZKARRAGAURIZAR | ALKATEA

"Esfortzu guztiarekin jarraituko dugu beharrei erantzuteko"

KRISTINA URIARTE | HEZKUNTZA SAILBURUA



Jangelan zorua eraberritu dute. | J.B.



Sukaldea ere handitu eta egokitu egin dute. | J.B.



Sei ikasgela berri ditu eskolak; irudian, ikasgela berrietako bat. | J.B.



Gimnasio berria inaugurazio egunean, joan den egunean. | J.B.



Ospitale inguruko orubea urez beteta. | IMANOL SORIANO

Udalak ospitale atzeko orubea atontzeko eskatu dio Visasari

Udalak Jauraritzako sozietatea ohartarazi du orubeak dituen hutsuneetat

IMANOL GALLEGU | ARRASATE

Ospitale inguruak berrantolatu zirenean hainbat enpresak zenbait orube erosi zituzten, bertan etxebizitzak egiteko asmoarekin. Orube horietan babes ofizialeko bi bloke eta "La Caixa"-ko etxeak eraiki zituzten.

Beranduago, eta ospitalearen eraikin berriaren atzean, alokairura bideratuko zituen zenbait etxe egiten hasi zen Visasa. Lehen fasea ia amaitua dagoen arren, bigarren faseko orubean ez du lan handirik egin. Duela zenbait hilabete, bertako zuloa luzatu zuten, baina, dirudienek, proiektua bertan behera geratu da.

Egoerak okerrera

Inguruko bizilagunek orubearen egoera dezente okertu dela diote. Arrasateko Udalak iritzi bera

dauka eta bertako teknikariek hiru arazo nagusi aipatu dituzte: uraren maila, eltxoen ugaritasuna eta segurtasun falta.

Hiru arazoak, baina, arazo beraren parte dira. Zuloa luzatu zutenetik Visasak ez du lan gehiago egin bertan eta orubearen lurzoruko zenbait pitzaduratatik ura sartzen hasi da. Horrez gain, azken hilabeteetako euriek ez dute egoera hobetu. Visasaren abandonua medio, orubea inguratzen duten hesiak ez daude oso egoera onean. Udalak kezka azaldu du, izan ere, orubearen ingurutik jende asko igarotzen da eta norbait orube barrura erortzeko aukera dago.

Hau guztia gutxi balitz, udan, orubeko ur mailagatik, eltxoentzako ekosistema paregabea sortzen da. Inguruko bizilagunek

duela bi urtekoa oso gogoan dute oraindik: "Etxeko teilatua eltxoz bete zitzaigun", dio batek. Beste bizilagun batek, berriz, aurtengo uda nolakoa izango den ere iragarri du: "Ur gehiago dagoenez eltxo gehiago egongo da eta ezinongo dugu leihorik zabaldu". Azkenaldian honetan, gainera, hesia apurtuta azaldu da eta zaborra ere agertu da.

Udaletik azaldu dutenez, hirigintza sailetik jarraipena egiten ari dira eta laster bilera bat ere izango dute Visasarekin.

Dena den, Udalak esandakoaren arabera "arazoa ez da egun batetik bestera konponduko". Hala ere, Arrasateko Udalak itxaropena dauka bileraren ostean orubea konpontzeko lanei ekingo diela Visasak, gune haren jabea den heinean.

Txatxilipurdiren udaleku irekietako izen ematea zabalik

I.G. | ARRASATE

Txatxilipurdik gaur zabaldu du bere udaleku irekietan parte hartzeko izen ematea. Aurten 25. urtea izango da eta, beti moduan, herriko aisialdi taldeak "2 urtetik 16 urte bitarteko gazteei eskaintza zabala eta interesgarria" eskaintzeko lanean dihardu. Ohikoa den moduan, hiru gune egongo dira: erdigunea, Musakola eta San Andres. Neska-mutikoak adinaren arabera banatuko dituzte, eta hezitzaileekin primeran pasatzeko aukera izango dute uztailearen 1etik 19ra bitartean. Haurrak hiru gunetan egongo diren arren, iaz bezala, taldeak zenbait momentutan elkartu egingo dira. Udalekuetako arduraduna den Arantza Osororen hitzetan adin eta auzo ezberdinetako haurrak elkartuko dituzte, "elkar ezagutu dezaten".

Ez da erronka txikia izango, krisi garai hauetan 250 haur batzea espero dute. "Familien egoera ezagutzen dugu eta Txatxilipurditik gure ahalegintxo egin dugu", dio Osorok. Txatxilipurdik aurreko urteko prezioak mantendu ditu eta familia ugari eta Topakideko bazkideei

%5eko deskontua egingo diete. Bi baldintzak betetzen dituztenek, gainera, %10eko deskontua izango dute.

Zenbait berrikuntza

Berrikuntza ekonomikoez gainera, eta Txatxilipurdiren 25. udalekuak izan arren, aurtengo udaleku irekiek badute beste berrikuntza. Bilinbolonka (2 urte) eta Beibileku-etakoek (Haur Hezkuntza) ura aurrezteko bide bezala astean behin izango dute Ur Eguna euren gunean. Dena den, beste guneetara joateko aukera izango dute Ur Egun gehiago ospatu ahal izateko. Kasu horietan, gainera, Bilinbolonkako haurrek ordu bete gehiago egingo dute; hau da, 10:00etatik 13:00ak arte egingo dute jolas. Bihurrikeixetan (Lehen Hezkuntza), egun pasak motzagoak izango dira, haurrak 16:00etan bueltatuko dira-eta.

Berrikuntza hauek ez dute gainontzeko zerbitzurik aldaraziko. Aurreko urteetan bezala, Beibileku eta Bihurrikeixetan parte hartzen dutenek zaintza zerbitzua izango dute. Izen ematea Txatxilipurdiko bulegoan egingo da.



Aurreko urteko udaleku irekietako une bat. | JOKIN BEREZIARTUA

Gureztatu-k azoka plazaren irudi berria sortzeko lehiaketa deitu du

Lan hautatuak 1.000 euroko saria jasoko du

I.G. | ARRASATE

Arrasateko azoka biziberritzeko prozesua bigarren fasean da. Horregatik, egungo azoka indartzeaz gain, eraikina bera indartzeko eta eguneratzeko beharra ikusi dute prozesuko parte hartzaileek. Espazioari erabilera anitzagoa ematea pentsatu dute, tokia bera herriaren erreferentzia puntu bilakatu dadin.

Hortik sortu da Gureztatu-k deitu duen azoka plazaren irudia eraberritzeko lehiaketa. Sustatzaileek irudi berri hau euskarri ezberdinetan erabiliko dute, espazio erakargarri bat sortzeko.

Lehiaketaren prozedura

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek euren lanak paperean eta euskarri digitalean (editatzeko formatuan eta pdf-an) aurkeztu beharko dituzte, bi gutun-azal itxitan.

Lehenen parte hartzailearen datuak sartu beharko dira. Bigarrenean proposatutako diseinua (koloretan eta kolore bakarrean), diseinu horren aplikazioak (eskutatutako lau euskarrietan) eta diseinuaren deskripzio labur bat. Lanak BAZen aurkeztu beharko dira maiatzaren 6ko 19:00ak baino lehen.

OHARRAK

FERRERIAS, 2 ORDUZ ITXITA
Martitzenean, martxoak 26, Ferrerias kaleko oztopo zutina jarriko dute. 11:00etatik 13:00etara kalea itxita egongo da ibilgailuentzat.

OINTXEI, BILERA DEIALDIA
Martitzenean, arratsaldeko 19:00etan Kulturaten, Ointxe! taldeak elkartearen funtzionamendua zein den azaltzeko eta taldea indartzeko eskaera egingo dute bilera egingo du.

1972 URTEKOEN KINTADA
Apirilaren 13rako 1972. urteko kintoek bazkaria antolatu dute. Interesatuek apirilaren 3a baino lehen eman behar dute izena Arrasateko Rural Kutzako bulegoan.

SUDCeok, Aste Santuari begira, elkarteen arteko Arrasate-Oñati doke txapelketa antolatu dute

Aurtengoa XXXIII.a izango da eta, bertan, Arrasate eta Oñatiko elkarrekin hartuko dute parte. Doke txapelketa Monterron parkearen azpian dagoen zelaian egingo dute martxoaren 29an. Txapelketa goizeko 10:00etan hasiko da eta bi herrien arteko pikea kontuan izanda Aste Santurako plan bikaina izan daiteke. Gogoan izan, baina, kasu honetan, elkarrekin kideek soilik hartuko dutela parte; baina bertaratzen direnek ikuskizun politaz gozatzeko aukera paregabea izango dute.

Aste Santu osterako txalaparta eta argazkilaritza ikastaroak antolatu ditu gazteria sailak

Ttakunek emango du Txalaparta ikastaroa apirilaren 15etik maiatzaren 13 arteko astelehenean, 18:30etik 20:30era, Zerrajerako erlojuaren eraikin zaharrean. Argazkigintzaren kasuan, eskolak apirilaren 23tik maiatzaren 28 arteko martitzenetan izango dira, 18:00etatik 20:00etara. Ikastaro bakoitzak 25 euroko kostua izango du, baina ikasle eta langabetuek 10 euro gutxiago ordainduko dituzte. Argibide gehiago behar izan ezkerok Gazte Bulegora jo daiteke.



Artisau eta zaporeen azoka, iaz, San Martin plazan. | GOIENA

Zaporeen azoka eta antzerkia eta musika asko apirileko egitarauan

Aldeta taldearen kontzertua eta Erreleboa antzezlanaren egongo dira, esaterako

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

Udaleko Kultura Sailak kaleratu du dagoeneko apirileko egitaraua eta ekitaldiz bete-beteta dator.

Antzerkiari dagokionez, hiru antzezlan egongo dira Zabalote-

gi aretoan. Apirilaren 13an, zapatua, *Manos ke rien* izeneko ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da, 19:00etan -8 euro-. Mimoa, antzerkia, film laburrak eta musika uztartzen dituen ikuskizuna

da. Apirilaren 19an, egubakoitza, berriz, Txalo antzerki taldea etorriko da eta *Erreleboa* izeneko antzezlanaren taularatuko dute, 22:00etan -8 euro-. Eta apirilaren 28an, domeka, Teatro Paraisok

3 eta 6 urte bitarteko umeendako *Kri, kra, kro* lana eskainiko du, 18:00etan -4 euro-.

Aldeta taldearen kontzertua

Musikari dagokionez, bost emanaldi jasotzen ditu Udalak kale-ratutako egitarauak. Gaztetxoendako bi dj emanaldi egongo dira, biak ala biak 18:30etik 21:30era, Zabalotegi aretoan, dohain. Bata, apirilaren 6an izango da eta beste, 20an.

Kontzertuei dagokionez, apirilaren 12an Donostiako Aldeta taldeak emanaldia egongo du 22:00etan, Zabalotegin. Taldearen lehen diskoa, *Txorien aberria* izeneko urtarrean aurkeztu zuten, eta horixe aurkeztuko dute Zabalotegin egongo duten emanaldian. Felipe Juaristi poeta eta idazlea da taldeko abeslarietako bat eta letra gehien egilea. Gitarra eta ahoko soinu jotzailea, ostera, bergarar bat: Juanra Unamuno. Horiekin batera, Vomito taldeko kide bat ere bada taldean, Txitxo Lopez. Azkenik, Monika Reflojos Santa Zezilia korukoak jartzen du ahotsa kanta gehienetan.

Hilaren 14an, berriz, Bergarako Orfeoiaren kontzertua egongo da 19:00etan, Zabalotegi aretoan eta hilaren 21ean, Udal Musika Bandarena, 12:30ean, Udal pilotalekuan. Gainera, udaberriaren sartuta, kontzertuen aurretik kalejira egiteari ekingo diote, halako saioan ohi duten moduan.

Eskaintza horri, Bergarako Musi-

ka Eskolak hilaren 21etik 26ra antolatuta dute Apirilean Musika emanaldi sorta ere gehitu behar zaio. Epealdi horretan, askotariko kontzertuak egongo dituzte Musika Eskolako ikasleek herriko gune ezberdinetan.

Azoka ere bai

Artisau eta zaporeen feria ere egongo da apirilean. Hilaren 12tik 14rako asteburuan egongo da, San Martin plazan, eta, aurreko edizioetan bezala, askotariko postuak jarriko dituzte bertan. Eskulan, jaki eta bitxikeria ugari egongo dira bertan.

Horrez gain, hilaren 17an *Hesiak gainditzen* izeneko dokumentala ikusteko aukera ere egongo da, 19:00etan, Irizar jauregian, Jardun elkartearen eskutik. Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak egindako dokumentala da eta euskarara hurbiltzeko ahalegina egin zutenei eta egiten ari direnei esker ona adierazteko egin dute. Bi bertan esateko, euskaldun izan barik frankismoan gureru etorri zirenek hurrengo belaunaldiei euskara transmititzeko egin duten lana goraiatzera dator ikus-entzunezkoa. Emanaldi egunean Txatxilipurdiko bi ordezkariekin solasaldia ere egongo da, Aizpea Otxandianoekin eta Eneko Barberenarekin, hain zuzen.

Esandako eskaintzarekin batera, apirilean barrena jarraitu egongo dute Zabalotegiko film emanaldiek.

Epea zabalik Bergara Hiria argazki lehiaketarako

Interesa duten herritarrek har dezakete parte eta maiatzaren 8a izango da aurkezteko azken eguna

M.B. | BERGARA

Bergara Hiria argazki lehiaketaren 29. edizioa deitu Udalak Arizondo Argazkizale Elkartearen laguntzarekin.

Erkidegoan bizi den edozein afizionatuk har dezake parte.

Gaiari dagokionez, librea da eta zuri-beltzeko edo koloretako argazkiak entregatu ahal izango dira, edozein teknika edo prozedura erabilita.

Mota bakoitzeko lau lan aurkez daitezke gehienez. 40x50 zen-

timetroko kartulinan aurkeztuko dira eta argazki paperaren tamaina eta argazkiko irudia bakoitzaren aukeran gelditzen dira.

Lanak entregatzeko azken eguna maiatzaren 8a izango da, eta udaletxera eraman daitezke edo posta zertifikatuz bidali.

Lau sari

Epaimahaiak maiatzaren 11n hartuko du erabakia eta lau sari emango dira: lehen saria, 210 euro eta garaikurra; bigarrena, 180 euro eta garaikurra; hirugarrena, 150 euro eta garaikurra; eta herri-

ko onena, 120 euro eta garaikurra. Garaikurrari dagokionez, Santi Arrietaren argitaratu gabeko zeramika-lanak izango dira. Sari-emate ekitaldia maiatzaren 24an egongo dute, 20:00etan, Aroztegi aretoan.

Horrekin batera, aurkeztutako argazkien artean aukeratutakoak, Aroztegi aretoan egongo dira ikusgai. Maiatzaren 24tik ekainaren 9a bitartean egongo da ikusteko aukera.

Argibide gehiagorako, 943 76 30 90 telefono zenbakira deitu (Benito).

Gazteendako udalekuak Jardunekin

M.B. | BERGARA

Jardun euskara elkarteak, Arrasateko Txatxilipurdi eta Soralezko Pil-Pilen elkarrekin elkarlanean, *Udako abenturak* delako udalekuak antolatuta ditu. Uztailean izango dira eta 9 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzenduta daude.

9 eta 12 urteko gaztetxoek Zerainera joateko aukera izango dute eta 40 lagunentzako zortzi eguneko bi txanda antolatuta dituzte: uztailearen 8tik 15era eta 15etik 22ra.

12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoek, ordea, Garaionera joateko eta naturarekin gozatzeko aukera paregabea izango dute. 25 lagunentzako txanda bakarra egongo da, uztailearen 9tik 18ra.

14 eta 16 urte bitarteko gazteek, berriz, abentura izango dute zain. Araban abiatu eta Gipuzkoara, mendiz mendi, egongo dute ibilaldia, eta kostan amaitu. Uztailearen 5etik 16ra izango da hori.

Informazio gehiago jasotzeko eta izena emateko Jardunera dei daiteke, 943 76 36 61 telefono zenbakira, edo jardunkultura@topagunea.com helbidera idatzi.

Mugarrien bueltako 3. etapa ere egin dute

Mugarrien bueltako hirugarren etapan ere, Elosutik Osintxuraino, talde polita batu zen, argazkian ikus daitezkeen moduan. Laugarrena Osintxutik Uberara izango da, apirilaren 14an, eta izen-ematea zabalik dago, pilotalekuko tabernan.



POL-POLMENDI TALDEA

Telebistaren tripak eta gertakari paranormalak

A.B. | BERGARA

Ez da erraza izaten, baina Jose Antonio Perezek lortu zuen. Ordu eta erdiz isil-isilik eta adi-adi mantendu zituen Aranzadi Ikastolako neska-mutikoak. Aste Kulturala ospatzen ari zirela-eta hitzaldia ematera joan zen eguen eguerdian Perez Aranzadira. *El Hormiguero* telebista saio famatuko gionista izandako da eta Andreu Buenafuenterekin ere lan egindakoa. Bi saioak ere gaztetxoek gustukoak dira, eta nola ez, arreta handiz entzun zituzten Perez kontatutako anekdotak.

Telebistaren tripak eta barruko funtzionamendua azaldu zizkien hizlariak gaztetxoek eta hauek harrirituta gelditu ziren Perez kontatuta sekretu asko eta askorekin. "Kontatu zien beraien ikusten dituzten telebista saio askotan, dena presatuta dagoela eta ez dagoela inprobisaziorako tokirik. Telebistaren eta komunikabideen beste alde bat erakutsi zien eta

ikasleek oso gustura entzun zituzten Perezen esperientziak", kontatu digu Manu Arregi irakasleak. Hitzaldiaren amaieran neska-mutikoak Perezekin berbetan geratu ziren luze.

Gertakari paranormalak

Egubakoitzean, berriz, gertakari paranormalak izan zituzten hizpide Aranzadin. *El Correo* egunkariko kazetari Luis Alfonso Gomez izan zen ikastolan goizean. Gertakari paranormalen atzean ezkutitzen den negozio borobila eta merkaturaren agerian utzi zituen Gomezek. Iker Jimenezen moduko telebista saioen edo antzeko erreportajeen atzean zer dagoen azaltzen ahalegindu zen. Gomezen ustez gertakari paranormalen negozioa bizirik mantendu beharrik dakar horrenbeste gertakari agertzea, gehienak gezurrak.

Ikasleek, kasu honetan ere, adi-adi entzun zituzten kazetariaren azalpenak, adibide praktikoa ere ipini zituen-eta.



Jose Antonio Perez hitzaldia egiten Aranzadi Ikastolan. | ARANZADI IKASTOLA

Gobernua herritarrak "nahasten" dabilela dio Bergara Garbiak

A.B. | BERGARA

Atez atekoaren kontrako eta bosgarren edukiontziairen aldeko plataformak prentsa ohar baten bidez adierazi du Udal Gobernu atez atekoaren inguruan egiten ari den bilerekin eta "panfleto propagandistikoekin herritarrak nahasten" ari dela: "Atez atekoaren onurak azpimarratzen ari dira eta etorkizun idiliko bat agintzen. Ez dira konturatzen etorkizuna orainaren bitartez sortzen dela". Horren harira, salatu dute herria ez dela "garbitasun" eta "ekologiaren" adierazle: "Sekula ikusi ez bezala, Bergara pankarta, kartel, pegatina eta pintadaz

josita dago. Horieta batzuk atez atekoaren alde eta bosgarren edukiontziairen kontra". Eta honakoa gaineratzen dute: "Zer gertatutako da zikinkeria horri guztiorri atez atekoa gehitzen zaionean? Zintzilikarioetatik zabor poltsak esekitzen direnean, euliz inguratuta? 'Bergara Monumentala' herri turistiko baten adibide izango da horrela?".

Bergara Garbiak azaldu du "amesgaizto" hori bukatzeko ezinbestekoa dela protesta egitea. Hori horrela, herritarrei dei egiten diete balkoietan zabor poltsak mantentzeko eta Udal Gobernuari eskatu diete atez atekoaren gaineko galdeketa.

Aitor Garitano | Abeslaria

"Donostia erre zenean hildako umeak ordezkaturiko ditut"

- ▶ Aitor Garitanok Aste Nagusiko Txistularien Kontzertuan abestuko du
- ▶ 'Peter Pan' musikaleko protagonista izan zen eta abesten jarraitu nahi du

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Aitor Garitanok, Bergarako Musika Eskolako kantu ikasleak, Donostiako Aste Nagusiko Txistularien Kontzertu Nagusian kantatuko du. Abuztuaren 10ean izango da kontzertua, Konstituzio plazan, 20:30ean.

Nola lortu duzu Donostiako Aste Nagusiko Txistularien Kontzertu Nagusian abestea?

Udan Santa Marina elizara joan nintzen Marije Arratibel txistulariaren konposatutako bertsoa abestera. Ondoren, Zumarragako txistularien alardean abestera gonbidatu ninduten. Han, Donostiako txistularien alardeko ordezkari batek telefonoa eskatu zidan eta azaldu zidan, beharbada, Donostiako Aste Nagusiko kontzertuan abesteko deituko zidala. Ez nuen haren deirik espero, baina, nire zorionerako, deitu egin zidan hila-bete batzuk geroago.

Kontzertu berezia izango da abuztuaren 10ekoa, ezta?

Bai. Raimundo Sarriegi konposatzailea hil zela 100 urte beteko dira eta 200 urte Donostia erre zela. Bertan 200 haur inguru hil ziren, eta horiek ordezkaturiko ditut nik.

Hortaz, erantzukizun handia. Urduri zaude?

Aukeratu izan nintzela jakin nuenean urduri ipini nintzen. Erantzukizun handia da, baina badaukat denbora eta uste dut ondo prestatzeko denbora izango dudala.

Hasi zara entseatzeko?

Aurreko domekan egon nintzen Jose Ignacio Antsoarenarekin eta behin-behineko partitura eman zidan. Lehenengo sentsazioa oso ona izan zen eta pozik nago.



Aitor Garitano abeslari gaztea. | ARRITXU BARRUSO

"Erantzukizun handia da, baina ondo prestatzeko denbora badaukat"

Peter Pan musikaleko protagonista ere izan zinen. Abeslari izaten jarraitzea gustatuko litzaizuke?

Bai. Askok gustatzen zait eta horretan jarraitzeko asmoa daukat. 2009an hasi nintzen Musika Eskolako abesbatzan kantatzen, eta

"Antsoarenarekin egon nintzen eta lehen sentsazioa oso ona izan da"

Peter Pan, esaterako, oso eskola garrantzitsua izan da niretako. Gustatuko litzaidake beste areto batzuetara ere eramatea *Peter Pan*. Mundu hori asko gustatu zait eta horretan lanean jarraituko dut.

Azkaiter Pelox zirkuan ikusi dugu oraingoan

Zirku italiarra Bergaran izan zenean sortu zen hartu-eman. Hain zuzen ere, zirkuak Azpeitian egingo zuen emanaldian Azkaiter Peloxek Gaizka Azkaraterekin (Behi Bi Blues) abesti bat joko zuela adostu zuten: *Jantzi peluka*. Bada, emanaldia grabatu egin zuten eta dagoeneko ikusgai dago, Youtuben.





San Martinen egiten diharduten azken hiru bearruak. Lehen atariko etxeak zozketatuko dituzte. | MIREIA BIKUÑA

San Martingo etxeen zozketarako arautegia ikusgai udaletxeko taulan

Babes ofizialeko etxebizitzak dira eta San Martin auzoko 6. zenbakikoak dira

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

San Martin auzoan egiten diharduten babes ofizialeko azken sei etxeen zozketarako arautegia hasiera baten onartu zuten aurreko asteko osoko bilkuran. Lehen pausoa emanda, zozketa egin arteko prozesua martxan ipini dute. Arautegia Gipuzkoako Aldizkarian publikatu ondoren, hila-betez egongo da ikusgai udal bulegoetan. Tarte horretan alegazioak aurkeztu ahal izango dira.

Ondoren, osoko bilkuran behin betiko izaeraz onartu beharko dute. Asmoa da apirileko osokoan egitea. Onarpen horren ondoren, Udalak etxea erosteko Etxebiden eskaera egin dutenen zerrenda eskatu eta 15 egunetan ikusgai ipiniko du. Azken pausoa zozketa izango da. Uda aurretik egiteko asmoa dute adjudikazioa.

2012ko abenduaren 1a baino lehen Etxebiden izena emanda zutenek parte hartu ahal izango dute zozketan. Bestalde, eskatzaileek bi urte lehenagotik Oñatin erroldatuta egon beharko dute.

leek bi urte lehenagotik Oñatin erroldatuta egon beharko dute.

Hiru logelako etxeak

San Martin auzoan zozketatuko dituzten babes ofizialeko azken sei etxeak 6. zenbakiko atarian daude. Hain justu ere, A, B, C, D eta E beheak eta lehen solairuko A etxea. Guztiek dituzte hiru logela eta etxeari lotutako trastelekuak eta garajeak. Azken horiek derrigor erosi beharko dira.

dira etxearekin batera. Sei etxeak kupo orokorrean zozketatuko dituzte. Etxearen neurriak, berriz, zozketa egunean banatuko duten dokumentazioan ikus ahal izango dira.

Etxebizitza sozialetarako

San Martin auzoa osatzeko 6., 7. eta 8. zenbakiko etxeak bukatzea falta da. Guztira, 45 etxebizitza egiten dihardute. Horien zozketa iazko apirilaren 25ean egin zuten. 39 etxebizitza adjudikatu ziren orduan. Udalak sei etxe gorde zituen etxebizitza sozial gisa erabiltzeko. Orain, baina, horiek zozketatzea erabaki du. San Martingo azkenak izango dira, eta baita Oñatiko azkenak ere.

Azken urteetan promozio handiak egin dituzte Ugarkalden, San Martinen eta Kasablankan. Horiek guztiak banatuta, oraingoz, ez dira babes ofizialeko etxe gehiago aurrekusten. Krisiaren eraginez asko moteldu da erakuntza arloa Oñatin.

DATUA

6

ETXEBIZITZA

Horiek dira San Martinen zozketatu barik geratzen diren etxeak. Hiru logelako etxeak dira, garajearekin eta trastelekuarekin.

Askotariko elizkizunak egingo dituzte elizetan eta monasterioetan eguenetik

M.B. | OÑATI

Aste Santuan askotariko elizkizunak egingo dituzte, bihurtik domekara arte.

Eliza Katolikoak urteko garai garrantzitsuena ospatzen du asteen –Gabonekin batera–, eta herriko elizetan, auzoetako ermitetan eta monasterioetan elizkizunak egingo dituzte: Eguen Santutik Pazko-domekara.

Bihar eta etzi, gehien

Datozen egunetako elizkizun gehienak eguen eta egubakoitz artean ospatuko dituzte. Egue-nean Ordu Santua egingo dute herriko eliza handienetan eta egubakoitzean, gurutze-bidea elizetan eta auzoetako ermitetan. Domekako ospakizunak lau lekutan egingo dira: Santa Anan, beneditarretan monasterioan, Uribarrin eta parrokian.

ASTE SANTUKO ELIZKIZUNAK

	MARTXOAK 28	MARTXOAK 29	MARTXOAK 30	MARTXOAK 31		
	EGUEN SANTUA	ORDU SANTUA	GURUTZE-BIDEA	EGUBAKOITZ SANTUA	ZAPATU SANTUA	PAZKO DOMEKA
Santa Ana	19:00	21:00 Gurtza	-	19:00	21:30	10:00
Beneditarren eliza	18:00	22:00	-	18:00	21:00	-
Agustindarrak	19:30	-	20:00	18:00	20:30	-
Parrokia	18:00	21:00 Gurtza	09:00	17:30	21:30	12:00
Bidaurreta	18:30	21:00 Gurtza	11:30	17:30	21:30	10:00
S. Martin	16:00	-	-	16:00	-	-
Uribari	-	-	09:00	-	-	09:00
Olabarrieta	-	-	11:00	-	-	-
Zubillaga	-	-	11:00	-	-	-
Koizkar	18:00 Jauren afora	-	-	-	-	-

Zubikoako igerilekuak itxita egongo dira, gaurtik, Osakidetzak agintzen duen garbiketa egiteko

Osakidetzak urtean bi aldiz agintzen duen garbiketa sakona egiteko, Zubikoako igerilekuak itxita egongo dira gaurtik apirilaren 1era arte, bi egunak barne. Tarte horretan, igerilekuak hustu, garbitu eta berriro beteko dituzte. Gainerako instalazioek ordutegi berezia izango dute Aste Santuan: hilaren 28an, 29an eta apirilaren 1ean itxita egongo da kiroldegia eta hilaren 30ean eta 31n ohiko ordutegiarekin zabalduko dute.

Liburutegian sortu diren irakurle taldeek apirilaren 16an eta 17an hasiko dituzte saioak

Udal Liburutegiak egindako deialdiak erantzun ona izan du, eta bi irakurle talde osatu dituzte dagoeneko: euskarazkoa 15 kideekin eta gaztelarazkoa 25 lagunekin. Lehen talde-saioak apirilaren 16an eta 17an egingo dituzte. Peru Magdalena idazle eta marrazkilari durangarrak gidatuko du euskarazko taldea eta Antonio Altarriba idazleak, gaztelarazkoa. Aste Santuko oporren ostean talde horiekin hasiko dira lanean, baina ikasturte osoan zehar egongo da taldeetan sartzeko aukera.

Udalekuetako begiraleendako izen-emate epea apirilaren 2tik 13ra izango da

M.B. | OÑATI

Milakolore udalekuetan begirale moduan parte hartu gura dutenek apirilaren 2tik 13ra eman beharko dute izena Oñatiko Udaleko Erregistroan. Agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: eskaera-orria, EGA edo baliokidea eta NAREN, tituluaren eta merezimenduak egiaztatzeko agirien fotokopiak.

Prestakuntza saioak

Irizpideak kontuan hartuta puntuak banatuko dituzte. Kontratazioa egiteko kontuan hartuko dituzte: titulazioa, ikasketak, prestakuntza-ikastaroak, euskara, lan-esperientzia eta Oñatin erroldatua egotea, hurrenkera horretan. Begiraleek hainbat prestakuntza saio egingo dituzte maiatzean eta ekainean.

Txirri, Mirri eta Txiribitonon ikuskizuna, Antxintxiketan taldekoen eskutik

M.B. | OÑATI

Txirri, Mirri eta Txiribitonon Terapia delako ikuskizuna egingo dute Antxintxiketan Kirol Elkartearen eskutik. Pailazoan emanaldi bikoitza apirilaren 13an izango da: 16:00etan lehena eta 18:00etan bigarrena. Ikuskizuna Santa Ana antzokian izango da, eta saio bakoitzerako 270 sarrera egongo dira.

Txartelak salgai daude Oñatiko Kiku eta Mizken, Arrasateko Lua gozoki-dendan eta Bergarako Lazkano oinetakodendan.

Ekitaldi horren berri emateko prentsaurrekoa egin zuten atletismo taldekoek egunean. Batutako dirua Corpus bezpera eguneko lasterketa antolatze bideratuko dute.

OHARRAK

PLASTIKO BILKETA

Baserrietan sortutako plastikokoak batuko dituzte bihar, martitzena. Oñatin lau lekutan utzi daitezke plastikokoak: Eteo atzealdean; Larrañan, Asentzio ermitaren ondoan; Olabarrietako autobus geltokian; eta Zañartun, Zuazola zubiaren ondoan. Belar boletako plastikoko beltzak, berotegietako plastikoko zuriak eta beste hainbat jasoko dituzte.

ARETXABALETAKO

Gorputz espresioen gaineko argazki lehiaketa gertatu du Begira dendak

Maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira lanak argazki-dendan; irabazleak 250 euro jasoko ditu eta bigarrenak, estudioko erreportajea

MIRIAN BITERI | ARETXABALETAKO

Argazki lehiaketa jarri dute martxan Aretxabaletako Begira argazki-dendan. Oraingoan, gorputz espresioen gainekoa izango da. Begirako Ane Idigorasek dio askotarikoak izan daitezkeela irudiak, hala nola begirada, eskuekin egindako keinuak eta animaliek egindako mugimenduak. Lanak maiatzaren 15a baino lehen aurkeztu behar dira Ilargi plaza-ko 1. zenbakian.

Idigorasek jakinarazi digu argazki lehiaketa 18 urtetik gora

koei zuzenduta dagoela eta parte hartzen dutenek, gutxienez, bi argazki aurkeztu beharko dituztela. Irudiaren tamainari dagokionez, azaldu du gutxieneko tamaina 24x30 zentimetro eta gehienez 30x30 zentimetro izan beharko duela. Horrekin batera, gaineratu du koloretan edo zuri-beltzean aurkeztu ahal izango direla eta muntaia eta ukitu digitalak onartuko direla. Bestalde, beste lehiaketaren batean irabazle irtendako lanik ezin dela aurkeztu gogorarazi du.

Argazki bakoitzak atzealdean titularrak izan beharko du, egilearen goitizenarekin batera. Horrez gain, itxita dagoen kartazal baten, goitizenarekin kanpoan idatzita, autoreak datu pertsonalak sartu beharko ditu: izen-abizenak, NA edo IFZ zenbakia, helbidea eta telefono zenbakia.

Erakusketa

Begira argazki-dendako ardura-dunak adierazi du jasotako lan guztietatik bi aukeratuko direla,



Lehiaketaren kartela kaleetan ikusiko dugu oraingo astetik aurrera. | BEGIRA

bi sari banatuko dira-eta. Lehiaketa irabazten duenak 250 euro jasoko ditu eta bigarrenak, aldiz, estudioko erreportajea. Horrez gain, aurkeztutako lan guztiekin argazki-dendan erakusketa gertatzeko asmoa duela azaldu du.

Bezeroak galdezka

Ez da lehenengo aldia Begirak horrelako lehiaketa gertatzen duena; Idigorasek denda zabaldu

duenetik beste bi egin ditu: paisaia, bata; eta urari buruzkoa, bestea. Joan den urtean, baina, ez zuen lehiaketarik antolatu, eta jendea galdezka joan zaiola esan du Idigorasek. Bada, hori dela eta, aurtun errekerperatzea erabaki du.

Bestalde, argazki lehiaketari buruzko oinarriak Facebooken kontsulta daitezke, Ane Idigorasek helbidean.

ARETXABALETAKO-ESKORIATZA

Almen gunekoek zuhaitzak landatu dituzte Eskoriatzako sarreran

M.B. | ESKORIATZAN

Arizmendi Ikastolako Almen guneko ikasleek zuhaitzak landatu zituzten martxoaren 15ean. Eskoriatzako Intxaurtxueta sarrera aukeratu zuten horretarako; hain justu, AP-1 autobideko lanekin eta bukatu gabeko etxebizitzekin sarrera hori "zatar xamar" zegoela-eta, Udalari asmoa jakinarazi ostean, landaketa egiteko

eremuak adostu zituzten. Agenda 21etik antolatutako ekintza izan zen, eta LHko eta DBHko ikasleek hartu zuten parte.

20 zuhaitz inguru

Denera, 20 zuhaitz inguru landatu zituzten: hain justu, urkiak, lizarrak, haltzak, sahatsak eta pare bat pago sartu zituzten Intxaurtxueta aldean.



Almen gunekoek zuhaitzak landatzen. | ARIZMENDI IKASTOLA

ESKORIATZA



Hondarribia-Irun taldekoak Eskoriatzan izan ziren orain dela gutxi. | GOIENA

Ekainean Hondarribira doaz Saski Eskolakoak

Bi eguneko irteera antolatu dute; datorren apirilaren 14a baino lehen eman behar da izena

M.B. | ESKORIATZAN

Aurtengo denboraldiari amaiera emateko, Hondarribira irteera gertatu du Eskoriatzako Saski Eskolak. Antolatzaileek jakinarazi dute bidaia horretarako plazak mugatuak dire-

la; hori dela eta, interesa dutenek apirilaren 14a baino lehen eman behar dute izena. Prezioari dagokionez, 70 euro da; Saski Eskolako neska batekin baino gehiagorekin doazen familiendako 55 euro eta

Saski Eskolan ez dabilten neskendako, 90 euro. Prezioan sartuta dago ostatua, bazkariak eta autobusa. Parte-hartzaile guztiek, gainera, kamiseta bana jasoko dute.

Askotariko ekintzak

Asteburu horretan egingo dituzten ekintzen berri ere eman dute. Ekainaren 1ean 08:30ean irtengo dira Eskoriatzatik eta ondoren, Aretxabaletara eta Arrasateetik pasatuko dira. Hondarribira heltzean aterpetxera joango dira, eta bazkaldu aurretik entrenamendu lasaia egingo dute. Arratsaldean, osteran, Hondarribia-Irungo Saski Eskolako taldeekin partiduak izango dituzte. Bigarren egunean, gosalduta ostean, hondartzan ibiltzeko aukera izango dute, eta gero, entrenamenduak eta beste-lako ekintzak egingo dituzte. Bazkaldu ostean, dena gertatuko dute, 18:00etarako Eskoriatzan egotea aurreikusi dute-eta.

Denboraldiko antolaketaren barruan eta Liga Nazional mailan jokatzeko duen Hondarribia-Irun taldearekin duten harreman ona aprobetxatuz antolatu dute esandako irteera.

Aste Santuan bisita gidatuak izango dira Eskoriatzan

M.B. | ESKORIATZAN

Ibarraundi museoak bisita gidatuak gidatzen dituzten interesgarriak gertatu du Aste Santurako. Eguenean eta egubakoitzean, hilak 28 eta 29, Eskoriatzako lanbide zaharrek ezagutzeko aukera egongo da. Eguenean Zubiateko labera joango dira; hitzordu bikoitza da: 11:00etan erdaraz izango da bisita eta 12:00etan, osteran, euskaraz. Egubakoitzean Elorretako errotan izango da bisita gidatua. Goizeko hamaitan hasiko da hori eta gaztelaraz izango da.

Apirilaren 1ean herriko eraikinak bisitatuko dituzte; 11:00etan erdaraz eta 12:15ean, euskaraz. Ez dago izena eman beharrik.

Atez atekoaren galdetegiak barikura arte bete daitezke

M.B. | ESKORIATZAN

Eskoriatzako Udalak joan den astean aurkeztutako atez ateko sistema ezartzeko plangintzak lehen urratsa egin du. Maiatzean informazio kanpaina abiaraziko du, eta, informazioa ahalik eta modu eraginkorrean emateko, kezken berri izateko galdetegiak prestatu du. Egubakoitza da aurkezteko azken eguna.

Galdera bakarra du galdetegiak: *Atez atekoan bakoitzak duen kezka*. Hamaika erantzun daude aukeran: besteak beste, arrainarekin zer egin, ordutegira moldatu ahal izatea, egoera berezietan zer egin, ondo egiten jakitea, zer bota nora, isunak, kalearen itxurak eta intimitaterik ezak. Edozelan ere, bestelakoak ere gehi daitezke.



Korrika Txikiaren azken metroak San Roke kalean; Irati Bolinagak darama lekukoa. | L.Z.

ELGETA

Ehun bat neska-mutikok egin zuten eguenean Korrika Txikia Elgetan

Irakasle eta gurasoen laguntzarekin Korrika Txikia herriko kale nagusietatik igaro zen; amaieran pozik ziren haurrak: "Polita atera zaigu Korrika", zioten

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Kanpandorrean hirurak jotzen ari zela abiatu zen Korrika Txikia herri eskolatik. Bosgarren eta seigarren mailakoek egin zuten ibilbidearen lehen zatia, Aratz Guridik lekukoa eskuan zuela. Kantoikoan Martin Egizabalek hartu zuen lekukoa eta botika parean, Jokin Zeziagak. Ordurako Lehen Hezkuntzako haur guztiak lasterka ziren.

Salbador kalearen goiko aldean bost urteko gelako Alazne Errastik hartu zuen lekukoa, eta, apurka-apurka, Haur Hezkuntzako ume guztiak joan ziren lasterketara batzen. Irati Bolinaga eta Josu Garmendia izan ziren lekukoa eramaten gazteenak. "Tipi-tapa, tipi-tapa Korrika!" oihi eginez sartu ziren lasterkariak herriko plazara.

Korrika Txikiaren mezua

Seigarren mailakoek irakurri zuten mezua: "Euskarak euskal herritarrok elkarrekin bizitzeko hizkuntza izan behar du. Elkarri hitzegiteko hizkuntza. Elkar entzuteko eta ulertzeko. Euskara denona da, eta denontzat izan behar du", zioen mezua.



Hirugarren eta laugarren mailakoak, Kantoikoan, Korrika Txikiaren zain. | L.Z.



Seigarren mailako ikasleak udaletxeko balkoitik mezua irakurtzen. | L.Z.

LEINTZ GATZAGA

Ibilgailuen gaineko zerga, apirilaren 30a aurretik

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Hilabete geratzen da trakzio mekanikodun ibilgailuei dagokien 2013. urteko zerga ordaintzeko; apirilaren 30a da horretarako azkeneko eguna.

Bi modutan ordain daiteke zerga hori: udal bulegoetara bertara joanda edo kontu korrontearen bitartez, Udalari alde aurretik emanda.

Zenbatekoari dagokionez, berriz, urte bereko abenduaren 31ra arte dagokion ehunekoa

kalkulatzen da hori jakiteko, ibilgailu motaren eta kategorien arabera. Edozein modutan ere, zerga horri dagokion errolda jendaurrean dago, gura duenak kontsultatu ahal izateko moduan. Udal bulegoetan egin daiteke hori.

Eta zerga ordaindu behar dutenek kontuan hartu beharreko beste datu bat da borondatezko epean (apirilaren 30a aurretik) ordaintzen ez diren fakturei gainkargua ezarriko dietela.

Gurelen batzar orokorra

Bestalde, Gurel elkartea burubelarri dabil 2013ko jardunari begira. Hainbat proposamen berri aurkeztu ditu elkarteko batzordeak. Tartean, aktibatu egin gura dute Leintz Gatzagako Udalaren webgunean elkartek duen lotura, Gureli dagozkion albiste eta bestelakoak bertan argitaratzeko. Horrez gainera, 2013an hilero ekimenean bat egiteko proposamena esku artean darabilte, eta gertu dute, baita ere, 2013ko aurrekontua eta egitarau osoa.

Horrekin guztiarekin aurrera egin aurretik, baina, gurasoen onespina beharko du Gureleko batzordeak.

ARAMAIO

San Martin eskola ere euskararen alde dagoela oihukatu zuten haurrek

Korrika Txikia egubakoitz arratsaldean heldu zen Aramaiora; 143 ume hartu zuten parte

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Korrika Txikia egin zuten egubakoitz arratsaldean San Martin eskolako haurrek. 15:15ak pasatxo irten ziren eskolako helduek Iturizuri kaletik eta, lekukoa mailaz maila pasa ostean, eskolan bertan amaitu zuten ibilbidea. Haurrak, nola ez, oso gogotsu; maisu zein andereñoek nahikoa lan izan zuten neska-mutikoak lasaitzen eta geldoago joan zitezela eskatzen.

Guztira 143 ikasle hartu zuten parte. Aitziber Zumalde aguazilak gidatutako Udaleko ibilgailu baten atzetik aritu ziren korrika; Korrikaren 18. edizioako abestiarekin batera, andereño bat animoak ematen aritu zen etengabe mikrofono-

tik. Korrika Txikia amaitu ostean, lekukoak gordetzen zituen mezuak irakurri zituzten umeek gurasoen aurrean eta gero txokolate-jana prestatu zuten guraso elkartek.

120 bat lagun kiroldegian

Haurren ostean, gazte eta helduek egin zuten bat Korrika-rekin. Bizente Goikoetxea plazan pare bat dantza egin ostean, trikitilariekin kalejira eta jaialdi handia izan ziren kiroldegian. 120 lagun inguru elkartu ziren herriko artisten saioak ikusteko: abesbatza, bertsolariak, musikariak, dantzariak... Aramaiok talentua barra-barra duela erakutsi zuen beste behin ere.



Korrika Txikia Pedro Ignacio Barrutia kalea zeharkatzen. | JOKIN BEREZIARTUA

ANTZUOLA

Lan aktibaziorako ikastaroa egingo dute

Apirilaren 8tik 22ra bitartean izango da eta izena eman beharko da hilaren 27a baino lehen

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA

Bidebarriko gizarteratze zerbitzuak lan aktibaziorako ikastaroa antolatuko du. Debagoieneko Mankomunitatearen eta KZgunearen laguntza izan dute ikastaroa antolatzeko. Egun bizi dugun egoeran beharrezkoa ikusi dute lana bilatzeko teknikak eta autoenplegua bezalako gaiak herritarrei erakustea.

Ondoko gaiak landuko dira

Ikastaroan ondoko hiru gaiak landuko dituzte: lana bilatzeko teknikak, *on line* bidez lana nola bilatu eta autoenplegua.

Ikastaroa apirilaren 8tik 22ra bitartean izango da, goizez, Orlanen eta KZgunean. Interea duenak gizarte zerbitzuetako bulegora jo beharko du martxoaren 27a baino lehen. Antolatzaileek azaldu dute pla-

za mugatuak izango direla. Hala ere, azaldu dute azken saioan, autoenpleguari buruzkoan, nahi duenak parte hartu ahal izango duela eta ez duela aurrez izena eman beharrik izango.

Erretiratuen antzerkia

Joan den astean Narrazioaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten; eta, horren bueltan, hainbat ekintza antolatu zituzten. Besteak beste, Ignazio Sanzen ipuin kontaketa izan zuten erretiratuen elkartean. Bada, etzi, eguaztena, erretiratuen eskutik antzerkiaren gozatzeko aukera egongo da. Oñatiko Ikusi-makusi antzerki taldeak *¿Dónde está la pierna del alcalde?* antzezlan eskainiko du Torresoroan, 17:00etan. Edonork izango du antzerkiera joateko aukera.

LASA JATETXEA

Zure ezkontza ospatzeko leku paregabea!



Ozaeta jauregia,
Zubiaurre 35 / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55

Bisita gaitzazu
www.restaurantelasa.es



- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera (eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.



Iturrieta sagardotegia

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
iturrietasagardotegia.blogspot.com

Eskaintza

- Egubakoitzetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua, eserita edo zutik.
- Bertako sagardoa ekologikoa Eusko Labelarekin.
- Sagardotegiko menua (txuletoi edo saiheskiarekin)
- Giro aparta zuzeneko musikarekin.



Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
www.santaanamondragon.com

Eskaintza

- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.



Uxarte jatetxea

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

Eguazten arratsaldeetan itxita



Wok Sheng Xing Yuan

Mugarrieta industrialdea 10, C-B pab. / San Andres auzoa
ARRASATE
943 79 90 29 / 629 41 59 58

Eskaintza

- Itsaski-janak.
- Frijituak.
- Plantxa.
- Sushia.
- Parrilladak.
- Menua, postrea barne.

10 menu hartuta, 1 DOAN.

KIROLA



Cañada, helmugara iristeko uanean. | JOSETXO ARANTZABAL

TXIRRINDULARITZA

Cuencako Cristian Cañada txapeldun Gorlako igoeran

- ▶ Taldekako sailkapenari dagokionez, Caja Rural izan zen garailea
- ▶ Lehen bergararra Jokin Etxabe izan zen, Debabarrena taldekoa

JON BEREZIBAR | BERGARA

Cuencako 22 urteko Cristian Cañada (Levante) izan zen domekan Gorlarako 34. igoerako irabazlea. Bigarren Arnau Sole (Campo Claro) iritsi zen helmugara, eta hirugarrena Seguros Bilbao taldeko Julen Amezketa

izan zen, kinietako faboritotako bat. Mendiko txapelduna Cañada bera izan zen eta taldeetan, ahalegin handia eginda, Caja Rural. Hain zuen, talde honek lan handia egin zuen igoeran –buruko tropelean kide gehien eurek izan zituzten–,

baina Cristian Cañadak azken igoerako aldatsean aurrea hartuta, harena izan zen garaipena. Lehen bergararra Jokin Etxabe izan zen, Debabarrena taldekoa.

Caja Ruralen lana

Lasterketaren jabe egiteko atara ziren Caja Ruralekoak eta talde denak egin zuen lana igoera osoan txirrindulariak lehen postuetan kokatzeko, baina, azkenean, laugarren geratu zen taldeko lehena, Ibai Salas.

Izan ere, Bergaratik gora, pelotoia euren bai, baina garai-penerako lehia podiuma osatu zuten hiru ziklisten artekoa izan zen. Cañadak ihes egin eta lasterketa erabaki zuen azken txanpa bizi batekin. 22 urte zapatuan bete berri, bi urte besterik ez daramatza Cuencakoak errepidean lehiatzen, beheko mailetatik pasatu barik, aurretik mendiko bizikletako probetan ibili baita.

Loïc Chetout lapurtarra ere izan zen domekako izenetako

bat. Helmugara hogeigarren iritsita, 23 urtez azpiko Lehendakari txapelketan, oraingoz, lehena da baionarra.

Ihesak eta tropela

Ihesaldi saiakera bat baino gehiago izan zituen atzoko lasterketak. Caja Rural eta Lizarte taldeen arteko norgehiagoka izan zen hasieran, Caja Ruralekoen nagusitasunarekin. Tropelean lehen banaketa Gorlarako aurreneko igoeran gertatu bazen ere, Zumarragara heldutakoan iheslariak harapatuta zeuzkan tropelak. Behin baino gehiagotan gertatu zen hori, azken igoerako ihesaldi erabakigarria arte. Bolun aurreratu ziren lehen hirurak Caja Ruralekoen gehiengoaren tropeletik eta orduan erabaki zuten podiuma. Cañada eta Soleren arteko lehiak, azken zatian segundo batzutatuko tartea ateratzen txapeldunak bigarrenari eta amaieran alde handituta, garaipen garbia izan zuen atzo Levante taldekoa.

SAILKAPENA

OROKORRA

1. Cristian Cañada (Levante)
2. Arnau Sole (Campo Claro)
3. Julen Amezketa (S.Bilbao)
4. Ibai Salas (Caja Rural)
5. Antonio Pedrero (Lizarte)
6. Jaime Rosón (Caja Rural)
7. Francisco Medina (C.Rural)
8. M.Ángel Benito (Caja Rural)
9. F. Moreira (R.Navarra)
10. Carles Ruiz (Levante)
11. David Dalmau (C.Claro)
12. Antonio Molina (C.Rural)
13. Fernando Grijalba (C.Rural)
14. V. Etxebarria (Naturgas)

MENDIKO IRABAZLEA

1. Cristian Cañada (Levante)

TALDEKAKOA

1. Caja Rural

CRISTIAN CAÑADA TXAPELDUNA

"Caja Ruralen mugimenduen zain egon gara zer egin erabakitzeko"

Cuencakoak Bolun ihesari ekin eta une horretan erabaki zuen lasterketa.

Erraza suertatu zaizu?


Lasterketan zer egin erabakitzeko Caja Ruralen mugimenduen zain egon gara. Horren arabera ekin diot nik ihesari. Aukera ikusi dudanean, birritan pentsatu barik, saiakerari ekin diot eta lortu.

Caja Ruralek zuzendu du, hortaz, lasterketa?

Lasterketa euren kontrolpean egon da ibilbide guztian zehar. Horregatik denbora guztian eurek zer egingo zuten begira ibili gara.

Azken zatian aurrea hartu eta gogor ekin diozu amaierara arte.

Nire aukera zen eta bermatu beharra neukan. Banekien esprinta nire aukeretako bat zela baina, bada ezpada ere, ez diot ihes egiten utzi.



ARNAU SOLE
CLUB CAMPO CLARO

"Ibilbideko zati lauean lasai ibili gara baina Gorlara igotzea gogorxeagoa egin zaigu. Ni amaiera aldera sartu naiz lehiak; poliki-poliki tropela harrapatu eta aurrera egin dut gutxika".



LOÏC CHETOUT
NATURGAS

"Gustura egin dut lasterketa. Ezagutzen nuen igoera eta banekien gorako bidea gogorra izango zela, baina nire indarguneetako bat da mendia eta, horregatik, lan gutxiago izan dut".



Maidar Unda oletarra eta Natalia Vorobeva errusiarrak Europako finalean, lehia bizian. | EFE

BORROKA

Maidar Unda Europako txapelkunorde, lehen aldiz

Natalia Vorobevaren aurka galdu zuen Undak finalean: "Haren borrokatzeko erari ezin diot eutsi oraindik", dio

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO

Natalia Vorobeva errusiarrarekin ezin izan du Maidar Unda aramaiorak. Errusiako borrokalariak ez zion inongo aukerarik eman Oletakoari egubakoitzean Tbilisin (Georgia) jokatu zen Europako txapelketan: 4-0 eta 2-0 izan zen azken markagailua. Hala ere, pozik egoteko arrazoiak baditu Undak. Izan ere, zortzi alditan parte hartu ostean oraingoa izan da lehen aldiz, 72 kilotako modalitatean, Europako txapelketan zilarrezko domina lortu duena. Madrileren heldu berri harrapatu genuen atzo eta aitortu zigun pozik zegoela egindako lanarekin: "Banekien finala ez zela erraza izango. Ez zidan nire lana egiten utzi eta ezin izan nuen irabazi.

Hala ere, pozik nago egin dudako txapelketarekin". Oraingoz ezin dio errusiarrari irabazi: "Haren borrokatzeko erari ezin diot eutsi oraindik. Denboraz analizatu beharko da baina gaur egun oso aurkari gogorra da niretako", adierazi zigun atzo Undak.

Londresko aurkari berbera

Finalera heltzeko Epp Mae estoniarra eta Vasilisa Marzaliuk bielorrusiarrak menderatu behar izan zituen Undak. Londresko joko olinpikoetan brontzezko domina janzteko aurkari bera izan zuen finalerdietan, Vasilisa Marzaliuk bielorrusiarrak: "Banekien errebantxarako gogoia izango zuela Londresen garaitu nuelako, eta beraz, nire lana ondo

egitea ezinbestekoa zen. Kosta zitzaidan, baina lortu nuen irabaztea". Kontrolpean izan zuen lehia; azken markagailua, 1-0 eta 1-0.

Gaur, lanera buelta

Zilarrezko domina irabazi izana ospatzeko ia denborarik gabe gaur bertan lanera bueltatuko da Aramaioko borrokalariak: "Bihar [gaur] lana daukat, oso goiz hasita. Ahizpa bakarrik dago lanean eta desiratzen egongo da ni ere lanean hasteko. Hori bai, hiru egunez gogor lan egin ostean espero dut Aste Santuan lasaia ibiltzea", adierazi zigun atzo, Madrileren heldu berri. Orduan izango du lorpenaz gozatzeko aukera. Zorionak Maidar!

ARETO FUTBOLA

Aldatz txapelkun Zaldibarko Kopan

Aldatz da Zaldibarko Kopako txapelkun berria, Iluntzi irabazi ostean. Aspaldian ikusi ez diren emozioa eta tentsioa izan zituen lehiak. Aldatz 4-0 zihon irabazten baina Iluntzek buelta ematea lortu zuen, eta arauzko denbora bosnako berdinketarekin amaitu zen. Penalti jaurtiketetan erabaki behar izan zen txapelketa. Zorionak bi taldeei!



JOKIN BEREZIARTUA

TXIRRINDULARITZA

Castillo de Onda taldeko Jaime Sureda mallorkarra izan zen azkarrena Uzarragako igoeran

J.B. | ANTZUOLA

Zapatuan jokatu zen Uzarragako igoeraren 39. edizioan Jaime Sureda mallorkarra izan zen azkarrena. Ez zegoen faborito nagusien artean, Joseba Lezeta antolakuntzako kideak adierazi duenez: "Iban Garcia Espainiako txapelketa izan zen faborito nagusia. Garciaren ezean, Specialized taldeko txirrindulariek ere aukera handiak zituzten baina azkenean Suredak irabazi zuen. Esan daiteke sorpresa izan zela Suredaren garaipena".

Specialized delako taldeak selekzio baten moduan funtzio-

natzen du; Alberto Contadorrek sortutako taldea da.

Azken txanpan eraso jo

Txirrindulari onenez osatutako taldetxo bat heldu zen Uzarragako portura eta igoerako azken txanpan eraso bortitza jo eta iheskideak atzean uztea lortu zuen Suredak, bakar-bakarrik helmugaratuz. 16 urte ditu Mallorkako ziklistak.

Antolatzaileak pozik daude lasterketak izan zuen parte-hartzearekin. Izan ere, 175 txirrindulari irten ziren eta horietatik 121ek lortu zuten helmugara heltzea.



Jaime Sureda helmugan, garaipena ospatzen. | JOSEBA LEZETA



TXIRRINDULARITZA

JULEN IRIONDO

Parte-hartze altua Oñatiko proban

Gaztetxoek errepidea ezagutzea helburu zuen ziklismo proba jokatu zen zapatuan Oñatin. Parte-hartzearekin pozik agertu ziren antolatzaileak: alebinitan 42 txirrindulari, infantiletan 31 eta 10 urte baino gutxiagokoen mailan 14. Mondragon Unibertsitatearen inguruan kokatu zuten zirkuitua; mailaren arabera, itzuli kopuru ezberdina.

ATLETISMOA

Marisol Ramosek zilarrezko domina lortu zuen atzo bost kilometroko krolean, Europako txapelketan

Marisol Ramosek zilarrezko domina lortu zuen atzo bost kilometroko krolean. 1.500 metroko lasterketan, berriz, bosgarren amaitu zuen bost minutu eta 14 segundoko markarekin. Ramosekin batera beste hiru oñatiarrek hartu dute parte proba ezberdinetan: Jose Luis Garcia, Ramon Varela eta Juan Carlos Ugartek. Txapelketan dagoen "maila altua" nabarmendu zuen Ugartek. Bestalde, Mari Jose Gil arrasatearrak brontzezko domina irabazi zuen 800 metroan, hiru minutu eta 45 segundoko markarekin.

OHOREZKO ERREGIONALA

Aukera, joko eta golik gabeko derbi aspergarria Agorrosinen

Defentsako lana gailendu zen erasokoaren aurrean; lehia borrokatua nagusi

EMAITZA

BERGARA

0-0

ALOÑA MENDI

FITXA TEKNIKOA

Bergara: Lopez, Apellaniz, Beretxinaga (Plazaola 89. min), Nafarrate, Urrutia, Iñurieta, Crespo (Lazkano 85. min), Aranburu, Macho (Retes 85. min), Balzategi (Elorriaga 75. min) eta Valerio (Linazisoro 65. min).

Aloña Mendi: Aginagalde, Etxeberria, Olalde, Lazkano, Irizar, Zubia, Aritz Garmendia (Millas 80. min), Moreno (Kortabarria 45. min), Biain, Juaristi eta Lertxundi (Irizar 60. min).

Bestelakoak: Derbi bat izateko ohi baino jende gutxiago harmailetan.

JOKIN BEREZIARTUA | BERGARA

Derbi aspergarria jokatu zuten zapatuan Bergarak eta Aloñak Agorrosinen (0-0). Gol aukera gutxi eta tratatutako jokoa nagusi. Defentsako lana gailendu zen erasokoaren aurrean, eta arrisku apurra baloi geldiko jokaldietan sortu zuten bi taldeek.

Aloña Bergara baino hobeto aritu zen orokorrean, baina oñatiarrek beste behin erakutsi zuten erasoan ez dabilzala batere fin. Bergarako aurrela-



Bergarako Jokin Baltzategi eta Aloñako Iker Olalde eta Aritz Garmendia baloia harrapatu nahian. | IMANOL SORIANO

riak ere eskas aritu ziren; mahoneroen erasoko jokoa antolatzeaz arduratzen den Jokin Baltzategik ez zuen eguna izan. Berdinketa justua izan zen, inork ez zuelako partidua irabazteko meriturik egin. Puntuarekin konformatu ziren bi taldeak.

Gol bat baliogabetuta

Lehen zatian Bergarak baloi gehiago izan zuen. Mahoneroen jokaldi aipagarrienen artean Pedro Valerioren eta Iñigo Machoren jaurtiketa ahul bana aipatu behar. Aloñarendako lehen zatiko aukera garbiena Una Bikuñak izan zuen; Mikel Aginagalderen ateko sake baten ostean Bergarako defentsek

gaizki urrundu eta bakarrik geratu zen; jaurtiketa, baina ez zen ona izan. Bigarren zatian ere antzeko dinamikan jarraitu zuen norgehiagokak. Aloña hobeto irten zen eta lehen zatian baino gehiago izan zuen baloia. 13. minutuan heldu zen partiduko jokaldirik bitxiena: Aloñaren aldeko korer batean baloiak sarean amaitu zuen baina epaileak baliogabetu egin zuen errematea eskuz egin zuela iritzita. Epaileak, baina, ez zuen ikusi zein jokalaria izan zen baloia eskuarekin ukitu zuena. Gero, azken txanpan, nekeak eraginda, zertxobait zabaldu zen jokoa baina orduan ere ez ziren aukerak iritsi.

IGOITZ RETES BERGARAKO JOKALARIA

"Partidu gogorra izan da, espero genuen moduan"

Partidua nola joan zen ikusita puntua ona zela esan zigun Igoitz Retes Bergarako erdilariak.



Puntua ona al da?
Ona dela esan behar. Partidu gogorra izan da, espero genuen moduan. Bagenekien indartsu etorriko zirela eta lehia nola joan den ikusita, puntu batekin konformatu behar.

Nola ikusi duzu Bergara?
Lehen zatian hobetoxeago aritu gara. Bigarrean, berriz, ez dugu gure maila eman. Bi taldeak ibili gara gaizki erasoko jokoa eta ez da eraso aukera garbirik. Aloñak talde sendoa eta gaztea du; oso ondo jokatzeko dute futbolearen. Geratzen diren partiduetan goiko postuetan jarraitzeko borrokatuko dugu.

ARITZ GARMENDIA | ALOÑA MENDIKO JOKALARIA

"Erasoan ez dugu aukerarik sortu"

Erasoan hobetu beharra dutela aitortu zigun Garmendiak.

Puntua ontzat ematen duzue?

Kanpoan jokatu dugu eta Bergara denboraldi ona ari da egiten. Puntua ez da txarra.

Nola ikusi duzu partidua?

Derbiak beti izaten dira nahiko eskasak joko aldetik. Aukera gutxi-ko partidua eta gogorak izaten dira eta gaur [zapatuan] ere hala-



xe izan da. Atzean ez gara gaizki ibili, baina erasoan ez dugu aukera larregi sortu. Berdinketa justua izan da.

Zelan aukaria?
Oso talde gogorra da.

Atzean oso jokalarionak dituzte, buruz oso ondo doazenak. Oso lehiakorrek dira. Orain, etxean ditugu bi partidua jarraian eta bi horietan garaipena lortzea izango da lehentasuna.

OHOREZKO ERREGIONALA

Tolosaren aurka defentsan egindako akatsak garesti ordaindu zituen Mondrak: 4 eta 0

Porrot mingarria jaso zuen atzo Mondrak Tolosan. Izan ere, lehenengo zatian defentsan egindako akatsen ondorioz, bi gol jaso zituen. Bigarren zatian, berriz, norgehiagoka berdintzeko lehenengo ahaleginak egin zituzten zerrajeroek eta gola sartzeko bi aukera on izan zituzten. Lutxo Iturrinoren mutilek indar guztiak erasoan jarri zituzten eta talde zuri-morearen defentsan zuloak sortzen hasi ziren. Horrelako jokaldi batean epaileak txartel gorria atera zion Erik Justeli eta, jokalaria bat gehiagorekin, Tolosak bi kontraeraso aprobetxatu zituen bi gol sartzeko.

OHOREZKO ERREGIONALA

Epaileak baldintzatutako porrot mingarria jaso zuen Aretxabaletak zapatuan Hondarribiaren kontra

Aurkako bi penalti adierazita eta bi jokalaria gutxiagorekin bukatu zuen zapatuan UDAk Hondarribian. Bukatu baino askoz hobeto hasi zen norgehiagoka, izan ere, lehenengo zatian Aretxabaletak baloiaren jabetza izan zuen eta baita bi gol aukera garbi. Lehenengo amaitsu bezala hasi zen bigarren zatia, hau da, UDAk baloiaren jabetza izan zuen. Halako baten Aitor Perezek 0-1eko egina zuen. Gero, epaileak penaltia adierazi eta Beñat Etxabe atzelaria kaleratu zuen. Ondoren, Iban Hernandezi ere txartel gorria atera zion, beste penalti bat adierazi ostean.

ERREGIONAL PREFERENTEA



Hiruna berdindu zuen Antzuolak Mutrikuren aurka

Antzuolak ezin izan zuen beste garaipen bat erdietsi Ohorezko Erregional mailara igotzeko bidean. Juanina Garaiaren mutilek hiruna berdindu zuten Estalan saikapeneko laugarren postuan dagoen Mutrikuren aurka. Lider jarraitzen dute antzuolarek baina orain bi puntutara dago bigarren saikatua, Ordizia. Hala, orain arteko lau puntuko aldea galdu dute dagoeneko; hori bai, oraindik ere euren eskuetan dago igoera lortzea.

IMANOL SORIANO

ESKUBALOIA

Igoera fasea jokatzeko txartela eskuratu du Ford Mugarrik

- ▶ Arrasatearrak 28 eta 21 garaitu zuten Soraluze BKE Iturripeko derbian
- ▶ Irabazita, matematikoki sailkatu da Pablo Gartziaren taldea igoera fasea jokatzeko

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Partidu bizia jokatu hartu zuen Ford Mugarrik menpean Soraluze BKE zapatuan; 28-21 erakusten zuen markagailuak epaileak amaiera adierazi zuenean. Garai-pena erdietsita, igoera jokatzeko txartela eskuratu zuen etxeko taldeak modu horretan.

Arrasatearrak, aurretik

Arrasateko Iturripeko kiroldegia hartu zuen eskubaloiko derbia.

Hasieratik ikusten zen norgehiagoka gogorra izango zela, bizia bai, behintzat.

Arrasatearrak ipini ziren aurretik markagailuan. Atsedena iristean, sei goletako aldea ateratzen zieten sarrailagileek bergararrei (14-8). Bigarren zatian, baina, gogotsu irten ziren bisitariak jokalekura, eta partidua zailtzen joan zitzaion Ford Mugarriri. Hori horrela, ez zuten erraza izan garaipenerako bidea

etxeko jokalariek, eta taldeak azken minutura arte sufritu zuen irabazteko. Bergararrak golez gol gerturatzen joan ziren, baina ez zuten egunik onena izan Muniategiren mutilek eta Txabarrik ere ongi zaindu zuen atea.

Gogor borrokatu zuten jokalariek derbian. "Eskubaloia kontaktu kirola da, baina ez da aparteko gertaerarik jazo". Hala adierazi zuten epaileek partidua amaieran.



Begararrak erasoan Iturripen jokaturako derbian. | IMANOL SORIANO

AITOR TXABARRI
FORD MUGARRI

"Azken minutura arte borrokatu dugu garaipenagatik"

Ford Mugarriko atezainak derbiaren inguruan egin zigun berba partidua amaieran.

**Nolako partidua izan da?**

Hasieran erraza izango zela ematen zuen. Bospasei golen aldearekin aurretik ipini gara, baina badakigu nolako den Bergara, sekula etsitzen ez duen horietakoa da. Korrika asko egiten dute, fisikoki oso ongi daude eta amaierara arte oso ongi ibili dira. Azken minutura arte borrokatu dugu garaipenagatik.


Igoera fasea jokatzeko bermatu duzue.

Konfiantza handia dugu gure buruan. Noski, liga irabazi gura dugu eta hurrengo norgehiagoketan hori lortzen saiatuko gara.

JOSU AGIRRE
SORALUCE BKE

"Gakoa hasieran egon da, hor ateratzea digute aldea"

Derbiaren amaieran Josu Agirrek partidua bere ikuspuntutik kontatu zigun.

**Gogorra izan al da derbia?**

Bai. Nik uste dut gakoa hasieran egon dela, aurreko minutuetan logeundela ematen zuen eta hor ateratzea digute aldea Ford Mugarriko jokalariek; zoritxarrez, martxa hori segitu dugu partidu osoan zehar.

Dena dela, bigarren zatian motibatuago ikusi zaituztegu.

Bai. Bigarren zatia hobea izan da zalantza barik. Gainera, bazirudien arrasatearrak harapatzeko gai izango ginela, baina azkenean ez dugu lortu. Aurkaria zoriondu besterik ezin dut egin.

EUSKAL HERRIKO AEROBIK TXAPELKETA

Arrasate Dragoi taldekoak Espainiako aerobik artistiko txapelketarako sailkatu dira

Maiatzaren 3tik 5era bitartean Zaragozan egingo den Espainiako Txapelketan parte hartuko dute

ZURIÑE V.D.M. | ARRASATE

Euskal Herriko aerobik artistiko lehiaketa egin zuten domeka goizean Arrasateko Musakolako kiroldegian. Arrasate Dragoi eta Gasteizko Biribildu taldeetako kideak aritu ziren norgehiagokan. Erakustaldi bikaina eskaini zuten eta arrasatearrak Espainiako txapelketara joateko aukera edukiko dute modu horretan.

Maiatzean Zaragozara

Arrasate Dragoi taldeko Edurne Elkoro pozik agertu da: "Emaitza onak lortu dituzte taldeek eta denak sailkatu dira estatu maila-

ko txapelketarako". Gustura agertu da baita ere ikusle kopuruarekin: "Iaz Mungian egin zen eta oso jende gutxi bertaratu zen. Atzo harmailak lepo bete ziren eta horrek parte hartzaileak motibatu zituen".

Gipuzkoan aerobik artistikoa egiten duen talde bakarra da Arrasatekoa: "Gogor lan eginda eta baldintza batzuk beteta, Zaragozan lehiatuko gara". Domina ugari banatu zituzten atzo kiroldegian: urrezko hiru, zilarrezko hiru eta brontzezko bat jaso zuten arrasatearrek, banakako zein taldeko erakustaldietan.



Aerobik artistikoa egiten. | ZV.D.M.



Gasteiztarrek lurreko ariketa egiten. | ZV.D.M.



Emaitzak jakin aurretik egindako desfilea. | ZV.D.M.



Taldeko, arrasatearrak lehenengo postuan. | ZV.D.M.

EBA LIGA

Desesperaziotik umore onera aitaren baten, lider amaitzeko aukera sendotuz

Minutu askoan partidutik kanpo egoteko joera arriskutsua erakutsi zuten, beste behin, oñatiarrek, nahiz erreakzioa garaiz iritsi zorionez

EMAITZA

NATRA OÑATI

80-71

U.VALLADOLID

FITXA TEKNIKOA

Natra Oñati: Gamarra, Gartzia (26), Cavada (11), De la Iglesia (19), X.Osa (7) –hasierako bostekoa–, Zeziaga (2), Zabaleta (1), Kintana (11), Lizarralde, Biain (1) eta Odrizola (2).

U.Valladolid: Esteban, Lobato (22), Gonzalez (4), Sarmiento (7), Collado (2) –hasierako bostekoa–, Lopez, Marcos (3), Viruega (12), De la Fuente (15), Alvíte, Martínez (6) eta Encinas.

Laurdenetako emaitza: 15-23 lehenengoan; 34-43 atsedendian; 58-58 hirugarrenean; 80-71 amaieran.



Josean Cavada jaurtiketa egitera. | IMANOL SORIANO

GORKA KINTANA
NATRAKO JOKALARIA

"Gehien behar genuenean sartu egin dira, eta eskerrak!"

Hiruko erabakigarriak egin zituen.

Asko okertu dena zuzendu duzue.

Nahikoa erlaxatuta atera gara eta konturatu orduko 18 behera gindoazen. Bagenekien zerbait egin edo galdu egingo genuela. Geure merituei eta eurek egin dituzten huts ugari esker irabazi egin dugu.

Jaurtiketa errazak egiten zituzten, eta errebotea euren hasieran.

Batez ere, errebotean izan dira gehiago. Indar eta garaiera asko zuten eta min handia egin digute; bigarren aukera asko izan dituzte.

Zuk, eskumuturra fin une erabakigarrian.

Beti ez dira sartzen. Gaur, gehien behar genuenean, sartu egin dira, eta eskerrak!



IMANOL SORIANO

JULEN IRIONDO | OÑATI

Xabier Osa lurrean etzanda zegoen bikia igotzen zitzaioa-eta, hori ez gertatzeko ahaleginean; eta Asier de la Iglesia, Valladolideko jokalaria bat ere bertan zela: "Atsedean hartu nahi du". De la Iglesia kantxatik ateratzeko, eta Osak ezin zuela: "Ba irten hadi arrastaka, jendea aspertu egiten da-eta zain", De la Iglesia.

Valladoliden kontrako partiduko azken minutuak ziren, eta Natra Oñatik 10 puntuko aldea bazuen ordurako, gorriak ikusi eta gero; minutu batzuk lehenagoko etsipena umore bilakatu zen. Lehiaren zati handi batean itzalita egon ostean, denboraz piztu zen talde oñatiarra.

Bi zati oso desberdin

Atsedendiaurreko eta ondorengo minutuak mugari izan ziren Eneko Blancoren zuten korapiloa askatzeko: 18 puntu atzetik ere joan ostean, Cavadak bi jaurtiketa libre saskiratu –partiduko gakoetako bat, 23 sartu zituzten-eta 30etik, ia denak Gartzia, De la Iglesia eta hiruren artean– eta 9 puntuan geratu zen aldea, 34 eta 43, 10eko muga psikologikotik behera.

Aldagelatik bueltan, gehiago gerturatu zen Natra Asier de la Iglesia 2 gehi 1eko batekin, eta bi puntura jarri kanpoko jokalaria bati eta entrenatzaileari protesta egiteagatik adierazitako teknikak aprobetxatu eta 6 pun-

tuko jokaldia egin eta gero. Berriz ere joan ziren Valladolidekoak 9 gora, baina hiru eraso jokalditan beste hainbeste hiruko egin –Gartzia, Osak eta Kintana–, eta 58na amaitu zen laurdena.

Laugarren hiruko bat kateatu zuen Kintanak azken laurdenean hasieran, eta, azken zortzi minutuetan sartuta, De la Iglesia eskumutur finak jarri zuen aurretik Natra, 65 eta 63. Oñati-koak nagusi ziren errebotean, uztai azpira baloi onak sartuz; eta horri gehitu hirukoekin lehentxeago izandako bolada ona. Aurkaria, berriz, kamuts. Partiduaren zati handi batean eurek ondo egindako guztiak ari zitzaizkien euren jaurtiketarako.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatzak mendean hartu zuen Atletico San Sebastian, 55 eta 51

Hirugarren laurdenean 12 puntuko aldea ere lortu zuten Rasoren neskek

ANDER MONEDERO | ESKORIATZA

Zapatuan, sailkapeneko lehenengo lau taldeen artean geratzeko garaipen garrantzitsua lortu zuen Eskoriatzak. Izan ere, Rasoren neskek sailkapeneko bigarren postuan zegoen Atletico San Sebastian taldea menderatzea lortu zuten.

Intentsitate handiarekin hasi zuten partidua eskoriatzarrek eta, hasi eta berehala, 10 puntuko aldea lortu zuten. Eskoriatzako neskek eraso lan ona egin zuten, eta defentsako lana are

hobea izan zen. Donostiarrek ia ez zuten bi puntuko saskiratzerik egitea lortzen eta hiruko lerrotik saiatzera behartuta ikusi zuten euren burua.

Nahiz eta ia partidu osoan zehar markagailuan zuten abantaila mantendu, norgehiagokaren azken minutuetan Rasoren neskek urduritu eta donostiarrak lau puntura gerturatzeko gai izan ziren. Distantzia murriztearekin batera, partidua zailzen joan zen eta, azkenean, etxeko taldea partidua bukatzeko zain egon zen.

Zapatuko garaipenarekin, zail egon arren, lauko finala jokatzeko aukera gehiago dituzte eskoriatzarrek.

Bedia, Hondarribia-Irunekin

Izar Bedia junior taldeko jokalaria Hondarribia-Irunekin entrenatuko du gaur eta eguaztenean. Nahiz eta junior mailako jokalaria izan, senior mailako taldearekin jokatzen du Bediak eta, aste honetan, mailarik altuenean dagoen talde gipuzkoarrarekin entrenatzeko aukera izango du.

LEHENENGO MAILA

Zarauztik esku hutsik bueltatu zen MU, 76 eta 74 galduta

ANDER MONEDERO | ARRASATE

Bigarren eta hirugarren laurden ezin hobek egin arren, Mondragon Unibertsitateak ezin izan zuen Leihoak Zarautzen aurkako norgehiagokan jokoan zegoen garaipena eskuratu.

Partiduaren lehenengo minutuetan etxeko taldea intentsitate handiarekin hasi zen, eta MUK ezin izan zien Zarautzen erasoaldiei eutsi. Baina minutuek aurrera egin ahala, Josu Larreategiren mutilak partiduaren erritmoa kontrolatzen hasi ziren eta markagailuko aldea murrizten joan zen.

Bigarren laurdenean, berriz, MUK duen ahala erakutsi zuen eta partidua berdindu eta emaitzari buelta ematea lortu zuen. Atsedendia ostean, Larreategiren mutilek taldearen aurpegirik onena erakusten jarraitu zuten eta laurdenean bukaerarako MUK 16 puntuko aldea lortu zuen.

Azken laurdenean, gaizki

Azken laurdenean, etxeko taldeak erreakzionatu egin zuen eta arrasatearrek zuten 16 puntuko aldea ez zen nahikoa izan partidua irabazteko. Zarautzarrek partidua galtzeko aukera asko zituztela jakin, zuten indar guztia erasoan jarri eta ondo irten zitzairen: pixkanaka izan bazen ere, markagailuan zegoen aldea murrizten joan ziren eta partidua berdintzea lortu zuten. Lehia bukatzeko segundoak falta zirenean, Zarautzek 2 puntuko aldea lortu zuen eta nahiz eta norgehiagokaren azken baloi jabetza MURENA izan, ez zuten azken segundotan saskiratzerik egin.



Eskoriatzako neskek lan handia egin zuten zapatuan. | IMANOL SORIANO

DUATLOIA

Iker Arkauz | Gazte mailako Gipuzkoako txapeldunordea eta Euskadiko hirugarrena

"Duatloietan korrikako sektoreak dira inportanteak, eta hori hobetu beharra daukat"

- ▶ Gipuzkoako txapeldunorde izan zen Eibarren, Euskadiko hirugarren, asteburuan, Ermuan
- ▶ Benjaminetan Aloñako taldeekin hasi zen errepidean; egun, Oñati Triatloi Taldeko kide da

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Iker Arkauz (Oñati, 1994) txikitatik ibili da bizikleta artean. Hasieran, ikusle moduan. Etxekoekin ziklismo probak ikustera joaten zen. Gero, bizikleta gainean. Ziklismoa eta ziklokrosa egin ditu. Lesio baten ondorioz azken hori utzi, eta, egun, duatloietan dihardu. Lehen urtea du, baina emaitza oso onak lortu ditu. Besteak beste, gazte mailako Gipuzkoako txapeldunorde izan zen Eibarko duatloian, eta hirugarren, asteburu honetan, sprint distantziako Euskadikoan, Ermuan. Lasterketa honen aurretik izan ginen berarekin.

Lehen urtea izanda ere, etxeko duatloian ezin zenuen hutsik egin. Zer moduz Oñatiko proban?

Askotariko sentsazioak izan nituen. Korrikako lehen sektorean tripako minarekin hasi nintzen. Kilometro batzuetan larri egon nintzen. Bizikletako tartean erreperatu egin nintzen, eta azken sektorea gustura bukatu nuen. Oro har, lan ona egin nuela esango nuke. 2.10.54 egin nuen. Gazte mailako duatleta onena izan nintzen, eta pozik nago.

Tripako minarekin, ez zenuen proba uztea pentsatu?

Bai, burutik pasa zitzaidan. Baina, etxeko proba izanda, familia eta lagunak nituen animatzen, eta ezin nuen halakorik egin.

Lehenengo urtea duzu duatloietan eta dagoeneko Gipuzkoako txapeldunorde zara!

Bai, horixe dio Eibarko duatloian lortutako bigarren lekua [Barre]. Dena den, aurtengo helburua duatloi mundua ezagutzea da. Probak ezagutu, distantziak neurtu eta esperientzia hartu.

Baina orain arte lortutako emaitzak ikusita, gehiago eskatzen diozu zure buruari?

Orain arteko emaitzekin gustura nago, baina badakit nik baino azkarrago korrika egiten duten duatletak daudela. Nire ustez, korrika sektoreak oso inportanteak dira. Korrika ondo egiten baduzu, bizikletan ondo ibiliko zara. Korrikako sektorean galtzen den denbora bizikletan berreskuratzea oso zaila izaten da.

Eta nola moldatzen zara korrika? Hobetu beharra daukat [Barre]. Duatloietan korrika sektoreak dira gakoak eta arlo hori asko landu beharko dut oraindik.

Duatloietan hasteko Oñati Triatloi Taldean sartu zinen. Zure kontura entrenatzen zara?

Ez. Migel Angel Igartuak antolatzen dizkit entrenamenduak. Korrika eta bizikleta saioak egi-



Iker Arkauz, bizikletarekin, martitzeneko entrenamendua hasi aurretik. | MIREIA BIKUÑA

ten ditut. Astean, egun bat hartzen dut atsedean. Gainerako guztietan entrenamendua izaten dut.

Oraingoz, sei duatloi egin dituzu. Zenbat egingo dituzu aurten?

Lehenengo urtea izanda, duatloiak probatzen nabil. Guztiak dira ezberdinak. Distantzian, eta korrika eta bizikleta gainean egin behar diren sektoreetan. Denboraldia bukatzeko geratzen diren gehienetan parte hartuko dut. Hurrengo urtean, gustukoenak aukeratuko ditut. Bestalde, aste bukaera batzuetan bi duatloi

"Egun baten izan ezik, gainera guztietan entrenatzen naiz"

"Triatloiak? Zergatik ez, baina igeriketa hobetu beharko nuke"

egoten dira: zapatuan eta domekan. Bakarra egingo dut. Behin egin nituen distantzia motzeko bi duatloi jarraian, eta nekatuta bukatu nuen.

Euskadiko duatloiak zirkuiturako puntuagarriak dira. Orain arte lortu dituzun emaitzak kontuan hartuta bigarren lekuan zaude sailkapenean.

Oraingoz, bai. Duatloietan batutako puntuekin sailkapen orokorra egiten da. Dena den, Nafarroako duatloi baten parte hartu beharra daukat puntuak gorde-

tzeko. Aste bukaeran egon naiz Nafarroako baten.

Noiz hasi zinen bizikletarekin?

Benjamin mailan. Bizikleta gainean hasi aurretik, gurasoekin proba dezente ikustera joaten nintzen. Hasieran, baina, bi kirol egin nituen batera: ziklismoa eta atletismoa. Biak nituen gustuko, baina azkenean bizikleta aukeratu nuen. Aloña Mendiko taldean ibili nintzen. Maila guztietan.

Errepidetik ziklokrosara egin zenuen salto?

Ziklokrosa gustuko nuen. Mariano Altubek eta Ander Altubek parte hartu izan duten proba askotan egon izan naiz aitarekin. Altubetarrak euren kontura ibiltzen ziren probetan, eta lehen urtean ni neu ere nire kontura ibili nintzen. Aita nirekin etortzen zen probetara. Babesle bila hasi eta Oñati Arrikrutz taldea osatu zen. 2011n aurkeztu zuten taldea, eta orduan bost txirrindulari geunden: Maider Usandizaga, Aitor Umerez, Xabier Aias-tui, Iker Alberdi eta bostok.

Oso ezberdinak dira ziklismoa eta ziklokrosa?

Bai, oso ezberdinak. Txirrindularitzako probak luzeak izaten dira. Adin tartearan arabera, luzera ezberdineko probak dira. Ziklokrosa leherkorragoa da: ordubetean, barruan daukazun guztia eman behar duzu. Ibilbideak ere oso bestelakoak dira: errepidean euria egin dezake, edo haizea ibili; baina ziklokroseseo ibilbideetan, lokatza, putzuak eta beste hainbat ustekabe egon daitezke.

Ziklokrosa utzi eta duatloietara. Hirugarren aldaketa. Zergatik?

Bi urte egin nituen ziklokrosean. Adinagatik, amateur mailarako saltoa egin behar nuen errepidean. Kategoría horrek beste maila bateko exijentzia eskatzen du: ordu asko, sakrifizio handia... Gainera, bizikletaz gain beste kirol batzuk ere gustuko ditut: igeriketa, korrika egitea, mendian ibiltzea... Ez nuke guztiak egiteko denborarik izango. Bestalde, iazko denboraldi bukaeran, jausi egin nintzen eta min hartu nuen belaunean. Ziklokrosean asko sufritzen dute belaunek. **Igeriketa gustuko duzu. Triatloietarako jauzia egingo duzu?**

Triatloiak probatu gura ditut, eta aurten egingo dut. Baina, igeriketa gustuko izan arren, ez nabil oso fin. Igerilekuan hobetu egin beharko dut. Probaren arabera, igeriketako sektoreak asko aldatzen dira.

Beristain: "Ahal dugun ondoen egiten dugu, ez gara perfektuak"

Manex Beristain psikomotrizista hurrei desioa pizteaz mintzo zaigu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Winnicott (1896-1971) pediatria ingelesa abiapuntutzat hartuta, gurasotasunaz eta perfektioaz mintzo zaigu Manex Beristain psikomotrizista *Guraso.com* atarian. "Imajinatu haur bat non bere beharrak uneoro beteak diren, berak eskatu aurretik. Haurrari ez genion utziko bere faltak edo hutsuneak identifikatzen, eta pixkanaka horiek betetzen joateko estrategiak eraikitzen (...). Auto-erregulatzeko gaitasuna itzaltzen joango ginateke", dio Beristainek. Psikomotrizistaren esanetan "ez gara perfektuak, ezin dugulako izan, eta ez dugulako perfektuak izan nahi (...). Ahal dugun ondoen

egiten dugu, ateratzen zaigun bezala, eta maitasuna badago tartean haurra aurrera joango da".

Desioa piztuta mantendu

Guraso batek bere umearen oinarriko beharrei erantzun behar diela dio Beristainek, baina ez uneoro. "Dena daukanak eta eskatu gabe jaso duenak gaitasun asko garatzeko aukera galtzen du", ohartarazten du. Horrekin batera, haurrari maitasun eta ziurtasun giroa eskaini behar zaiola azpimarratzen du, eta adibide batzuk ematen ditu. "Titia eman aurreko segundo horiekin jolastu: eman eta kendu... piztu desioa. Zerbait lurrera botatzen duenean segituan

eman beharrean jolastu begiradarekin, eta jarri hitza ekintza horri. Beste gela batera goazela eta bakarrik geldituko dela une batez: hitz egin diezaiokegu ozen. Behar beste denbora eskaini, baina uneoro haren gainean egon gabe".

Ez izan perfektuak

Beristainek argi dauka: ez gara perfektuak, eta ez da komeni, gainera. "Beraz, ez izan perfektuak. Egin ahalik eta ondoen. Haurrak bere hutsuneetan eskertuko digu ama edo amaren irudia den pertsona horren ziurtasuna eta dedikazioa. Betiere, maitasun giroan".



Haurrak jolasean ur putzu handi batean. | PATTOUNE



Neskatala negarrez. | GWR

Itxaroten ikasi egiten da eta irakatsi egin behar da

Pazientzia landu egiten den gaitasuna dela dio Sara Tarres psikologoak, eta eredu izan behar dugula

L.Z. | ARRASATE

Pazientzia. Estima handian dugun gaitasuna da, eta denok erakutsi nahi diegu gure seme-alabei pazientziak jokatzen: gauzak eskatzerakoan, egiterakoan, itxaroterakoan... Baina nola erakusten zaio pazientzia haur bati? Sara Tarres psikologoak zenbait gomendio eman ditu; garrantzitsuena, eredu izatea.

Fenomeno moduan ulertu

Psikologoaren esanetan, helduok autokritika egin behar dugu: nola nahi dugu eraman handiko umeak

izatea, guk geuk pazientziak jokatzen ez badugu? "Haurrei eskatzen dieguna berehala egitea nahi dugu: 'Jantzi pijama! Afaldu! Lotara!'. Psikologoak dio pazientzia askok errezetatzen dutela, baina ez dela ez saltzen ez erosten, eta gaur egungo gurasoak gure seme-alaben pazientziarik ezak larritu egiten gaitu.

Itxaroten ikasi egiten da

"Haurtzaroen pazientziarik eza berezkoa da, sortzetikoa. Hala, itxaroten ikasi egiten da", dio. "Garrantzitsua da helduok haus-

narketa eta autoesplorazio ariketa egitea: Oso exijentea naiz nire haurrekin? Zerbait eskatzen diedanean ulerkorra naiz? Zerbait eskatzen didatenean berehala ematen diet?...". Tarresek gogoratzen du eredu gure seme-alabendako eta gure ispilu izango direla. Aldaketa garrantzitsuenek gurasoengandik etorri behar dutela dio, eta zenbait gomendio ere eman ditu.

Gomendioak

"Saiatu haurrei gauzak eskatzerakoan malgutasunez jokatzen, ez saritu umeen pazientziarik eza. Ez erantzun berehala haien exijentzia guztiak, eta saiatu ahalik eta gehienetan patxadaz, lasai, jokatzen. Eta azpimarratu, gorai-patu edo saritu seme-alabek itxaroten jakin duten unea". Emaitzak etorriko direla ziurtatzen du adituak.

Gazteak, sare sozialak eta hizkuntza kudeaketa

L.Z. | ARRASATE

Soziolinguistika Klusterrak, Urtxintxa eskolak eta Emun kooperatibak azterlan berria egin dute gazteez eta, batez ere, gazteei zuzendutako sare sozialen hizkuntza kudeaketaz. Hain zuzen ere, sei kasu arrakastatsu aukeratu eta aztertu dituzte: Doka kafe antzokia, Euskal Herria Zuzenean festibala, Gaztea Irratia, Ken 7 taldea, Gernikako gaztetxea eta Mikel Astarloza kirolaria. Bi aditurengana ere jo dute: Koldo Diaz eta Gorka Julio.

Azterketaren ondorioak

Nahiz eta ezaugarri eta izaera ezberdinekoak izan, sare sozial erabilienak gazteen artean Tuenti, Twitter eta Facebook dira. Komunikazio kanal indartsuak dira gazteen artean, eta hizkuntzaren hautua garrantzi handikoa da.

Ikerketak erakutsi du gazteek euren eguneroko bizitzan egin duten hizkuntza hautu bera errepikatzen dutela sare sozialetan ere. Argi ikusi da, bestalde, komunikatzailea euskarazko erreferente moduan ikusten badute, gazteek ere euskara erabiltzen dutela. Horregatik, garrantzizkoa da komunikatzaileek hizkuntza hautuan norabide argia izatea eta gazteengana heltzeko lagunarteko hizkera erabiltzea. Bada, txosten hori, osorik, sarean dago.

Droga kontsumoaren gaineko hitzaldia Arrasaten

Arrasateko Udaleko Prebentzio Sailak antolatuta, hitzaldia egingo du Agipad elkarteko psikologo batek 12 eta 18 urte arteko nerabeen gurasoendako. Argibideak jasotzeko, deitu 943 25 20 07 zenbakira edo idatzi prebentzio@arrasate-mondragon.net postara. Kulturateko Loramendi gelan izango da, apirilaren 10ean, arratsaldeko seietan.

UEUk ikastaroa, egoera kritikoei aurre egiteko baliabideak emateko


Ikastaroa Virginia Belategik gidatuko du, eta, apirilaren 16an hasita, hiru orduko lau saio egingo dituzte, martitzenetan. Erlaxazio eta kontzentrazio teknikak erakutsiko dituzte, baita egoera zailetan azterketa bat, haserre lagunekin... nola jokatu ere. Prezioa 84 euro da eta bihar, martitzena, amaitzen da izena emateko epea.

Hitzaldia, haurrek psikomotrizitate gelan egiten dutenaz

Aretxabaletako Kuku Miku elkarteak gonbidatuta, hitzaldia egingo du Janire Jaio psikomotrizistak apirilaren 23an, martitzenean. Elkartearen egoitzan izango da hitzaldia, 18:00etan hasita, eta irekia izango da, ez baitago aurrez izena eman beharrik. Psikomotrizitatea zer den eta nola lantzen den azalduko du Jaio saio horretan.



Debagoieneko GREMIOAK



AROSZTEGIAK

AZKARATE AROSZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03

Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

blogak.goiena.net/azkarate

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

Tel.: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

e.arrasate@euskalnet.net

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

Tel.: 943 77 19 88

Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

Faxa: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

LOREZAITZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatze sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

Faxa: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

KULTURA

Tumulu eta dolmenen ibilbidea

- ▶ Elosua-Soraluzeko estazio megalitikoko ibilbidean 16 monumentu ikus daitezke
- ▶ Ibilbideak 20 kilometro dauzka eta Karakate-Agirreburu banalerroa zeharkatzen du

ANDER MONEDERO | BERGARA

Elosua-Plazentzia estazio megalitikoko ondare natural eta kulturala balioan jartzeko eta bertan turismoa sustatzeko eta asmoz, Bergarako, Soraluzeko eta Elgoibarko Udalek, Debegesak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak bertako ibilbide tematikoa sustatu dute. Proiektua egubakoitzean Debegesak Eibarraren duen egoitzan aurkeztu zuten eta bertan, egitasmo honetan parte hartu duten erakunde guztien ordezkariak izan ziren.

Dolmenen Ibilbideak PR-Gi 94 izena du, 20 kilometroko luzera du eta, bertan, zailtasun ezberdina duten bost ibilbide egiteko aukera dago: Elgoibar Karakate, Soraluze Gizaburua, Bergara Iturriberrri, Karakate Iturriberrri eta Kurutzebakar Iturriberrri. Ibilbideak burutzeko informazioa Elgoibar, Soraluze eta Bergarako turismo bulegoetan jaso daitezke. Juanje Amazorraín, Bergarako Udaleko zinegotziak, proiektua aurrera ateratzeko hiru herrietako Udalen eta erakunde publikoen arteko elkarlana nabarmendu zuen eta duela 10.000 urte gure arbasoen herentzia berreskuratzearen eta zabaltzearen garrantzia azpimarratu zuen.

Arbasoek utzitako altxorra

Soraluze eta Elosu arteko ibilbideko lehenengo indusketak Joxe Migel Barandiaranek, Enrique Egurenak eta Telesforo Aranzadik egin zituzten 1920. urtetik 1922ra. Deba errekararen ondoan Euskal Herrian ikertu diren kobazulo gehienak daude Arantzazutik hasi eta Praileaitzeraino eta baita tumulu eta trikuharrien kontzentrazio handiena. Bertako kobazulo, tumulu eta dolmenen ikerketak alde batera utzi zituzten eta, orain, berriz ere ikertzen hasi dira. Aranzadi Zientzia elkarteak Juantxo Agirrereren esanetan, Elosu-Soraluze arteko estazio megalitikoan 16 monumentu ikus daitezke, baina ikerketek aurrera egin ahala gehiago aurkituko dutenaren susmoa du.

Dolmenen Ibilbidea historiaurreko museo irekia izateko asmoa dutela esan zuen Aranzadiko ordezkariak. Hori lortzeko, aztarnetan interbentzio txikiak egingo dituztela adierazi zuen Agirrek. Interbentzio horietatik



Dolmenen Ibilbidean Arribiribilletako trikuharria bezalako altxorrak ikus daitezke. | DEBABARRENATURISMO.COM



Neolitoan ehizarako erabiltzen zituzten tresnen irudikapena. | ANDER MONEDERO

ikusgarriena Arribiribilletako trikuharriarena izango da. Izan ere, Arribiribilletako dolmenaren harria zutitu egingo dute. Agirrereren esanetan, bertan egindako ikerketek dolmen horretako harria kanpotik ekarri zutela eta zutik zegoela adierazten dute. Nahiz eta dolmena altxatzeko data finikorik ez egon, interbentzio hau aurrera egingo dutela adierazi du Aranzadik.

Interbentzio honek Elosu-Soraluze estazio megalitikoaren garrantzia nabarmenduko du, bai paisaiari, eta baita ondare

kulturalari dagokionez. Agirrek, gainera, harria altxatzearekin batera aztarna berriak aurkituko dituztela ziurtatzen du, eta nahiz eta aztarna horiek Gipuzkoako gordailuan gorde, gure arbasoen bizitza hobeto ulertzeko balio izango du.

Tailerrak eta bisita gidatuak

Dolmenen Ibilbidearen sustatzaileek, ibilbidea bultzatu eta bertako ondarean ezagutzera emateko asmoz, Karakate-Irukuru-tzeta mendilerroan bisita gidatuak eta familia osoarentzat prestatu-



Neolitoan tresnak nola erabiltzen zituzten azaldu zuten Aranzadikoei. | A.M.

tako tailerrak egingo dituzte.

Bisita gidatuak bertako zein kanpoko jendearentzat eginda daude eta bertan, Neolitoaren bukaerako gertaera garrantzitsuak, artzaintzaren hastapenak eta bilakaera, bizimodua, sinismentak eta indusketen ondorioak azalduko dira. Jarduera tailerrak berriz, 4 eta 12 urte bitarteko haurrak dituzten familiei zuzenduta egongo dira, eta bisita gidatuan jorratzen diren gaiak landuko dituzte, baina umeei jolastu behar duten bitartean ikastea da antolatzaileen helburua.

Martxoaren bukaeratik urrira bitartean zortzi ekintza antolatuko dituzte, eta horietatik aurrenekoa, zapatuan, martxoaren 30ean izango da. Lehenengo ekintza bisita gidatua izango da, parte hartzaileak Karakateko apartamentuetatik abiatuko dira eta hiru orduko ibilbidea burutuko dute. Bisita gidatu horretan izena emateko epea martxoaren 29ra arte zabalik dago. Izena emateko Debegesara-martxoaren 27a baino lehenenago edo Debanaturara deitu behar da: 943820110 eta 943191172.

Small Jackets talde italiarraren rock and roll erakustaldia Amaia antzokiko hall-eanean, egubakoitzean

J.B. | ARRASATE

Small Jackets talde italiarrak egubakoitz iluntzean Amaia antzokiko hall-eanean eskaini zuen kontzertua gozamen hutsa izan zen rock and roll musika maite dutenendako. *Gitarreo* amaigabe haiekin, The Hellcopters edo Airbourne moduko taldeak ekarri zizkiguten gogora.

Jende gutxi gerturatu zen, 50 bat sarrera saldu ziren bakarrik. Hala ere, laukote italiarrak giroa bero-bero jartzea lortu zuen ia hasieratik. Gitarra joleek eta bateria joleak maila aparta eta jarrera erakutsi zuten barra-

barra; ikusleak aho bete hortz utzi zituzten. Kontzertua amaitu zenean gehienak gehiagorako gogoz geratu ziren. Bertsioen artean, MC5 taldearen *American Ruse* aipatu beharra dago.

Turboshit giroa berotzeko

Euren aurretik Turboshit talde bergararra igo zen agertokira giroa berotzeko; hamar kantu jo zituzten orubete baino gutxiago iraun zuen emanaldian. The Dictators taldearen *Who will save rock & roll* eta Gluecifer-en *I got a war* kantuak jo zituzten, besteak beste.



Lurra taldeak formatu akustikoan eskaini zuen kontzertua. | IMANOL SORIANO



Small Jackets taldearen kontzertuko une bat. | IMANOL SORIANO

La Banda del Abuelo beti bezain zirikatzaile Bergaran, 'Germinal! 3' fantzinea aurkeztu ondoren

J.B. | BERGARA

Begarako gaztetxeak *Germinal! 3* fantzinea aurkeztu zuen egubakoitz iluntzean. Hiru hilabete behin kaleratzen den agerkariaren hirugarren alea aurkezteko luncha eta La Banda del Abuelo arrasatearren kontzertua antolatu zituzten.

Josu Arteaga baxu joleak kontatu digunez, kontzertua "ondo" egon zen: "Ez genuen inor espero eta azkenean 40 bat lagun elkartu ginen. Lekua txikia da eta, beraz, azkar betetzen da. Oso gustura aritu ginen jotzen". Aurreko bi aldietan kale egin du Arrasateko lauko-

teak, azken orduko arazoengatik. Hirugarrenean bai, lortu zuten arantzaxoa kentzea.

Kantu berriak batez ere

Beti bezain zirikatzaile aritu zen La Banda del Abuelo, ohikoa duten zuzeneko eroa eskainiz: "Azkenaldian zuzenekoak oso hotzak izaten dira eta, gertutasun bila, ikuslegoa zirikatzen saiatu ginen. Lortu genuen, berotu genuen giroa". *La sed del fuego* disko berriko kantuak jo zituzten batez ere, baina kontzertua amaiztean jendeak gehiag eskatu zuenez, abesti zaharrak ere jo zituzten.



Esne Beltzaren kontzertuko une bat; gaztetxea ez zen bete, baina aurrean ez zen mugimendurik falta izan. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Euskal musika beltzaren gaua

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Korrika Kulturalaren barruan eta Kooltur ekimenarekin elkarlanean, kontzertua eskaini zuten egubakoitz gauean Lurra eta Esne Beltza taldeek. Iñigo Muguruzak gidatzen duen Lurra taldeak hartu zuen gaztetxea girotzeko ardurara; formatu akustikoan, blues eta reggae doinuekin eta natura hizpide zuten hitz konprometituez osatutako kantuarekin saio txukuna eskaini zuten irundarrek.

Espero baino jende gutxiago

Hala ere, Esne Beltza izan zen gaueko protagonista nagusia. Hori bai, aurreikuspenak ez ziren bete; antolatzaileen arabera 200 sarrera inguru saldu ziren, espero baino gutxiago. Jendea bai, baina ez gaztetxea betetzera. Datu deigarria da gaztetxea goraino bete ez izana, Euskal Herrian erreferente den taldeetako bat dela kontuan hartuz gero.

Talde osoa igo aurretik DJa aritu zen musika jartzen, berotze lanetan. Gero, nahiko hotz hasi

FITXA
MUSIKA KONZERTUA
LURRA ETA ESNE BELTZA
Estiloa: Ska, reggae, hip-hop eta rock.
Non: Arrasateko gaztetxean.
Eguna: Egubakoitza, hilak 22.
Iraupena: Bi ordu eta erdi. Korrika Kulturalaren barruan antolatuta, Kooltur ekimenarekin elkarlanean.

zen kontzertua baina kantuak horren ezagunak izateak eta musikarien jarrerak –batez ere Xabi Solano liderraren eta Sergio Ordoñez bigarren abeslariaren jarrerak– azkar eragin zuten giroa berotzea. Ikusleen artean gaztetxo asko: Kooltur ekimenak antolatzen dituen gainerako kontzertuekin alderatuta, batz besteko adina asko jaitsi zen egubakoitzean.

Ska, reggae, hip-hop eta bestelako doinuekin jantzi zuten emanaldia Esne Beltzakoek. Kontzertuak aurrera egin ahala giroa berotzen joan zen. Horretan espe-

zialistak dira Esne Beltzakoak; hau da, ikus-entzuleekin *feedback* bila jardun zuten etengabe. Harreman hori lortuta, giroa bero izan zen ia emanaldi osoan zehar, publikoarendako dagoeneko aski ezagunak diren kantuak jotzen zituzten bitartean: besteak beste *Ongi Etorria*, *Free Palestine* eta *Nahi Dut* kantuarekin ederto gozatu zuten entzuleek. Eta noski, Korrikaren 18. edizioako *Eman euskara elkarri* kantua ez zen falta izan. Bisa ere nahikoa luzatu zen; Solanok trikitia utzi eta gitarra akustikoa hartuta jo zituzten azken kantuak. Bukaera borobila eman zioten kontzertuari *Bozgorailuetatik* abestiarekin.

Orain, disko berria grabatzera

Atzo Korrikaren amaierako festan jo zuten azken kontzertua, Baionan. Orain, euren laugarren diskoa izango dena grabatu behar dute eta euren webgunean irakur daitekeenez, urte amaierarako izango dira bueltan agertokietan, disko berria aurkezteko.



Germinal! 3 fantzinearen aurkezpena Bergarako gaztetxean. | IMANOL SORIANO



Emanaldian abestu zuten haur guztiak, oholtzan batera, amaierako kantaldian. | JOSETXO ARANTZABAL

Aingerutxoen harrobia Oñatiko abesbatzendako

- ▶ Ganbara abesbatzaren ekimenez, taldeak sortu dituzte eskoletan
- ▶ Atzo kantari txiki ezteiek erakustaldia egin zuten gurasoentzako

JON BEREZIBAR | OÑATI

Oñati eta abesbatzak bat direla zalantzarik ez da eta atzo argi eta ozen geratu zen urte askotarako harri, harribitxi eta *pitxietarako* harrobi oparoa daukatela herrian. Oñatin dauden makina bat abesbatzekin nahikoa ez eta eskola umeei ere kantuzaletasunaren hartxoa piztu gura izan diete *Ikastetxeak kantari* ekimenerekin. Lehen mailan hasi eta seigarrenera arteko Elkar Hezi,

Urgain eta Txantxiku ikastetxeetan taldeak sortu dituzte. Kantuan erakutsi eta dohainen erakustaldia egin zuten. Ganbara abesbatzaren aspaldiko asmoa bete da honela eta oholtzara igo zituzten 150 neska-mutiko inguru.

Jolasa eta kantua

Jolasetik, behar duen moduan, asko dauka abesbatzak eta atzoko emanaldian denetariko erritmo, dantza eta melodiak batu

zituzten; herrikoienak bai eta baita, adibidez, Disneyko film ezagunen soinu-bandetatik ateratakoak. Pozarren ibili ziren Oñatiko txikitxoak Josu Zubia eta Miren Gurutze Plazaola zuzendari zituztela eta pianoan lagun, Araceli Guridi.

Txantxiku ikastolako txikienak izan ziren lehenak erreperitorio herrikoi batekin. Abestu zituzten lau kantuetatik argi eta garbi Mikel Urgandarin *Non*

geratzen den denbora gozatu zuten gehien. Elkar Hezikoek ere eskal kantutegira jo eta *Kapitain pilotu*, *Bautista Basterretxe* ala *Akerra Ken* dibertigarria abestu zituzten. Internazionalenak Urgain ikastetxeakoak izan ziren italieraz, ingelesez eta euskaraz kantatuta. Rock-and-rollarekin eta guzti ausartu ziren. Amaiera baino lehen Txantxiku ikastolako bigarren taldeak hartu zuen oholtza; hauek ere ingelesezko pieza eza-

gunak abestu zituzten eta euskarazko batekin amaitu.

Ederrena, ordea, amaierarako gorde zuten, haur guztiak igo baitziren Santa Ana aretoko oholtzara. Lau abesti kantatu zituzten batera, erritmo biziko *Kokoleoko* afrikarrarekin hasi eta goxo-goxo Juantxo Zeberioaren *Muxu bat* sentiberarekin amaitzeko.

Haurrek disfrutatu zuten, noski, baina gurasoek argazki eta bideo kamerak utzi barik, ez zuten segundo bakarra ere galdu etxeko txikiaren ahots gozoezin. Oñati herri kantuzaleak badu etorkizuna txiki hauekin.

DATUA

150

ABESLARI

Hiru ikastetxeetako 150 haur kantari baino gehiagok hartu zuten parte.

Gurasoentzako opor aurreko opari musikala Kulturaten

Arrasate Musikaleko ikasleek urteroko Aste Santuetako kontzertua egin zuten egubakoitzean Kulturateko areto nagusian. Ikasle txiki zein nagusiek ikasturtean ikasitakoaren erakustaldia egiteko aukera izan zuten guraso eta lagunen aurrean. Maila eta instrumentu guztietako ikasleek jo zuten.



IMANOL SORIANO



JON BEREZIBAR

Ipuin kontaketa nagusientzat

Bizitzan honezkero ipuin larregi entzundakoei tokatu zitzaizen barikuan, loben lekuan jarri, eta ipuinak entzutea. Antzuolako erretiratuen elkartean luxuzko kontalaria izan zuten: Ignacio Sanz. Idazle espainiarrak erromantze eta ipuinak kontatu zizkien.

GURE MUSIKA TALDEAK

Dirty Brothers taldea Londresera doa Aste Santuan

Laukote arrasatearrak bi kontzertu eskainiko ditu

JAGOBA DOMINGO | ARRASATE

Aste Santuko Pazko astea aprobetxatuz, Dirty Brothers taldea Erresuma Batuko hiriburura joango da. Hala, gaur egungo punk eszenan marka bereizgarria lortu duen taldeak *Egun ilunak* bigarren diskoa aurkeztuko du punk mugimenduaren hiriburua izandakoan.

Londresko bisitarako, baina, kontzertu bereziak prestatu dituzte, ohikoak ez diren kantuekin. Dirty Brothers taldeko Salak hauxe esan digu: "Kontzertu hauek festa bezala planteatu ditugu; beraz, hiriburuko talde mitiko askoren kantuak egongo dira errepertorioan". Besteak beste, The Bussines, The Crack, Cock Sparrer eta The 101'ers taldeen bertsiok egingo dituzte.

12 Club eta Cakey Muto

Lehen kontzertua 12 Bar Club ezagunaren eskainiko dute apirilaren 5ean, egubakoitzean. Bertan, oholtza beste lau taldeekin partekatuko dute: First Wave eta Dogtown Rebels ingelesekin, Project Reject frantziarrek eta Milksnake italiarrek. Hurrengo egunean, berriz, *One way ticket* fantzineak antolatuko festan, emanaldi akustikoa egingo dute, Go!Zilla taldearekin batera, Cakey Muto dendan.



Dirty Brothers, *Bisonte*-rekin, Arrasateko gaztetxean. | JAGOBA DOMINGO

Harrera ona

Kontzertu horiek The Ricky C Quartet eta Victor *Bisonte*-ri esker lortu dituztela esan digu Salak. The Ricky C Quartet taldea orain

dela bi hilabete gurera etorri zen bisitan, eta Dirty Brothers taldekoak izan ziren haien anfitrioi. Bisita hori dela eta, Londresen jotzeko gonbidapena jaso zuten arrasatearrek, eta ez dute aukera desprobatu.

Salaren esanetan, aurtengo helburuetako bat Euskal Herrian baino gehiago kanpoan jotzea da, *Egun ilunak* diskoak oso harrera ona izan duelako hemendik kanpo. Galizian izan dira, Londresera doaz eta Berlin ikuspuntuan dute; beraz, helburua betetzen ari direla esan daiteke. Gainera, Londrestik bideo klip bat egiteko irudiekin bueltatu nahi dute.

ESANAK

"Londresen jo ondoren, Berlinera joatea dugu helburu"

ASIER SALA | MUSIKARIA

Los Galerna Madril aldera doaz 'Reverb deunaren prozesioa' egiteko asmoz

Bi kontzertu eskainiko dituzte Madril inguruan Arrasateko maskaradunek

A.M. | ARRASATE

Aurten ere Aste Santuko oporrak kontzertuak eskaintzeko aprobetxatuko dituzte Arrasatekoak, eta martxoaren 29an eta 30ean Madril aldera eramango dituzte surf eta rock-and-roll instrumental doinuak. Voltface kolektiboaren laguntzari esker, *Reverb deunaren prozesioa* izeneko mini-bira antolatu dute datorren aste-bururako.

Lehenengo kontzertua Madrilgo Gruta 77 aretoan eskainiko dute, Durango 14 surf instrumental taldearekin, egubakoitzean, hilaren 29an; eta bigarrena zapatuan, Alcalá de Henares herriko Flamingo tabernan. Duela hilabete batzuk kaleratu zuten *Surfusion* diskoa aurkeztzen jarraituko dute; hala ere, disko berria izango denaren zenbait abesti entzuteko aukera ere izango dute bertara gerturatutakoak.



Los Galerna taldeko Jokin eta Moreno. | JUAN MORILLAS

Disko berria prestatzen

Los Galerna taldea azken hilabeteetan buru-belarri dabil hurrengo diskoa izango dena prestatzen. Oraingo honetan, saxofoiak garrantzi handiagoa izango du, eta swingari tartetxo eskainiko diote;

hala ere, western doinuak eta Dick Dale maisuaren oihartzunak ez dira falta izango.

Grabazioa maiatzean hastea da haien asmoa, eta, bitartean, inguruan kontzertu batzuk eskainiko dituzte.

Drop!, Nekrosounds estudioan grabatzen

Arrasateko hardcore taldeak estudioan dihardu lehen diskoa grabatzeko lanetan

J.D. | ARRASATE

Joan den martxoaren 16an ekin zioten Drop! taldekoek euren lehen erreferentzia izango dena grabatzeari. Horretarako, Aretxabaletako Nekrosounds estudioa aukeratu zuten, eta, orduetik, gogotsu dabil lanean hardcore musika oinarri bezala duen boskotea.

Taldearen ibilbidean zehar konposatutako zortzi kantu propio grabatu behar dituzte lehenengo diskorako. Horietan, hardcore burrunbatsutik, metaler eta punk rockera naturaltasunez egiten du salto taldeak, eta, gutxi barru, *Ez nauzu aldaturko* eta *Aske jaio, aske hil* kantuak entzuteko aukera izango dugu.

Gustura estudioko lanetan

Estudioan sartu bezain laster bateriarekin lanean hasi ziren eta lehenengo egunean zortzi kantuak grabatu zituzten. Hurrengo egunean, hilaren 17an, baxua eta gitarra erritmikoa grabatu zituzten, eta aurreko



Drop! taldekoak. | GOIENA

asteazken zehar gitarra konponketetan lanean ibili ziren. Aste-buru honetan ahotsak grabatzeari ekin diote, eta, taldekideen esanetan, gutxi barru amaitzea espero dute.

Diskoa apirilean edo maiatzean kaleratzeko asmoa dute Drop! taldekoek; hala ere, oraindik lan handia dute aurretik. Ziurrenik, CDa formatu xumean, kartoizko kaxa batean, kalera- to dute, helburua euren kantuak banatzea eta entzuteraren ematea da-eta.



Los Cretinos, *Addictos Sonitus* biniloa eskuetan dutela. | JAGOBA DOMINGO

Los Cretinos-ek 'Addictos sonitus' diskoa binilo formatuan kaleratu du

J.D. | ARRASATE

Heldu da eguna; azkenean, Los Cretinos garage taldeak binilo formatuan kaleratu du diskoa. Hirugarren diskoari itxaron behar izan diogu arrasatear horien lana binilo formatuan entzun ahal izateko, baina itxaronaldiak, noski, merezi izan du.

Biniloa Sevillako Cowabunga zigiluarekin elkarlanean kaleratu dute eta 200 kopia egin dituzte. Diskoa Iluntz tabernan jarri zuten salgai joan den eguaztenean, 12 euroren truke. Hura lortzeko beste bide bat www.cowabungastore.com webgunean erostea edo Los Cretinos tal-

dearen zuzenekoetan erostea izango da.

Hurrengo kontzertuak

Apirilaren 3an, zapatuan, Eibar-ko Ez Dok tabernan.

ESANAK

"Oso gogotsu hartu dugu lehen biniloa; ordua zen"

AITOR BARBADILLO | MUSIKARIA

'Keep' atera du Googlek, oharren kudeaketa tresna

- ▶ Driveren osagarri gisara atera du, diseinu soil eta erabilera errazekoa
- ▶ Web bertsioa kenduta, Androiderako aplikazioa bakarrik atera dute

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Udaberri iragarpen, berrikuntza eta aldaketekin lanpetuta egoteko asmoa daukate Googlek, antza denez. Halako zerbitzu bat eskaini guran aspalditik zebiltzala gauza jakina zen, baina hirugarren maila baten kokatzen


zuten adituek. Inork gutxi espero zuena zen oharrak gorde eta antolatzeko aplikazioa lehen lerroa ekarriko zutenik Googlekoek, baina halaxe aurkeztu dute Google Keep.

Joandako aste erdialdea ezkerro dago zabalik zerbitzu berria,

Google Driverekin sinkronizazio eta guzti. Oharrak sortu eta antolatuta, post-it birtualen lana beteko luke zerbitzu berriak. Ohar digitaletan, noski, estekak, irudiak eta ahotsezko mezuak ere txerta daitezke. Google Keep erabiltzeko, Google kontu bat behar da eta Driverekin sinkronizazioa, nahi den dispositibo eta ordenagailu guztietan erabilgarri egin dadin. Aplikazio bertsioari dagokionez, Androiderako badago, baina ez iOSerako. Android sistema ez darabiltenek web bertsioa erabili beharko dute, bestelako eskaintzarik ez.

Lehen bertsioetan

Bitxia da Googleren zerbitzua izanik, eta Driveren osagarria praktikan, lainoko biltegiko orri nagusian lotura zuzenik ez izatea. Google Keepen sartzeko aparteko helbide baten egin behar da: drive.google.com/keep. Aplikazioaren hasierako bertsio soila dela ematen du, oraingoz behintzat.



Oharrak sortu eta gordetzeko zerbitzu berriaren pantaila-irudia. | GOOGLE

Hedabide digitalak dira bigarrenak jada publizitate inbertsioan

J.B. | ARRASATE

Publizitate mailan, jada, hedabide digitalak dira, telebistaren ostean, diru gehien inbertitzen den alorra. Espainian 2012an hedabide digitalei buruz egindako ikerketaren emaitza nagusietako bat da hori. Hedabide digitalak esandakoan, kontuan hartzen dira banner eta bilaketan emaitzetan egindako inbertsioa eta, baita ere, mugikorretara bideratutakoa. Kasu guztietan, gora egin zuen inbertsioak iaz. Publizitate inbertsio guztia kontuan hartuta, diruaren %39,2 telebistara bideratzen da eta %19,1 hedabide digitale-

tarako. Prentsa idatzian %16,5eko inbertsioa egiten da. Konparaziorako, 2005ean telebistan %43,9 inbertitzen zen, digitaletan %2,4 eta paperean %24,8.

Enpresen zerrenda

Ikerketak digitaletan gehien inbertitzen duten enpresen zerrenda kaleratu du. Procter & Gamble eta El Corte Ingles dira digitaletan gehien inbertitzen dutenak eta oso sarrera nabarmena egin zuen 2012an Groupon-ek. Mugikorretan, berriz, Vodafone izan zen iaz inbertsiorik handiena egin zuen kanpaina.


WhatsAppengatik iOSen ere urteko lizentzia ordaindu beharko da, azkenean

J.B. | ARRASATE

Lizentzia urtero berri beharko dute Appleren gailuen erabiltzaileek, gainontzeko sistema guztietako bezala.

WhatsAppen konpainiako zuzendarietako baten adierazpenek argi utzi dute, ika-mika luzearen ostean, iOS sistema eragilerako bertsioak ere urtero berri beharreko lizentzia

izango duela. Aurten ezarriko dute baldintza berria, baina ez dute zehaztu noiz. Orain, ondorioz, asaldatu direnak iPhone erabiltzaile asko eta asko izan dira; zenbaiten kasutan, aspaldi ordainketa eginaren zuten bere garaian, doako bertsioa eskaini aurretik eta garai bateko baldintzetan ordainketa bakarria zela zehazten ei zen.



Fedly-ren web bertsioa. | GOOGLE

Readerren itxierak milioi eta erdi erabiltzaile ekarri dizkio Feedlyri

J.B. | ARRASATE

Googlek Reader RSS irakurgailua itxiko zuela iragarri zuenetik, Feedly zerbitzua da irabazle atera dena, milioi eta erdi erabiltzaile eman baitute alta egun gutxian.


Google Readerren alternatiba ugari dago eskuragarri, baina, ematen duenez, Feedly aplikazioak irabazi du partidua oraingo honetan, guztien gainetik. Honen aurrean, Feedlytik konpromisoa hartu dute zerbitzua hobetzeko. Erabiltzaile kopuruaren igoera itzel honen aurrean, banda zabalera gehitu beharko dute lehenik eta behin. Oraingoa hamar aldiz biderkatu dute eta

zerbitzari berriak gehitu dituzte zerbitzua bermatzeko. Arrakasta ezin zaie ukatu eta aplikazioa albisteetara dedikatutakoan artean jada lehena da AppStore-an.

Erabiltzaileei entzuten

Irakozkunak jasotzeko ere prest agertu dira Feedlykoak eta horretarako erabiltzaileek hitz egiteko foroa zabaldu dute. Aurki aurkeztuko dituzte berrikuntzak bai webgune zein aplikaziorako bertsioetan.

Googlek, berriz, iragarpenari jarraituz, 2013 urte honetarako ekainean itxiko du zerbitzua behin betiko.



Jack Dorsey, sortzailearen denbora-lerroa. | TWITTER

Twitterrek 7 urte bete ditu 200 milioi erabiltzaile aktibotik gora dituela

J.B. | ARRASATE

2006an abiatu zen Twitter, eta, ospakizunekin batera, trafikoari buruzko datu zehatzak zabaldu dituzte konpainiatik. Mikroblogintza gunean 200 milioi erabiltzaile aktibotik gora ditu gaur egun, iaz baino 60 milioi erabiltzaile gehiago, hain zuzen, eta erabiltzaile horiek 400 milioi mezutik gora txiokatzen dituzte egunero. Historian gehien txiokatu den mezua da Estatu Batuetako Obama presidentek bigarren agintaldi batera hautatua izen zela esan zueneko.

Twitterrek zazpi urte hauetan izandako une eta gailur historikoak jaso eta zabalitzeko, bideo

bat zabaldu dute konpainiatik bertatik.

Erabiltzaileei entzuten

Aldaketa nabariak izan ditu zazpi urtean mezularitza aplikazioak, eta, Facebook baino askoz ere gutxiago erabiltzen bada, aldi berean, adituek Facebookek baino etorkizun argiagoa ikusten diote Twitterri.


Arrakasta horren gakoetako bat erabiltzaileei entzutea izan da. Erabiltzaileek eskatutakoak baitira *traola* eta *bertxia* moduko kontzeptuak, eta horrek asko eragin du erabiltzaileek zerbitzua erabiltzeko duten modu eta ohituretan.

Google Flight, hegaldi merkeetarako, erabilgarri dago

J.B. | ARRASATE

Googlek Estatu Batuetako erabiltzaileendako bakarrik izan du orain arte hegaldi merkeak aurkitzeko bilatzailea. Orain, erabilgarri dago Estatuan. Europa mailako hegaldiak bila daitezke eta euskaraz ere badago.

Irteera eta helmuga aireportuak zehaztuta, ohiko bilatzaile baten modura egiten du lan Flight Search-ek. Hegaldia aukeratu, erreserba egin eta ordaindu egin daiteke zerbitzutik bertatik, baina ordainketa hegaldiaren konpainiaren orrian egiten da.



Google Flight. | GOOGLE

TELE-BEGI

OIHAN VEGA



Tamaina garrantzitsua da

Bizitza osoan ikusi dudana ideia asoziaziorik arraroena ikusi dut aste honetan gaileta batzuren publizitate spot batean:

Hiru lagun auto batetik jaisten dira ziztu bizian elkarrekin pixa egiteko asmoz. Ez dakit zergatik bateratzen duten hirurek euren pixa egiteko gogo eta are gutxiago zergatik jartzen diren bata bestearen ondoan, sorbaldak elkartuz barnealdea husteko. Lagunen isuria koordinatzea gutxi balitz, espazio bera tartekatzen dute ekintza burutzeko.

Euren genitalak ateratzen dituztenean, harridura eta etxipenez begiratzen diote beren zakilen tamainari. Momentu horretan, autoan doan emakume batek galdetzen die: "Zer gertatzen zaizue?"; eta mutilen erantzun azkarrak dio: "Ezer ez". Orduan, off ahots batek azaltzen digu gailetetik daramaten txokolatezko zatiak horren handiak izanik, gainontzeko guztia txiki irudituko zaigula.

Beste hitzetan: gaileta horien azukrearen eraginez, ahaztuta zuten, antza, zein zen euren pitilinen benetako tamaina eta desiluzioz begiratzen diote hanka tartean duten aparatuari.

Esan bezala, bizitza osoan ikusi dudana ideia asoziaziorik arraroena, ezbaierik gabe.

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 25



Gorlako igoera

Amateur mailako ziklista onenak Gorlako maldetan nola ibili ziren ikusi ahal izango duzue. | 22:00

- 11:50 Magazinea
- 12:35 Gurean gaur
- 13:05 Zorion Agurrak
- 13:07 Onein
- 13:29 Laino arteko plana
- 13:54 Ekogune
- 14:19 Ikusmira
- 14:42 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:10 Eguraldia
- 15:13 Zorion Agurrak
- 15:18 Korrika 18
- 16:18 Zorion Agurrak
- 16:23 Korrika 18
- 16:45 Berriak
- 17:10 Eguraldia
- 17:13 Berbetan
- 17:50 Ekogune
- 18:20 Bizitegia
- 18:50 Korrika 18
- 19:20 Beranduegi.tv
- 19:45 Zorion Agurrak
- 19:49 Berriak
- 20:14 Eguraldia
- 20:16 Magazinea
- 20:59 Gurean gaur
- 21:28 Korrika 18
- 22:00 Harmailatik
- 22:45 Korrika 18
- 23:45 Berriak
- 00:18 Berriak
- 00:38 Eguraldia

MARTITZENA, 26



Surf taldea

Debagoienean sortu den surf taldeari buruz hitz egingo dugu, besteak beste, Magazinea saioan. | 20:17

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:15 Zorion Agurrak
- 13:22 Harmailatik
- 14:07 Ekogune
- 14:40 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:07 Eguraldia
- 15:10 Harmailatik
- 15:55 Korrika 18
- 16:25 Bertso saioa
- 16:58 Berbetan
- 17:34 Ikusmira
- 17:57 Berriak
- 18:17 Eguraldia
- 18:20 Harmailatik
- 19:05 Beranduegi.tv
- 19:30 Korrika 18
- 19:55 Berriak
- 20:15 Eguraldia
- 20:17 Magazinea
- 21:02 Gurean gaur
- 21:32 Klaketa
- 22:10 Ahotsenean zuzenean
- 22:40 Berriak
- 23:00 Eguraldia
- 23:05 Magazinea
- 23:50 Bizitegia
- 00:32 Harmailatik
- 01:17 Berriak
- 01:22 Eguraldia
- 01:25 Magazinea

EGUAZTENA, 27



Osasun tartea

Zoriontsu izateko entrenamendu mentala: Urko Arozena, Musikeneko irakaslea. | 20:17

- 12:00 Magazinea
- 12:45 Gurean gaur
- 13:10 Onein
- 13:40 Bertso saioa
- 14:13 Ahotsenean zuzenean
- 14:43 Zorion Agurrak
- 14:45 Berriak
- 15:05 Eguraldia
- 15:08 Klaketa
- 15:46 Onein
- 16:11 Ahotsenean zuzenean
- 16:41 Harmailatik
- 17:26 Bertso saioa
- 17:59 Zorion Agurrak
- 18:04 Berriak
- 18:24 Eguraldia
- 18:26 Hitzlandia
- 18:48 Ahotsenean zuzenean
- 19:22 Beranduegi.tv
- 19:47 Zorion Agurrak
- 19:50 Berriak
- 20:15 Eguraldia
- 20:17 Magazinea
- 21:02 Gurean gaur
- 21:33 Hitzlandia
- 21:55 Korrika 18
- 22:55 Ekogune
- 23:25 Berriak
- 23:45 Eguraldia
- 23:47 Magazinea
- 00:32 Klaketa

EGUENA, 28



Bertso saioa

Manex Agirre txapel-dunorde gelditu zen Arabako bertsolaritza txapelketa, Goiena telebistan. | 14:00

- 10:00 Aho bizarrik gabe
- 11:07 Ahotsenean zuzenean
- 11:37 Berbetan
- 12:14 Ikusmira
- 12:37 Onein
- 13:07 Zorion Agurrak
- 13:15 Ahotsak jaialdia
- 14:00 Bertso saioa
- 14:30 Bertso saioa
- 15:03 Ahotsenean zuzenean
- 15:33 Korrika 18
- 16:33 Berbetan
- 17:10 Onein
- 17:35 Bertso saioa
- 18:08 Korrika 18
- 19:08 Ahotsenean zuzenean
- 19:38 Beranduegi.tv
- 20:03 Hitzlandia
- 20:33 Ahotsak jaialdia
- 21:18 Bertso saioa
- 21:48 Aho bizarrik gabe
- 22:55 Ahotsenean zuzenean
- 23:25 Aho bizarrik gabe

EGUBAKOITZA, 29



Ahotsak jaialdia

Euskal Herriko ahoko ondarea eta herri hizkerak biltzen ibili den Ahotsak proiektuaren jaialdia ikusgai. | 14:29

- 10:00 Korrika 18
- 11:00 Aho bizarrik gabe
- 12:07 Bertso saioa
- 12:37 Onein
- 12:59 Bizitegia
- 13:27 Ikusmira
- 13:50 Zorion Agurrak
- 13:52 Berbetan
- 14:29 Ahotsak jaialdia
- 15:14 Laino arteko plana
- 15:44 Ahotsenean zuzenean
- 16:14 Beranduegi.tv
- 16:34 Zorion Agurrak
- 16:39 Bertso saioa
- 17:09 Bertso saioa
- 17:42 28. Klip
- 18:14 Beranduegi.tv
- 18:38 Bertso saioa
- 19:11 Ahotsenean zuzenean
- 19:41 Klaketa
- 20:19 Korrika 18
- 21:19 Berbetan
- 21:56 Bertso saioa
- 22:41 Ahotsak jaialdia
- 23:26 Ahotsenean zuzenean
- 23:56 Hitzlandia

ARRASATE IRRATIA

Korrikaren ondorengoei buruz hitz egingo dugu Arrasate Irratian

Atzo eman zitzaion amaiera Korrika 18ri Baionan. Euskararen aldeko lekukoak dagoeneko pasa ditu Euskal Herriko txokoak, eta 107.7ko uhinetan aurtengo Korrikaren balorazioa jasoko dugu. Goizetan izaten dugun *Igo autobusera!* irratsaioan izango da hori.

Ointxe! taldearen saskibaloia campusa berbagai

Arrasaten eta Zarautzen egingo dira aurten saskibaloia campusak, eta gai horixe izango dugu berbagai bihar, martitzena, *Igo autobusera!* irratsaioa elkarrizketen geltokian, 11:00etan. Josu Larreategi MUko entrenatzaileak egingo dizkigu adierazpenak.

Eguaztenean oporrak hartuko ditu 'Igo autobusera!' irratsaioak

Arrasate Irratiko *Igo autobusera!* irratsaioak oporrak hartuko ditu apirilaren 8ra arte. Eguaztenean izango da oporren aurretik egingo dugun azken saioa eta Pazko astearen ostean itzuliko gara. Bitartean, baina, Arrasate Irratiak ez du etenik izango eta musika izango duzue entzungai eguneko 24 orduetan.

TELE-ALBISTEAK

Pazko astean, egunero, bailarako albisteak Goiena telebistan

'Magazinea' eguaztentera arte egingo dugu eta oporrak hartuko ditugu apirilaren 8ra arte



Txomin Madina, Magazinea saioa aurkezlea. | GOIENA

AMAI TXINTXURRETA | ARRASATE
Goiena telebistan iluntzeetan izaten dugun Magazinea saioa eskainiko dizuegu gaur, astelehena, bihar, eta baita etzi ere.

Gaurko saioan, Bergarako Erramu-zapatuan jasotakoak erakutsiko dizkizuegu eta egunerokotasuneko gaiak landuko ditugu tertulian. Martitzenean, Debagoienean sortu den surf taldea izango dugu hizpide, eta baita ekonomia kontuak ere. Eguaztenean, berriz, Aste Santura begira jarriko gara eta bailaran daugun turismo eskaintza ezagutuko dugu, batetik, eta bestetik, osasun kontuak ere izango ditugu berbagai. Ondoren, lehiaketa izango dugu.

Eguenean, baina, Aste Santuko oporrak direla-eta, ez dugu Magazinea saiorik izango.

Pazko astean ere Magazinea saioa oporretan egongo da eta apirilaren 8an, astelehena, itzuliko da telebistako programaziora. Bitartean, baina, bailarako albisten berri emango dizuegu Berriak saioan eta eguneroko albisteak jasoko dituzue.

'Ahotsenean zuzenean' izeneko saio berria eskainiko dizuegu

Bihar, martitzena, 22:10ean estreinatuko dugu sortzaileen saio berria Goiena telebistan

A.T. | ARRASATE
Durangoko Azoka ospatzen den egunetan, Ahotsenea izeneko sortzaileen gunea ere zabalik egoten da.

Bertan, hainbat sortzailek, idazlek eta musika taldek emandak eskaintzen dituzte eta Goiena telebistak bertan eskainitako emanaldi horiek guztiak ikusteko aukera emango dizue, etxetik mugitu gabe.


Estreinaldia bihar
Bihar, martitzena, estreinatuko dugu saioa, 22:10ean. Hala ere, ondorengo egunetan ere gozatu ahal izango da eskaini ziren

ikuskizunekin. Eguaztenean, adibidez, 14:13an, 16:11n eta 18:48an. Eguenean 11:07an, 15:03an, 19:08an eta 22:55ean. Eta egubakoitzean 15:44an, 19:11n eta 23:26an. Ez hutsik egin!



Logotipoa. | DURANGOKOAZOKA.COM

ZORION AGURRAK



BERGARA
Xabier Martinez
Apirilaren 5ean, 23 urte.
Zorionak eta urte askotarako, *Pako!* Ondo pasatu eguna!



ESKORIATZA
Martin Berezibar Arevalo
Apirilaren 5ean, 8 urte.
Zorionak, pirata! Muxu handi-handi bat familiakuen partetik eta oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna Cordoba aldetik.



ANTZUOLA
Inar Cabo Mundiñano
Apirilaren 5ean, 7 urte.
Zorionak, txapeldun! Ongi-ongi pasatu zure urtebetetze eguna eta merendola goxo prestatu! Muxu handi bat denon partetik!



BERGARA
Anouk Muruamendiaraz Arevalillo
Apirilaren 4an, 4 urte.
Zorionak! Heldu da eguna. Ondo pasatu, printzesa. Urko, amatxo eta aitatxo.



BERGARA
Haitz Alberdi Lasagabaster
Apirilaren 1ean, 4 urte.
Zorionak! Etxeko danon partetik patxo handi bat.




ARRASATE
Naroa Balerdi Berezibar
Martxoaren 31n, 7 urte.
Zorionak, sagutxo! Lagun eta familia guztiaren partetik. Jarraitu horrelakoa izaten! Itxoin amatxori zure urtebetetzea ospatzeko, eh...



BERGARA
Olatz Arregi Eguren
Martxoaren 31n, 8 urte.
Zorionak, Olatz! Ondo pasatu eguna. Muxu potolo bat etxeko guztien partetik!



OÑATI
Iñaxio Inza
Martxoaren 31n, 64 urte.
Urte askotarako, aittaita! Egun ederra pasatu eta jarraitu oin arte moduko borondatea eta umoretsu! Mila kilo zorion, batez be Unax, Eneko, Uxue eta Elaia.



URRETXU
Markel Zabaleta Artolazabal
Martxoaren 29an, 5 urte. Zorionak, mutil handi. Jarraitu horrelako txintxo eta alai izaten. Muxu handi bat tio, tia, Edurne eta bereziki zure arreba Itziarren partetik.



BERGARA
Oihan Zamakola Agirrezabal
Martxoaren 28an, 2 urte. Zorionak, Oihan! Jada bi urte. Segi horrela, txapeldun! Muxu handi bat etxeko guztion, eta bereziki, Enekoen partetik.



OÑATI
Aimar Elorza San Miguel
Martxoaren 28an, 5 urte. Zorionak, Aimar! Ondo pasatu zure urtebetetze egunean eta muxu potolo bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Jose Gabriel Hernandez Martin
Martxoaren 28an, 48 urte.
Urte askotarako. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna eta muxu handi bat etxeko guztien partetik, eta bereziki, Iratik eta Beñatek.



ARRASATE
Irati Hernandez Iturbe
Martxoaren 27an, 8 urte! Zorionak, edertasun, urte askotarako. Oso ongi pasatu zure egunean. Muxu potolo handi bat etxeko guztien partetik.



OÑATI
Aitor Freire Bastardo
Martxoaren 27an, 9 urte.
Ondo pasatu zure egunean. Zorionak etxeko partetik.



OÑATI
Auritz Esnaola Osinaga
Martxoaren 27an, 6 urte.
Zorionak, Auritz! Sei tirakada belarritik eta patxo potolo bat etxeko danon partetik. Eta bat berezia etxeko beste bost artisten izenian. Mua!



ARRASATE
Hodei Ercilla Niewa
Martxoaren 26an, 8 urte.
Zorionak, printzipe! Zelako zortzi urte polittak betetzen dituzun. Muxu handi-handia amatxo, aitatxo, Aimar eta Danelen partetik. Maite zaitugu!



ARETXABALETA
Ager Lanzos Erostarbe
Martxoaren 26an, 9 urte. Zorionak! Ondo ospatu urtebetetze eguna eta muxu handi eta potolo bat etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Ekain Lopez
Martxoaren 26an, 8 urte! Zorionak, txapeldun. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Patxo handi bat etxeko partetik.



DEBAGOIENA
Maddi Vicente de la Hoz
Martxoaren 25ean, 2 urte. Zorionak, polita! Bi urte betetzen ditu gure etxeko printzesak. Patxo handia etxeko guztien partetik, batez ere aitatxok eta amatxok!



BERGARA
Erik Ezenarro Ostolaza
Martxoaren 25ean, 4 urte.
Zorionak, txapeldun. Jada lau urte! Zelako mutiko handixa in zan... Ondo pasatu zure egunean eta muxu potolo bat etxeko guztien partetik, batez ere Sarak.




BERGARA
Ion Aranburu Urrestarazu
Martxoaren 25ean, 7 urte. Zorionak, *guapo!* Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu potolo bat Bergarako eta Oñatiako familien partetik!



OÑATI
Danel Urrutia Garcia de Albeniz
Martxoaren 24an, urtebete. Zorionak, txapeldun! Patxo handi-handi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Maritxu Vega eta Jose M. Arana
Maritxuk martxoaren 24an, 70 urte eta Jose Marik 19an, 78 urte. Zorionak, aitxa eta ama, zuen etxeko partetik.



OÑATI
Jokin Madina Zubia
Martxoaren 23an, 7 urte.
Zorionak, Jokin. Ondo pasatu zure eguna eta patxo potolo bat etxeko partetik.



ARRASATE
Amets Arexolaleiba Erretolatza
Martxoaren 22an, 9 urte.
Bidie eitten zabitz Amets umoretsu eta artez, zorionak ta patxo haundi bat, maite zaitugunon partez!



BERGARA
Aiora Fernandez Alvarez
Martxoaren 21ean, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Patxo handi-handi bat eta zorionak beti... etxeko danon partetik.



OÑATI
Gorka Judez
Martxoaren 21ean, 37 urte. Zorionak, tio Gorka! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat Aneren partetik.



ARRASATE
Mara Granados Sanz
Martxoaren 21ean, 7 urte. Zorionak, Mara! Belarritik zazpi tirakada eta patxo potolo bat etxeko danon partetik.



BERGARA
June Arrondo Agirre
Martxoaren 20an, 6 urte. Zorionak, June! Ze neska puska egiña zauden jada! Ondo-ondo pasatu zure eguna eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.




ARRASATE
Hodei Idigoras Amado
Martxoaren 19an, 3 urte.
Zorionak, txapeldun! Ondo ospatu zure urtebetetze eguna eta jarraitu zure irrifar polit horrez! Patxo bat familia guztiaren partetik, bereziki Julenek!



BERGARA
Sare Larrañaga Barrenetxea
Martxoaren 19an, 2 urte.
Zorionak, printzesa! Gure sorgintxuak bi urte. Patxo handi-handi bat, maitxia!



OÑATI
Ane Emparanza Judez
Martxoaren 19an, urtebete. Zorionak, maittia! Urte bete ein dau gure etxeko printzesak. Patxo handi-handi bat etxeko partetik.



BERGARA
Elene Goikoetxea Makazaga
Martxoaren 19an, urtebete. Zorionak, polita! Aiton-amona, izeba-osaba eta lehengusu Enekoen partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Ander Caballero Lazpita

Elorrio. 2,600 Kilo. Martxoaren 20a. Gurasoak: Iratxe eta Andres. Argazkian, Ander jaioberria sehaskan.



Jare Ortiz Jimenez

Antzuola. 3,200 kilo. Gurasoak: Josune eta Maikel. Argazkian, Jare, Amarekin.



Mare Garai Jimenez

Oñati. 2,400 Kilo. Martxoaren 21a. Gurasoak: Lorea eta Iokin. Argazkian, Mare sehaskan lo.



Alaitz Isasti Arkauz

Oñati 3,540 Kilo. Martxoaren 17a. Gurasoak: Ana eta Iban. Argazkian, anaia lkerrekin.



Auritz Lakontxa Villar

Oñati. 3,850 Kilo. Martxoaren 18a. Gurasoak: Josu eta Susana. Argazkian, Auritz jaioberria sehaskan lo.

Jaio da!


Eman jaiotzen berri Goiena paperean eta interneten. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo zatoz GOIENAREN ordezkarietara batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako jaiotzak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.





DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Ukabilkari	Badago	Azokak
Logura	* Kirol olinpiarra	Ahalkeak	
Zidor			
Dentsitate handiko			
Automata	Setati		
Lantarongo kontzejua	Baldintzetan		
		Atziki femeninoa	
		Norat atzikia	
Haranak, ibarrak			
Errep., fruitu mota			
	Kaiak		
	49		Egoksin mota
Irakeko hiria			Tona, labur-labur
Pilota handia			Röntgen
		Musika nota, eskalan bigarrena	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.




SOLUZIOAK

E	R		A	V	A	L	O	L	B
T		K	R	I	T				K
K	A	S	A	N					K
K	A	R	A	L	A	R	A		S
S	A			R	O	N			S
I			T	E	M	A	T		
R			X	I	D	O	R		
F			L	O	G	A	L		
			B						

F	B	D	O	D	A	B	U	L
A	G	A	I	N	U	E	R	A
A	H	K	D	R	A	T	D	D
H	I	N	D	I	A	J	I	L
A	K	U	R	D	U	E	R	A
A	R	M	E	N	I	E	R	A
A	T	Z	D	B	O	P	X	B
K	P	A	L	I	E	R	A	F

1	7	4	9	3	8	5	2	6
6	2	8	5	1	7	3	9	4
3	5	9	2	6	4	1	8	7
8	1	7	6	5	3	2	4	9
4	9	2	7	8	1	6	3	5
5	6	3	4	9	2	7	1	8
9	3	6	1	4	5	8	7	2
2	4	1	8	7	6	9	5	3
7	8	5	3	2	9	4	6	1



Ezetz igarri: Bigarren lekuan.

SUDOKUA

	8	5		9				
2			8		9	5		
				4		8		2
5	6			9				8
4		2				6		
		7			3			9
	5	9	2	6				
				1	7	3		
		4		3	8			

HIZKI SALDA

Topa itzazu Asiako bost hizkuntza

F	B	D	O	D	A	B	U	L
A	G	A	I	N	U	E	R	A
A	H	K	D	R	A	T	D	D
H	I	N	D	I	A	J	I	L
L	S	U	A	V	I	B	R	H
A	K	U	R	D	U	E	R	A
A	R	M	E	N	I	E	R	A
A	T	Z	D	B	O	P	X	B
K	P	A	L	I	E	R	A	F

EZETZ IGARRI!

Lasterketa batean, bigarren doanari aurre hartu diozu.

Zein lekutan ari zara orain lasterka?

AI, ENE!

Biolina? Ez, kasu honetan, 'triolina'

Ez dakigu zehazki zeintzuk diren biolin berezi horren onurak, baina ezin da ukatu ikusgarria, behintzat, badela.

www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Ez naiz faxista; zer esan nahi duen jakin izan banu, ez nukeen egingo"

GIORGIOS KATIDIS | FUTBOL JOKALARIA

Zein da agur nazi ohikoena? Seguru, gehienok jakingo genukeela galdera horren erantzuna. Antza denez, Giorgios Katidis futbol jokalaria greziarrak ez. Agur hori egin zuen partidu baten ostean, eta haren etorkizuna jokoan dago. Kasualitatearen kontuak?

www.twitter.com

EGURALDIA



Max. 15°

Min. 6°

Goizean zerua hodeitsu egongo da, baina arratsaldean zerua oso hodeitsu geratuko da.

euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-03-25

HAMARREKOA

Miren Agur Meabe Batez ere, poesian eta haur eta gazte literaturan aritu da orain arte idazle lekeitiarra; 'Kristalezko begi bat' da haren azken lana, helduendako idatzi duen lehen nobela | TXOMIN MADINA

"Esaten dena bezain inportantea da nola esaten den"

1. Zure azken lana zure autorretratu moduan definitu izan du norbaitek. Ados horrekin?

Orotara, autorretratu ez den arren, baditu nire burua zehatz deskribatzen duten zatiak; bai nortasun aldetik, bai alde fisikotik. Zergatik egin dudan? Uste dut norberaren izatea aztertzea sorkuntzaren abiapuntua izan litekeela.

2. Zergatik hau eta orain?

Hau zen unea: banuen zer kontatu, baita kontatzeko astia edo modua ere. Haustura sentimental batek eman zidan bultzada, dena den.

3. 13 urtetatik duzu kristalezko begia. Konpainia ona edo txarra da?

Begia, bai, 13 urte nituela galdu nuen. Kristalezkoa 21ekin jarri zidaten. Onerako izan zen, begi sana babesteko neurria zelako. Alde estetikoak ere irabazi nuen.

4. Liburuan dena ez da errealitatea; arduratzen zaitu jendeak errealitatea eta fikzioa nahasteak?

Idazleok fikzioa sortzen dugu; horrek ez du esan nahi kontatutakoa zintzoa ez denik: gogoetak, sentierak... egiazkoak dira, gertaera asko ere bai. Obrak benetan hitz egiten badio, irakurle onari ez dio inportatzen zenbateraino den errealitatea.

5. Horrelako liburu bat idazteko, ausarta, lotsagabea edo inkontzientea izan behar da?

Ausarta, nik esatea itsusia den arren. Lotsagabea ez dio axola inor zauritzea; inkontzientea ez daki zer dioen, edo dioena neurtzen.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Banatu egingo nituzke"

"Hainbeste gauza... Makila magikoak banatuko nituzke, pertsona bakoitzari bat, nork bere ametsa betetzeko".

6. Helduendako lehen nobela duzu hau; kosta egin zaizu salto egitea?

Aspalditik nuen gogoak; erronka gisa hartu nuen. Egitura asmatzea izan da zailena; nola txertatu begiari buruzko azalpenak istorioarekin, lotura hori justifikatzea.

7. Erabili ohi duzun hiztegi aberatsak laudorioak ekarri dizkizu. Egunero dago ikasteko hitzik?

Idazteak berak dakar aurkitzea. Estiloa lantzea funtsezkoa da: esaten dena bezain inportantea da nola esaten den; batez ere, zentzu barik hitzak ez errepikatzea. Lan honetako berba polit eta niretzat berria? *Tril egin*, topo egin esateko.

8. Literaturatik bakarrik bizi izateko erabakia zuzena izan zen?

Ez naiz inoiz damutu, dagokidanean nabil. Baina idazte hutsetik ezin liteke bizi; idazkuntzarekin zerikusia duten lan osagarri batzuk egiten ditut tarteka.

9. Lekeitio Bilbogatik aldatu zenuen. Zoratu ote zinen galdetuko zizun batek baino gehiagok...

Lanagatik aldatu nintzen orain urte asko. Hirian egin dut bizimodua, gustura. Aldi on luzea izan da, aberatsa, baina ezin egon Lekeitiotik aparte... Astebururo noa; biak konbinatzeko zortea dut.

10. Ingelesarekin zabilza. Noizko Hamlet jatorrizko bertsioan?

Iaz hasi nintzen, ez nekielako tutik ere. Oinarrizko maila lortuz gero, konforme, berba-trukea egiteko beste.

AZKEN BERBA

MARKOS BALENTZIAGA



Atrakoa

Konstantinos Haluzinahadisek Zipreko Nikosian denda bat dauka.

Denda izan litezken tribulazio guztien iturri bihurtu zaio eta, lapurrak ere, jakinaren gainean egonik, ez opor eta ez paso egiten dute Konstantan dendaz. Azken atrakoeak saldatarako hezurak baino koipebakoago laga dituzte irabaziak dendan.

Lapurrek, zer ebatsiko; Udalak, zer jasoko; haziendak, zer zukutuko; auzoko jai-batzordeak, zer jertziko; edota: "Hi, Konstan, kalea konpontzeko dirua batzeko afarira ez duk kalerik egingo, ezta?", orok du zertaz aprobetxa Konstantinosen negozioan.

Halatan zebiltzan Konstan eta haren familia dena, joan den astean, inoiz espero izango ez zutena iritsi zitzaizkion: bankuan duten kontu flakotik hainbesteko bat kenduko zaie, Europak aginduta! Bankuburu eta politikoen diru-juegak bitarteko, Europak Zipreko bankuetako kontujabeei atrakoa egingo die, lege-itxurapean, bai horixe! Europa bera lapur!

Joan den asteko atrako ahaleginak kale egin zuen, baina ez Konstantinos Haluzinahadisek eta ez haren familiak dute arnasa nasai hartzerik.

Kontuz Europarekin!



1-2 kg-ko olagarra

5,99 €/kg



3,75 €/ale

2,50 €/ale

KOIPE Oliba-oliba, suabea 0,4° edo bizi 1°, litro 1.



Barregorriak, 350 g

0,89 €

Kiloa 2,54 €tan



EROSKI

zurekin

Nik aurrezteak

Eskaintza baliagarria frutategian, harategian eta arrandegian 2013ko martxoaren 21etik 30ra.

Eskaintza baliagarria Eroski Arrasate Hipermerkatuan. Musakola z/g. 20500. ARRASATE.